

# ZAHARTZE AKTIBORAKO EUSKAL ESTRATEGIA

2015-2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



# ZAHARTZE AKTIBORAKO EUSKAL ESTRATEGIA

2015-2020

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Edizioa:**

1. edizioa: 2017ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Enpleguko eta Gizarte Gaietako Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Egileak:**

Ikerketa hau Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak egin du, Matia Institutu Gerontologikoaren laguntza teknikoarekin.

**Editorea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketatzea:**

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Gauzatze-prozesua eta alderdi metodologikoak</b>	<b>17</b>
<b>3. Kontzeptu- eta araudi-esparrua</b>	<b>21</b>
3.1. Osasunaren Mundu Erakundea eta zahartze aktiboa	21
3.2. Zahartze aktiboaren indizea (Active Ageing Index - AAI)	23
3.3. Nazioarteko erakundeek egindako ekarpenak	26
3.4. Erreferentziako legeria: Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Legea	28
<b>4. Planifikazio gerontologikoaren ekarpenak</b>	<b>31</b>
4.1. Euskadi	31
4.2. Estatua	22
4.3. Nazioartea	36
<b>5. Estrategia honen printzipio nagusiak</b>	<b>39</b>

<b>6. Zahartze aktiborako euskal strategiaren gai-alorrak</b>	<b>41</b>
1. alorra: Gizartea zahartzera egokitzea. Gobernantza-eredu berri bat.	43
2. alorra: Aurrea hartzea eta prebenitzea hobeto zahartzeko	50
3. alorra: Lagunkoitasuna eta parte-hartzea ongizate-gizartea eraikitzeko garaian	58
<b>7. Bibliografia-iturriak</b>	<b>65</b>
<b>8. Laburduren glosarioa</b>	<b>68</b>
<b>9. Eranskinak</b>	<b>69</b>
1. eranskina: Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI)	71
2. eranskina: Estatu mailan eta nazioartean aztertutako estrategia eta plan gerontologikoak	81
3. eranskina: Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiarako kontsulta-prozesua	133
3.1. eranskina: egindako elkarrizketen ondorioak	133
3.2. eranskina: lan-jardunaldian egin diren ekarpenak	151

---

## 1. Sarrera

Biztanleen Udal Erroldaren azken datuen arabera (EIN, 2013), Euskadin 2.191.682 biztanle daude. Horietatik % 20,2k, hau da, 443.350 biztanlek, 65 urtetik gora dituzte.

la biztanleriaren herenak (% 33,12), 725.789 pertsonak, alegia, 55 urte edo gehiago dituzte.

Gainzahartutako biztanleria, 80 urte edo gehiago dituzten biztanleen kopurua, alegia, 139.629 pertsonakoa da; hau da, biztanleria osoaren % 6 baino zertxobait gehiago (% 6,37). Datu horiek aditzera ematen dute 65 urtetik gorako pertsonen ia herenak (% 31,5) 80 urte baino gehiago dituztela dagoeneko.

Datu horien arabera, gizonen % 17,4k 65 urte baino gehiago ditu, eta gizonen % 4,5ek baino ez ditu 80 urte edo gehiago. Bestalde, emakumeen % 22,8k 65 urte edo gehiago ditu, eta % 8,13k, berriz, 80 urte edo gehiago.

Beste alde batetik, biztanleak sexuaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke biztanleria osoan emakumeen ehunekoa (% 51,24) gizonena (% 48,76) baino zertxobait handiagoa dela. Gizonen eta emakumeen arteko aldea handitu egiten da biztanleen adinean gora egin ahala: emakumeen proportzioa handitu egiten da eta, gizonena, berriz, txikitu.

Hala, 2013an, 55 urte edo gehiagoko biztanleen artetik % 55,3 emakumezkoak ziren, eta % 44,63, berriz, gizonak. 65 urte edo gehiagoko artean, emakumezkoak ia % 58 dira, eta gizonak, berriz, % 42. 80 urte edo gehiago dituzten artean, berriz, emakumeen

ehunekoa % 65,4koa da, eta gizonena % 34,6 baino ez. Horrek esan nahi du 2013an, 80 urte edo gehiagoko herritarren artean, emakumeen kopuruak gizonena bikoizten zuela ia (emakumeak gizonen halako 1,89 ziren).

**Euskal Autonomia Erkidegoa: biztanleria-datuak, 2013.**

Adina	Bizt. guztira	% biztanleria osoarekiko	Gizonak	% gizon guztiekiko	Emakumeak	% emakume guztiekiko
Bizt. guztira	2.191.682	100	1.068.746		1.122.936	
55 urte edo gehiago	725.789	33,12	323.957	30,3	401.832	35,78
65 urte edo gehiago	443.250	20,22	186.372	17,44	256.878	22,87
80 urte edo gehiago	139.629	6,37	48.295	4,5	91.334	8,13


Adina	Bizt. guztira	Gizonak	%, adin taldearekiko	Emakumeak	%, adin taldearekiko
Bizt. guztira	2.191.682	1.068.746	48,76	1.122.936	51,24
55 urte edo gehiago	725.789	323.957	44,63	401.832	55,37
65 urte edo gehiago	443.250	186.372	42,05	256.878	57,95
80 urte edo gehiago	139.629	48.295	34,59	91.334	65,41

Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Geuk egina.

Biztanleriaren zahartzean hain ohikoa den errealitate hori argi islatzen da gizonen eta emakumeen arteko aldeak adinaren arabera adierazten dituen biztanleria-piramidean. Bertan ikus daiteke neska baino mutil gehiago jaiotzen direla; ondorioz, adin ertainera arte, emakume baino gizon gehiago dago. 40 urtetik aurrera, gizonen kopurua beheratzen hasten da, eta emakumeena, berriz, goratzen. Fenomeno horren azalpena da, besteak beste, gizonen heriotza-tasa altuagoak dituztela eta bizi-itxaropenaren luzapenak eragin handiagoa duela emakumeengan. Badirudi heriotza-tasen arteko aldea murrizten ari dela; dena den, emakumeak gizonak baino luzeago bizi dira, eta, ondorioz, gizon baino emakume gehiago dago guztira.



## Emakume eta gizon kopuruaren arteko aldea, adinaren arabera, 2013.



Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Geuk egina.

1996an, adinekoak biztanleria osoaren % 15,35 ziren. 2013an, berriz, biztanleria osoaren % 20,22 dira. 80 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan, 1996an biztanleria osoaren % 3,3 ziren; 2013an, berriz, % 6,37 dira. Ondorioz, bi urte horien arteko aldia gora egin du adinekoek biztanleria osoan hartzen duten ehunekoak.

## Euskal Autonomia Erkidegoa: biztanleria-datuak, 1996.

Adina	Bizt. guztira	% biztanleria osoarekiko	Gizonak	% gizon guztiekiko	Emakumeak	% emakume guztiekiko
Bizt. guztira	2.098.044	100	1.027.108		1.070.936	
65 urte edo gehiago	321.953	15,35	131.930	12,84	190.023	17,74
80 urte edo gehiago	69.606	3,3	21.083	2,1	48.523	4,5

Adina	Bizt. guztira	Gizonak	%, adin taldearekiko	Emakumeak	%, adin taldearekiko
Bizt. guztira	2.098.044	1.027.108	48,96	1.070.936	51,04
65 urte edo gehiago	321.953	131.930	40,98	190.023	59,02
80 urte edo gehiago	69.606	21.083	30,29	48.523	69,71

Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Geuk egina.

1996-2013 aldian (17 urte), Euskadiko biztanleriak 93.638 biztanle gehitu ditu. Hau da, biztanleria % 4,46 hazi da. Hala ere, adineko biztanleen kopuruak izugarri egin du gora. 65 urtetik gorako biztanleriak 121.297 biztanle gehitu ditu (% 37,67ko gorakada), eta bikoiztu egin da 80 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, talde horrek 70.023 biztanle gehitu baititu (% 100,6ko gorakada). Hazkunde harrigarri hori bistakoa da bi urte horietako piramideetan.

#### Euskal Autonomia Erkidegoa: 1996ko eta 2013ko biztanleria-datuak

1996. urtea			2013. urtea		Hazkundera	
Adina	Bizt. guztira	% biztanleria osoarekiko	Bizt. guztira	% biztanleria osoarekiko	Guztira	%
Bizt. guztira	2.098.044		2.191.682		93.638	<b>4,46</b>
65 urte edo gehiago	321.953	15,3	443.250	20,2	121.297	<b>37,67</b>
80 urte edo gehiago	69.606	3,3	139.629	6,4	70.023	<b>100,6</b>


Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 2013. Geuk egina.

1996. urteko piramidean, 15 eta 30 urte arteko tarteetan pertsona ugari dagoela ikus daiteke; 70 urtetik aurrera, ordea, zenbatekoa oso txikia da. 2013ko piramidearen profila oso bestelakoa da: biztanle gazteenen kopurua murriztu egin da, eta adinekoena, berriz, handitu. Adinaren arabera egituraren gertatzen diren aldaketa horiek biztanleria zahartzen ari dela adierazten dute.

Biztanleriaren zahartzea honela defini daiteke: biztanle talde baten adinaren arabera egituraren banaketan aldaketak eragiten dituen prozesu bat. Prozesu horrek bi dimentsio ditu, horien kausen eta ondorioen arabera bereiz daitezkeenak. Dimentsio batek erreferentzia egiten dio gizartean dauden pertsona nagusien proportzioari. Horrek esan nahi du adin-tarte horretako biztanle-kopurua gainerakoak baino azkarrago hazten dela. Hauek dira aldaketa horren kausa nagusiak: jaiotza-tasa jaitea eta bizi-itxaropena luzatzea.

Piramideek irudikatzen dituzten 17 urteko tartean (1996-2013), argi ikus daiteke zer-nolako gorakada izan zen "baby boom" garaian jaiotako adin-tarteetan. Horrez gain, nabarmentzekoa da jaiotza-tasak izan duen gorakada txikia; horrek ondorioak izango ditu etorkizunean.

## Euskal Autonomia Erkidegoa: 1996 eta 2013ko biztanleria-piramideak



Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda, 1996-2013. Geuk egina.

“Baby boom” izeneko fenomenoak Europako herrialde askotan jazo zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Fenomeno horren ezaugarri nagusia 1957-1977 arteko ugalkortasun handia da. Belaunaldi horiek gaur egun biztanleriaren herena hartzen dute. Aipagarriak dira “baby boom” belaunaldiak erretiroa hartzeak ekarriko dituen ondorioak, mendeko hirugarren hamarkada inguruan (2020). Horrek izango duen eragina belaunaldi horiek hezkuntza-sisteman edo lan-munduan sartu zirenean bezain handia izango da.

Biztanleriari buruzko aurreikuspenek diote, gainera, pertsona nagusien ehunekoa nabarmen handituko dela. EINek emandako azken datuen arabera, 2029. urtean Euskadin 65 urtetik gorako 596.329 biztanle egongo dira. Hala, biztanler horiek biztanleria osoaren % 29 izango dira. 55 urte edo gehiagoko milioi bat biztanle inguru egongo dira, hau da, euskal biztanleriaren ia erdia.

65 urtetik gorako biztanle kopuruaren gorakada baino are aipagarriagoa da 80 urte edo gehiago dituzten biztanle kopuruak izango duen gorakada. Aurreikuspenen arabera, 2029. urterako, 200.000 biztanlek baino gehiagok izango dute 80 urte edo gehiago Euskadin; hau da, biztanleria osoaren % 9,9k eta adineko biztanle guztien % 34,1ek.

## Euskal Autonomia Erkidegoa: 2029. urterako aurreikusitako biztanleria


Adina	Bizt. guztira	% biztanleria osoarekiko	Gizonak	% gizon guztiekiko	Emakumeak	% emakume guztiekiko
Bizt. guztira	2.056.975	100	989.187		1.067.788	
55 urte edo gehiago	923.010	44,87	417.588	42,22	505.416	47,33
65 urte edo gehiago	596.329	28,99	256.755	25,96	339.572	31,8
80 urte edo gehiago	203.806	<b>9,9</b>	76.094	7,69	127.712	11,96

Adina	Bizt. guztira	Gizonak	%, adin taldearekiko	Emakumeak	%, adin taldearekiko
Bizt. guztira	2.056.975	989.187	48,09	1.067.788	51,91
55 urte edo gehiago	923.010	417.588	45,24	505.416	54,76
65 urte edo gehiago	596.329	256.755	43,06	339.572	56,94
80 urte edo gehiago	203.806	76.094	37,34	127.712	<b>62,66</b>

Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleriaren aurreikuspenak, 2013. Geuk egina.

2014ko biztanleria-piramideak eta 2029rako aurreikusitakoak Euskadiko demografiaren etorkizuna islatzen dute. Biztanle gehien duten taldeak gero eta gorago ageri dira piramidean, eta 2029an 50 urtetik gora daude; horrek adierazten du adin horretatik gora dagoela biztanleriaren zati handi bat hala gizonen nola emakumeen kasuan. Alderantziz, 25 eta 45 urte arteko biztanlerian beherakada nabaritu daiteke. Nabarmen handitzen den beste adin talde bat ehun urtetik gorakoena da: 2029. urterako, 100 urte edo gehiagoko 3.000 pertsona baino gehiago egongo dira Euskadin, batez ere emakumeak. Adin horretako gizonak halako 5 emakume egongo dira.

## Euskal Autonomia Erkidegoa: Biztanleriaren aurreikuspenak: 2014-2029 piramideak



Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleriaren aurreikuspenak, 2013. Geuk egina.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ongi daki zer eraldaketa ari diren gertatzen gure gizartean zahartze-prozesuaren eraginez; hori dela eta, pertsonetikiko dugun konpromisoari eusteko, datozen bost urteetarako Zahartze Aktiborako Estrategia hau sustatuko dugu. Zalantzarik gabe, urte luzez bizitzea arrakastaren ikur da hobeto eta luzeago bizitzea ahalbidetzen duten tresnak herritarren esku jartzeko ahalgin handiak egin dituen gizarte batentzat; bitarteko horiek dira, besteak beste, gizarte-babeserako sistema sendoa izatea, herritar guztiek osasun-zerbitzuak, hezkuntza eta desgaitasunei eta mendekotasunari aurre egiteko laguntza eskura ditzaketela bermatzeko, eta berrikuntzaren eta ezagutzen sorkuntzaren aldeko apustu argia egitea, zahartze onaren gakoa identifikatu ahal izateko.

Halaber, euskal gizarteak bere egin ditu hainbat jakintza-esparrutatik eta administrazio publikoetatik, zientzia elkarreetatik eta gerontologiaren arloko beste erakunde batzuetatik jasotako gomendioak; era horretako gomendioak etengabe egiten dira, xede hau lortze aldera: zahartze aktibo positiboa, osasuntsua eta herrialdearen, lurraldearen, hiriaren zein udalerrriaren garapenean txertatuta dagoena.

Biztanleriarentzat etengabe ongizatea eraikitze konpromisoa eta ilusioa duen gizarte baten testuinguruan integratzen da Zahartze Aktiborako Estrategia hau, arrakasta izateko asmoz; herritar guztiek ikus dezakete beren burua estrategia honetan islatuta, edozein adin dutela ere, eta hemen ematen diren gomendioak beren eguneroko bizitzan aplikatu ditzakete. Izan ere, ondo zahartzea bizitza osorako lana da, eta norbanakoaren zein gizarte osoaren erantzukizuna eskatzen du.

Euskadiko planifikazio gerontologikoaren aurrekariak:

- Eusko Jaurlaritzaren planifikazio gerontologikoaren arloko lehen aurrekaria 1990koa da, orduan onetsi baitzen Euskadiko lehen Plan Gerontologikoa.
- 1994an, Eusko Legebiltzarrak bigarren Plan Gerontologikoa onetsi zuen, prozesu interesgarri baten ondoren. Haren bitartez, besteak beste, 1993ko Hirugarren Adinekoen Inkesta argitaratu zen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak egina; inkesta hori erreferentea izan da Adineko Pertsonen Bizi Baldintzei buruzko hurrengo ikerketak egiteko. Bertan bildutako informazioari esker, datu zehatzak eta frogak erabiliz, egiazta daiteke zenbaterainoko aldaketa jasan duen zahartzen ari den biztanleriak, aurrerago ikusiko dugun moduan.
- 2010ean, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak dokumentu hau argitaratu zuen: "Ehun proposamen zahartzen ari diren pertsonen ongizatearekin eta tratu onekin lotutako aurrerapausoak lortzeko. Ekintza Planaren oinarriak", zertarako eta eztabaida irekitzeko, gerora adinekoentzako Ekintza Plan baten diseinuaren oinarri izan ziren jardunbideak adosteko.

Denbora-tarte horretan hainbat ekimen gauzatu dira planifikazio gerontologikoaren arloan; hala ere, ekimen horiek batez ere laguntza behar duten pertsonentzat izan dira, eta lege hauek garatu eta aplikatzearen ondoriozkoak: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea (abenduaren 14ko 39/2006) eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (abenduaren 5eko 12/2008). Halaber, mendekotasun- eta desgaitasun-egoerak pertsonengan eta gizartean duten eragina izan da ekimenen ardatz nagusia, botere publikoetatik erantzun behar baitzaie halakoei. Pertsona ardatz duen arreta-eredu integral bat aplikatzeko saiakerai eta haien tratu ona sustatzeko ekintzen garapenari esker, urrats garrantzitsuak egin dira era horretako egoerei erantzuteko orduan.

"Zahartze aktiboa" paradigma herritarren diskurtsoan txertatu da, batez ere Age Friendly Cities and Communities (adinekoekiko lagunkoiak diren komunitateak eta hiriak) proiektuaren esparruan garatutako lagunkotasun-prozesuen bitartez; proiektu hori Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sustatu zuen, 2005. urtean, eta Euskadik eginkizun garrantzitsua betetzen du haren garapenean. Era berean, hauteman da urrats gehiago egin behar direla gero eta biztanle gehiago biltzen dituen biztanleria talde horri buruzko azterketan eta haientzako proposamenetan; hain zuzen ere, zahartzen ari diren pertsonak osatutako multzo horrek adin-tarte handia hartzen du barne, eta 80 urte edo gehiagoko taldeak ez bezalako beharrianak dituzte.

Orain arte finkoak ziruditen sistemak eta usteak berrikusteko eta aldatzeko unea iritsi da, baita gerontologiaren esparruan ere. Berrikusi beharreko lehen alderdia, agian, zahartzaroan sartzeko adina da; izan ere, zenbaki hori ez dator guztiz bat egunez egun ikusten dugun errealitatearekin. Adinduak dira, baina ez zaharrak, eta askotariko erantzukizunak dituzte (beren etxeaz eta seme-alabenaz arduratzea, kasurako). Irudi hori ez dator bat tradizionalki zahartzaroari lotu izan zaion irudiarekin; izan ere, gaurko adinekoek herritarren mugimenduetan eta boluntariotzako ekimenetan parte hartzen dute, kirola egiten dute eta elikadura, garuna, mundu afektiboa eta mundu emozionala zaintzen dituzte. Adintsutasunaren benetako iraultza indartsua daukagu gure aurrean.

Hona hemen zenbait adibide:

- “Zahartze Aktiboa” kontzeptua/paradigma berrikusten ari gara, bai eta haren erreferentziatzko dokumentua ere, “Zahartze aktiboa: esparru politiko bat” izenekoa, Osasunaren Mundu Erakundeak, 2002an, Zahartzeari buruzko Munduko II. Asanbladaren (Madril, 2002) harira argitaratua. Dokumentua Alexander Kalachek eta Louise Plouffek idatzi zuten; egun, haiek ari dira kontzeptu hori berriz formulatzen.
- Active Ageing Index – AAI (Zahartze Aktiboaren Indizea) izeneko adierazle sintetikoa Europar Batasunak (EB) eta Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordeak (United Nations Economic Commission for Europe - UNECE) plazaratu zuten, Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Nazioarteko Urtearen (2012) harira. AAI indizeak Europako herrialdeak sailkatu egiten ditu, lau dimentsiotan taldekatutako hainbat adierazle aintzat hartuta. Estrategia hau gauzatzeko, aurrerago aurkeztu dugu (3.2 atala eta 1. eranskina) Euskadiri dagokion adierazle horren kalkulua; emaitzak oso onak dira.
- Zahartzearen inguruko nazioarteko planifikazioa aldatzen ari da, eta gerontologiaren muga zurrinak apurtzera behartuta dago; hala, biztanleria ikuspegi berri batetik aztertu beharra dago, herritarren heren batek 60 urte edo gehiago izateak eta kasu askotan beste hiru hamarkada edo gehiago bizi ahal izateak dakarren aldaketa sozialak eragindako beharrianak aintzat hartuta.

Nahitaez sakon aldatu behar ditugu zahartzen ari diren pertsonen errepresentazio sozialak; hori benetan lagungarria izango da belaunaldi horien rolari eta herritarren bizi-egitura “normalizatueta” duten presentziari zein komunitatean duten partaidetzari buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesu irekia formulatzeko.

2015-2020rako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia honen bitartez lortu nahi duguna da zahartzen ari diren pertsoneri hitza emango dien eta adin guztietako biztanleentzako gizarte bat eraikitzeko baliagarria den gobernantza eredu bat identifikatu ahal izatea.



---

## 2. Gauzatze-prozesua eta alderdi metodologikoak

Hemen aurkezten dugun dokumentua baino lehen, era askotako beste lan batzuk egin dira. Hauek dira lan horiek:

**1 “Ehunproposamenezahartzenaridiren pertsonen ongizatearekin eta tratu onekin lotutako aurrerapausoak lortzeko” dokumentuan diseinatutako ekimenen betetze-mailari buruzko ebaluazioa.** Dokumentuaren erdigunean, garatu beharreko joera, orientabide, ildo eta ekintzen hainbat proposamen eta hausnarketarako zenbait iradokizun zeuden. Ez zen helburu eta ekintza zehatzak biltzen zituen plan bat. Hori dela eta, ebaluazio-txostenak planteamenduen egokitasuna, planteamenduak berriz formulatzeko beharra eta aplikazio-aldi laburrean (2011- 2013) gauzatutako jardunbide onen multzoa ebaluatzen ditu, gehienbat.

**2 Euskadiren Zahartze Aktiboaren Indizea (Active Ageing Index) kalkulatzea.** Estrategia honen kontzeptu-esparruan aurkeztu da, eta 1. eranskinean ageri da.

### 3 Erreferentziazko dokumentuak eta bibliografia berrikustea:

- a. Nazioarteko erakundeen gomendioak eta agiriak
- b. Azken urteotan egin diren planifikazio gerontologikoak eta zahartzeari buruzko alderdiak aintzat hartzen dituzten beste planifikazio batzuk berrikustea, bai Euskadi eta Espainia mailakoak, bai Europako zenbait herrialdetakoak, Australiakoak, Kanadakoak eta AEBkoak. 2. eranskina

**4 “Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa”.** Lehen aldiz, adin-tarte horretako biztanleen bizi-baldintzak aztertzen dituen ikerketa bat dugu. Bertan, 2.496 pertsonako lagin bat aztertu zen, Euskadiko hiru lurraldeetan banatuta. Horrez gain, galdetegiaren zati handi bat 1993 eta 2010ean erabilitakoaren berdina da; horri esker, errazagoa da datuak alderatzea eta bilakaera aztertzea.

**5 Kontsulta-prozesua gauzatzea.** Prozesuak bi atal hauek ditu: egindako elkarrizketen emaitza eta Lan Jardunaldietan egindako ekarpenak.

Guztira 43 **elkarrizketa** sakon egin zaizkie kolektibo hauei:

- a. Adinekoen mugimendu asoziatiboko buruak.
- b. Foru-administrazioetan eta tokiko administrazioetan adinekoentzako programak planifikatzen dituzten arduradunak.
- c. Euskal udalerrri handietan eta EUDELen adinekoentzako programak planifikatzen dituzten arduradunak.
- d. Profesionalen elkargoak eta gerontologiaren arloko adituak.
- e. Arlo horretako politikei lotutako Eusko Jaurlaritzako arduradunak: etxebizitza, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituzten sailak.
- f. Emakunde - Emakumearen Euskal Institutua.

Ekarpen nagusiak biltzen dituen txosten bat gehitu da 3. eranskin gisa (3.1 atala), bai eta egindako elkarrizketaren gidioa eta elkarrizketatutako erakundeen zerrenda ere. Prozesu horretan garrantzi handia izan du ezagutzen eta esperientzien bilketak; nola beste planifikazio batzuenak, hala eragina jasaten zuten sektore eta adituenak ere. Oinarri horren gainean, Estrategia honek metodologia-formatu simple baten alde egin du, deskribatutako prozesuan ikusitako ekarpen berritzaileenak biltzeko eta, beste ezeren gainera, elkarrizketatutako erakundeetako arduradunek adierazitako ikuspegi eta sentsibilitateak biltzeko.

Horrez gain, 15/04/02an **Lan Jardunaldi** bat egin zen Barakaldoko BECen. Bertan, Estrategia honen hiru gai-arloak (aurrerago garatuko ditugu) jorratu, eta hainbat ekarpen bildu ziren. Ekarpeneren laburpen-dokumentua 3. eranskinean gehitu da, 3.2 atalean.

Horren guztiaren emaitza da jarraian aurkezten den diseinua, Euskadiko gobernantza-eredua berriz formulatzeko eta datozen urteotan zahartzea gizarte-ongizatea hobetzeko funtsezko elementu gisa hartuko duten politika, zerbitzu eta programak garatzeko ibilbide-orria izango dena.

2015-2020rako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiak hiru arlo nagusi ditu, eta arlo bakoitzak bere helburu nagusia du; horrez gain, helburu nagusi bakoitza 12 helburu operatibotan eta hainbat ekintzatan banatzen da. Sistematizatzeko aukera asko daude eta, kasu honetan, gauzatze-prozesuak hainbat aldaketa eragin ditu, dokumentu hau ahalik eta argiena eta erabilgarriena izan dadin. Hona hemen landu diren arloak:

I. arloa.- Gizartea zahartzera egokitzea, gobernantza-eredu berri bat.

II. arloa.- Aurrea hartzea eta prebentzioa hobeto zahartzeko.

III. arloa.- Lagunkoitasuna eta parte-hartzea ongizatearen gizartea eraikitzeke garaian.



---

## 3. Kontzeptu- eta araudi-esparrua


- 3.1. Osasunaren Mundu Erakundea eta zahartze aktiboa
- 3.2. Zahartze Aktiboaren Indizea (Active Ageing Index - AAI)
- 3.3. Nazioarteko erakundeek egindako ekarpenak
- 3.4. Erreferentziako legeria: Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Legea

### 3.1. Osasunaren Mundu Erakundea eta zahartze aktiboa

Abiapuntua da zahartzea biziak irauten duen bitartean irauten duen prozesua delako ustea; prozesu horrek ezaugarri nagusia aldakortasuna da, nahiz eta zahartzaroa jorratzeko joera nagusia biztanle talde hori homogeneo bihurtzen saiatzen den. Zahartzearen ezaugarri nagusia prozesu horren osaera biopsikosoziala da. Azken hamarkadetan, elementu bakoitzaren pisua ikertu eta eztabaidatu egin da, eta hautsak harrotu dira. Kitkwoodek (2005) azaltzen du bizitzaren luzeraren % 75 baldintza sozialen eta jokabide-baldintzen araberakoa delan eta % 25, berriz, faktore genetikoaren araberakoa.

Uste horretatik abiatuta, ingurumen-faktoreek dakarten aldakortasun-marjina oso handia izango litzateke eta, neurri batean, zahartzeko moduen arteko aldeak azalduko litzuzke: zahartze aktibo eta positiboa izatea edo gaixotasunak eta mendekotasuna ardatz dituen zahartzea izatea (l. grafikoa).

1. grafikoa. Zahartze aktiboa. Bizialdi osoa irauten duen prozesua.



Iturria: Kalache eta Kickbusch, 1997

Jarrera horien eta froga zientifiko ugarien eraginez, OMEak 2002an jendarteratutako garapen politiko eta kontzeptuala egin zen "Zahartze aktiboa: esparru politiko bat" dokumentuan, non laburbiltzen baita kasu askotan antzeko asmoz erabilitako beste kontzeptu hauen garapena: zahartze osasuntsua, produktiboa, gogobetegarria, positiboa...

Zahartze aktiboaren planteamenduak zahartze osasuntsuarena baino ekintza-esparru inklusiboagoa eskaini nahi du; izan ere, zahartze-prozesuaren osasun-alderdiei soilik lotzen zaio azken hori. Zahartze aktiboak adinekoen giza eskubideen aitortpena du oinarri, baita Nazio Batuen printzipioak ere: hau da, parte hartzea, duintasunez bizitzea, laguntza jasotzea eta nork bere nahiak bete ahal izatea. Zahartze aktiboak adinekoen bizitzako alderdi guztietan aitortzen ditu eskubideak eta aukera- zein tratu-berdintasuna, adinean aurrera egin ahala. Horrez gain, adinekoek prozesu politikoan eta komunitateko bizitzako beste edozein esparrutan parte hartzeko duten erantzukizuna azpimarratzen du.

Zahartze aktiboa pertsonak, familiak eta herrialdeak inguratzen dituzten askotariko eragileen edo «determinatzaileen» mendekoa da. Erreferentziako dokumentuan, 2. grafikoa jasotako sei blokeetan sistematizatu ziren determinatzaile horiek; horrez gain, garrantzi handia eman zitzaion zeharkako determinatzaileei (kultura eta generoa), ezinbestekoak baitira paradigma hau ulertzeko. Gaur egun, ikerketek ezagutza berriak ematen jarraitzen dute, eta osasunaren gizarte-determinatzaileak aztertzea OMEren funtsezko arlo bilakatu da; bertan, bat egiten dute, eta zehaztu egiten dira, zahartze aktiboaren eta zahartze osasuntsuaren kontzeptuen aplikazioak.

## 2. grafikoa: zahartze aktiboaren determinatzaileak



Laburbilduz, Estrategia honen kontzeptu-esparrua Osasunaren Mundu Erakundeak ezartzen du; erakunde horrek honela definitzen du zahartze aktiboa: **“osasun, parte-hartze eta segurtasun aukerak optimizatzeko prozesua, zahartu ahala bizi kalitatea hobetzeko”.** (OME, 2002)

## 3.2. Zahartze Aktiboaren Indizea (Active Ageing Index - AAI)

Zahartze Aktiboaren Indizea (hemendik aurrera, AAI), zehaztasun osoz ageri da 2. eranskinean.

Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI) Europako Batzordearen Enplegua, Gizarte Gaiak eta Inklusioa Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordeak (UNECE) elkarlanean kudeatutako ikerketa-proiektu baten emaitza da. Proiektua 2012an jarri zen martxan, eta helburu zuen biztanleriaren zahartzeari loturiko erronkak barne hartzen zituzten estrategia eta politika publikoak egiten lagunduko zuen tresna bat sortzea.


AAIren garapena Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europako Urtearen (2012) testuinguruan egin zen. Urte horretan, gainera, hamar urte bete ziren 2002an Zahartzeari buruzko Mundu Biltzarra egin zenetik, Madrilen, baita Madrilgo Nazioarteko Ekintza Planaren ezarpenaren ebaluazioaren bigarren fasea egin zenetik ere. Indizea diseinatzeko, kontuan hartu ziren OMEk proposatutako Zahartze Aktiboaren definizioa (2002) eta Zahartze Aktiboaren Europako Urtearen harira onetsitako hitzarmenak, estrategia honetan sustatu beharreko arloak eta aurreikusitako ezarpena barne.

Proiektua bi fase hauetan garatzen ari da: lehenengo fasea (2012ko urtarriletik 2013ko otsailera) bukatu zenean, indizearen emaitzak argitaratu ziren une hartan Europar Batasuna osatzen zuten 27 herrialdeetarako. Horrez gain, maila politikoan, sozialean eta ikerkuntza mailan ere aurkeztu zen tresna hori. Egun, bigarren fasean gaude (2013ko urritik 2015eko abendura). Fase horren helburu nagusia AAI aplikatzea eta lortutako datuetan oinarritutako politikak formulatzea da. Duela gutxi Europar Batasuneko herrialdeen sailkapenaren datu eguneratuak argitaratu dira, orain 28 herrialdek osatzen baitute, Kroaziak bat egin ondoren.

### Deskribapena, gaitasuna eta mugak

AAI tresnak lau dimentsio hartzen ditu kontuan zahartze aktiboa neurtzeko. Hauek dira: enplegua, parte-hartzea, independentzia eta gaitasunak. Dimentsio bakoitza kalkulatzeko, 22 adierazle daude (3. grafikoa); adierazleek ere informazio asko ematen dute. Indizearen kalkulari esker, herrialdeak aldera daitezke, eta hori oso eraikigarria izan daiteke datoen urteotan zahartzearen arloan jarraitu beharreko politikak planifikatzeko orduan.

3. grafikoa: AAIren alderdiak



Iturria: Geuk egina (UNECE webguneko irudiaren itzulpena)



Helburu hauetarako erabiltzen da AAI: zahartze aktiboari buruzko emaitzen jarraipena egiteko, eta emaitzok alderatzeko frogak eskuratzeko, honako esparru hauetan: nazioartea, estatua eta tokian tokikoa; arreta jartzea adinekoek eskaintzen duten gaitasun sozial eta ekonomiko handian, orain alferrik galtzen ari baikara; eta adinekoen autonomia eta rol aktiboak sustatzea.

Nazioarteko sailkapena UNE-CEren webgunean dago argitaratuta, AAIren atalean. Euskadi EBko 28 herrialdeetatik zazpigarren postuan dago, kalkulu globalean. Espainia (Euskadi kontuan hartu gabe) 17. postuan dago. Sailkapena generoaren arabera ere kontsulta daiteke.

**<http://www1.unece.org/stat/platform/display/AAI/Active+Ageing+Index+Home>**

Tresnaren alderatze-gaitasuna erabili ahal izateko, beharrezkoa da emaitzak interpretatzeko unean hainbat faktore garrantzitsu kontuan hartzea. Indizea egitean, ahaleginak egin dira ebaluazioa ez dadin konplexuegia izan; hori dela eta, hizkuntza guztietara itzuli diren kontzeptu sinplez osatutako galderak erabili dira. Hala ere, zailtasunak ikusi dira terminoak eta kontzeptuak homogeneizatzeko unean, bai polisemia-arazoak direla eta, bai gaur egun 28en Europa osatzen duten herrialdeen arteko desberdintasun idiosinkratikoak direla eta. Hori dela eta, komenigarria litzateke berme psikometrikoak izatea, galdetegiko galdera subjektiboetan baliokidetasun kulturala bermatu ahal izateko.

### 3.3. Nazioarteko erakundeek egindako ekarpenak (2. eranskina)

Jarraian, nazioarteko erakundeek zahartze aktiboaren arloan egin dituzten ekarpen handiak aipatzen dira, baina ez dira aztertu erakunde horiek eta, batez ere, Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGE), epe luzeko zaintzen inguruan egindako ekarpenen multzo handia.

#### Nazio Batuen Erakundea (NBE)

**Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Plana eta Zahartzeari buruzko Nazio Batuen II. Biltzarrean (AME 2002) onetsitako Adierazpen Politikoa** gauzatzeak eragin sakona izan zuen gerontologiaren arloko nazioarteko politika eta estrategietan. Gobernuek berretsi egin zuten zahartzeak etorkizunerako dakartzan erronkei erantzuteko konpromisoa, eta lehentasunezko hiru gai hauei buruzko ehun gomendio baino gehiago zabaldu ziren: i) adinekoak eta garapena, ii) zahartzaroan osasuna eta ongizatea sustatzea iii) adinekoentzat ingurune atsegina eta onuragarria sortzea.


II. AME biltzarraren harira, beste agiri batzuk ere agertu ziren, non garrantzi handiko alderdiak lantzen baitziren ikuspegi horretatik, esate baterako, gizartean parte hartzea, aukera-berdintasuna edo bizimodu autonomo eta independentea (4. grafikoa). **Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko NBEren biltzarrean (2006)** diseinu unibertsalari buruz hitz egin zuten; horren bitartez, produktuak, inguruneak, programak eta zerbitzuak ahal bezainbeste pertsonen eskura egotea bermatu nahi zen, egokitzeko edo berriz diseinatzeko beharrik gabe.

#### Europar Batasuna

Zientziaren arloko idatzietan behin baino gehiagotan adierazi da biztanleriaren zahartzea genero-ikuspegitik landu behar dela. Ildo horretan, Europar Batasunaren esparruan aipatzekoak dira 2009an idatzitako **Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunei buruzko ondorioak: zahartze aktiboa eta duina** (EBko EPSCO-Kontseiluak egin zuen, Enplegu, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak sailean). Agiri horrek generoaren garrantzia azpimarratzen zuen estrategia eta politiken zeharkako ardatz gisa, batez ere zahartzaroan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik eza are sakonagoa bilakatzen denean.

2010. urtean, Europako Batzordeak **2020 Europako Estrategia** onetsi zuen. Horren barruan, teknologiaren eta berrikuntzaren hainbat alderdi sustatzen dira, eta bereziki azpimarratzen dira zahartzeari lotutako erronkak. Ildo horretan, ikus dezakegu estrategia horren zazpi ardatzetako bat **“Europarako agenda digitala”** dela. Ardatz horrek aipatzen du beharrezkoa dela Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) Europan sartzea eta sustatzea, eta zehazten du zahartzen ari diren biztanleak talde gakoa direla horretan. IKTek eginkizun nabarmena dute bizi-kalitatearen hobekuntzan; izan ere, adinekoei autonomia eta independentzia handiagoa izaten laguntzen diete, eta hala lanean nola komunitatean aktibo jarraitzeko aukera ematen diete. Horrez gain, EBko agirietan behin eta berriz aipatzen den **Horizonte 2020** programa ere (EBko ikerkuntza- eta berrikuntza-programa 2014-2020 urteetarako) Europako Estrategia horren emaitza da; kasu horretan, **“Berrikuntzaren aldeko Batasuna”** ekimenaren barruan diseinatutako tresna bat da. Bukatzeko, Europako Estrategian garatutako beste ekimen bat **2014-2020 aldirako Hazkuntzarako Osasun Programa** (2011) da; bertan, osasunak zahartzean duen eragina azpimarratzen da eta zahartze aktibo eta osasuntsuaren arloan berrikuntza sustatzeko hainbat ekintza espezifiko azaltzen dira (sentsibilizazioa, prebentzioa, diagnostiko goiztiarra, tratamendua eta bizimodu autonomia izateko zaintzak).

#### 4. grafiko: zahartze aktiboari buruzko Europako erakundeen agiriak



Iturria: Matia Institutu Gerontologikoa. Geuk egina.

2011. urtean, parte-hartzeari estuen lotutako esparruetan, aipatzekoak dira **Garraioari buruzko Liburu Zuria** (2011) eta **Herritartasun Aktiboa sustatzeko Boluntarioria Jardueren Europako Urtearen harira Europako Batzordeak argitaratutako jakinarazpena**. Lehenengoak azpimarratzen du beharrezkoa dela kalitatea, irisgarritasuna eta fidagarritasuna bermatzen duten garraio bideak izatea; horietan, hobetu egin beharko dira adinekoei, mugikortasun mugatua dutenei eta desgaitasunen bat dutenei lotutako alderdiak.

2012. urtean Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europako Urtea egin zen; urte horretan, argitara atera zen **Kontseiluaren Adierazpena, Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europako Urteari buruzkoa (2012): etorkizunerako estrategia**. Adierazpenak 19 orientabide hartzen zituen barne; EBko Enplegu eta Gizarte Babes Batzordeek eginak, Estatu kideei arlo horietan laguntzea zuten helburu.

Handik urtebete ingurura, 2013ko otsailaren 13an, Europako Batzordeak jakinarazpen baten bitartez berretsi zituen zahartze aktiborako orientabideak eta gidak, eta "Zahartze Aktiboaren Indizea" izeneko tresnaren erabilera gomendatu zuen, arlo horretako egungo egoera eta biztanleei modu aktiboan zahartzeko ematen zaizkien erraztasunak enpirikoki neurtzeko.

### 3.4. Erreferentziako legeria: Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Legea

Zahartze Aktiborako estrategia horrek egun indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (abenduaren 5eko 12/2008) hartzen du erreferentzia gisa. Honela dio lege horren zioen azalpenak:

"Garrantzitsua da gogoan izatea, sistema hori eraikitzeko eta antolatzeko orduan, herritarren eskubideen artean sartzen direla, gaur egun, ez bakarrik pertsona guztiei prestazio eta zerbitzu jakin batzuetarako eskubidea ezagutzea, baita **diferentziarako eskubidea aitortzea** ere. Eredu horren muin-muinean izango lirateke berdintasun- eta ekitate-printzipioak, izan ere, printzipio horiek sistemaz bazterkeriarik gabe baliatzea bermatzen dute, eta baita askotariko ikuspegiak bateratzea (generoa, dibertsitate sexuala, kulturartekotasuna, belaunaldiartekotasuna, sistema herritar guztien eskura izatea, eta gizon nahiz emakumeentzat diseinatua izatea) eta ekintza positiboko eta aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzea ere".

Lege horrek arreta-sare artikulatu gisa ulertzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, eta sistema horren xedea da pertsona, familia eta talde guztien **gizarte-integrazioa eta autonomia ahalbidetzea**, horretarako funtzio sustatzailea, prebenitzailea, babeslea eta laguntzailea betez.

Lege horren jarduketa-printzipioetan honako hauek aipatzen dira: komunitateari zuzendutako arreta, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen hurbiltasuna, prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa, eta **herritarren parte-hartzearen zein gizarte-ekimenaren sustapena** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan.

Gizartearen ongizatea xede duten **beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan aritzeari eta koordinazioari dagokionez**, administrazio publikoen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren esparruan, lankidetzarako bide formalak eta jarduteko tresna eta protokolo bateratuak aurreikusten ditu legeak, jarduketan koherentzia bermatzeko eta baliabideak, informazioa zein ezagutzak modu arrazoizkoagoan eta eraginkorragoan erabiltzeko.

Herritarguztien gizarte-ongizatea sustatzea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua. "Horretarako, **beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta arituko da, haiekin lankidetzan**" (6. artikulua). Legean, orobat, gaineratzen da hainbat mekanismo artikulatuko direla xede horiek erdiesteko, komunitateari aukera emateko gizartearen beharrianak konpontzen laguntzeko; zehazki, erabiltzaileei berei eta aktibo dauden elkartei aukera emango zaie gizarte zerbitzuen arloan parte hartzeko, banaka nahiz antolatuta.

Printzipioei erreferentzia egiten dien Legearen 7. artikuluan, e) epigrafean (prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa), hau esaten da: "**bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten** egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte-zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu, eta normalizazioa sustatuko dute, beste arreta-sistema eta politika publiko batzuek balia daitezen lagunduz". **Herritarren parte-hartzeari** buruzko j) epigrafean, berriz, hau esaten da: "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan eta garapenean, pertsonak eta taldeak elkartasunezko lankidetzan ari daitezen sustatuko dute botere publikoek, bai eta erabiltzaileen parte-hartzea ere".

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen III. kapituluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Planifikazioa egiten da. Bertan esaten da plan estrategikoak, sektorialak eta bereziak egiteko prozesuan **bermatu egin beharko dela** lege horretan aurreikusitako organoek **parte hartzen dutela**; halaber, bermatu egin beharko da gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak ordezkatzan dituzten erakundeek beti izango dutela parte hartzeko bidea.

Sistemaren artikulazioan, adierazten da gizarte-zerbitzuen planifikazioan **genero-ikuspegia** txertatu beharko dela, Emakume eta Gizonen berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005) aurreikusitakoari jarraikiz. Halaber, bermatu beharko da beste ikuspuntu batzuk ere kontuan hartzea; hau da, gogoan izan behar da sexu-joerak, kulturak, eta belaunaldiak askotarikoak direla, jende guztiak duela zerbitzuak

eskuratzeko eskubidea, eta diseinuak gizon-emakume guztiak izan behar dituela gogoan. Ekintza positiborako eta aukera nahiz tratu-berdintasunerako hartu beharreko neurriak ere hartu behar dira. (34.2 art.).

Lege horren III. tituluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta partaidetzako araubidea zehazten da. I. kapituluaren zehazten da Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek partekatutako eskumen bat dela gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea, **bai eta herritarren parte hartzea, elkartegintza eta boluntario-lana sustatzea eta gizarte-zerbitzuen kudeaketan eta ebaluaketan erabiltzaileek eta profesionalak parte hartzea ere**. Zeregin horietan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua lortzeko ahaleginak egingo dira (40.5, 41.6 eta 42.7 artikulua). Bestalde, II. kapituluaren, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta beste sistema eta politika publiko batzuen arteko lankidetzak eta koordinazioari** buruzkoan, berariaz aipatzen da gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten euskal administrazio publikoetako organoek beren jarduketak koordinatu beharko dituztela, hain zuzen, beste sistema eta politika publiko batzuei dagozkien gizarte-zerbitzuak ematen dituzten organo eskudunekin; bereziki, honako hauek hartuko dira kontuan "...**osasun-sistema, hezkuntzakoak, judiziala, enplegu-politikak, lanbideratze-eta prestakuntza-politikak, etxebizitzakoak, irisgarritasunekoak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzekoak, berdintasunekoak**, eta, orokorrean, esku-hartze sozialeko arlo jakin batzuetan gizarte-zerbitzuekin batera izan daitekeen beste edozein politika publiko" (45.1 art.).

Herritarren parte-hartzea bermatzeko formulei dagokienez, Lege horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua aipatzen du, non sektorean esku hartzen duten gizarte-eragile guztiek parte hartzen baitute. Legearen arabera, Kontseiluaren barruan gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango dira; kontsultarako eta parte-hartzerako izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen beharrezkoen arabera zehaztuko da zein arlotan jardungo duten. (48. artikuluko 1. eta 4. paragrafoak).

---

## 4. Planifikazio gerontologikoaren ekarpenak

### 4.1. Euskadi

### 4.2. Estatua

### 4.3. Nazioartea

#### 4.1. Euskadi

Euskadiko planifikazio gerontologikoari dagokionez, jarraian aipatzen dira Eusko Jaurlaritzak martxan jarri dituen ekimenak, bai eta foru-administrazioek eta tokiko administrazioek duela gutxiago onetsi dituzten beste batzuk ere.

#### AUTONOMIA ERKIDEGOA

---

- 1990an, Eusko Jaurlaritzak **Euskadiko lehen Plan Gerontologikoa** egin zuen. Plan horren bitartez, besteak beste, hainbat ekintza proposatzen ziren adinekoen gizarte-, hezkuntza-, eta kultura-arazoei erantzuten saiatzeko (adinekoen aisialdirako eta astialdirako hautabide falta eta erretirorako prestakuntzarik ia ez egotea).
- 1994an, Eusko Legebiltzarrak **Euskadiko bigarren Plan Gerontologikoa** onetsi zuen. Plan honek aurrea hartzea zuen asmo; izan ere, apustu sendoa egiten du adinekoei beren bizi-ingurunean irauten laguntzearen alde, osasun-arazo larriak daudenean salbu. Helburu horrekin, lehentasun osoa eman zioten komunitateko esku-hartzeak garatzeari, bai prebenitzeko bai adinekoak beren erreferentziako ingurunean

integratuta mantentzeko; horretarako, benetako continuuma ezarri zuten laguntzaren alorrean.

## ARABA

---

- Gasteizko Udalak **2006-2010 urteetarako Udaleko Plan Gerontologikoa** argitaratu zuen, gida gisa baliatu zedin zahartzearen arloko udal-politikak garatzeko; politika horiek nagusiki informazio-, orientazio-, sentsibilizazio- eta partaidetza-neurriek osatzen zituzten, baita adinekoak beren etxe eta inguruneetan mantentzeko neurriek eta autonomoak ziren pertsonen etxebizitza-sistema alternatiboetan sartzen laguntzeko neurriek ere.

## BIZKAIA

---

- Dokumentu berriena “Bizkaiko Adinekoen Plan Estrategikoa” da. Bizkaiko Foru Aldundiak 2013. urtean argitaratu zuen. Aurrez, 2006-2010 Plana egon zen indarrean. Plan berriak hiru ardatz hauek ditu: Autonomia pertsonala sustatzea, etxean geratzeko laguntza ematea eta mendetasun-egoeran daudenei arreta ematea. Planaren xedea “zahartze aktibo eta osasuntsurako baldintza onenak sortu eta bideratzea” da. Erdietsi nahi den xedea bikoitza da:
  1. Europako gomendioak (2020rako Osasun Estrategia) betetzea eta 2020. urterako bizi-itxaropena 2 urtez luzatzea.
  2. Bizkaiko herritarrek zahartzeko toki bikaintzat hartzea lurraldea.
- Bizkaiko Zahartze Aktiboa Sustatzeko 2010-2011 Plana Foru Aldundiak egin du, eta argi islatzen du adineko biztanleentzako gizarte-politikak egokitu egin behar direla, eta adinekoak kapital aktibo garrantzitsutzat hartu behar dituztela.
- Planak badu duela gutxiko aurrekari bat, Aldundi horretako Gizarte Ekintza Sailak egina. Hau da: “Bizkaia zahartze aktiboaren alde” adierazpena (2007). Bi dokumentu horien oinarrian Nazio Batuek adinekoei buruz onartutako printzipioak daude. Dokumentuak bost helburu nagusi ditu; helburu horiek operatibo bilakatu dira eta datozen urteetan egingo diren ekintza espezifiko batzuetan zehaztu dira. Dokumentuan, besteak beste, gai hauek jorratzen dira: gizarte-



eragile guztiek paradigma ulertzea, adinekoen ongizatea bermatzea, zahartzaroari buruzko estereotipo negatiboak desegiteko lan egitea, bizialdi osoko ikaskuntza ahalbidetzea, aisialdi aktiboa sustatzea eta adin-talde horri bizitzako esparru guztietan parte hartzeko aukera ematea.

## GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2003an argitaratu zuen Plan Gerontologikoa, eta hainbat helburu orokor jaso zituen bertan, baita Alzheimer motako dementziei buruzko monografiko bat ere.


### 4.2. Estatua

Garai hartan INSERSO izenez ezaguna zenaren 1992ko Plan Gerontologikoa erreferentzia izan zen zahartzearen arloko planifikazioan. Horren ondoren, hainbat autonomia-erkidego eta udalerritan planifikazioak egiten hasi ziren, batez ere bi jarduketa-lerrotan oinarrituta. Jarduketa-lerroetako batek erreferentzia egiten zion zahartze aktibo eta osasuntsuari. Bigarren lerroak, berriz, herritarren zaugarritasuna eta mendetasuna zituen ardatz. Lerro batean zein bestean, dokumentuek erantzun nahi dioten egoerari buruzko azterketa deskriptibo bat egiten dute, hala bigarren mailako iturrietatik datozen datuak erabiliz, nola ad hoc eskuratutako datuak aztertuz. Planaren printzipioak eta ardatzak garatzen dituzte (5. grafikoa) eta, kasu batzuetan, ebaluazio-neurriak eta/edo betetze-mailaren adierazleak banakatzen dituzte xehetasun osoz. Bestalde, oso gutxitan agertzen da plana ezartzeko eta betearazteko erabiliko den aurrekontuaren deskribapena.

Estatu-mailan, 2003-2007rako Plan Gerontologikoa da estrategia gerontologikoaren azken erreferentzia; plan hori 1992ko planaren eguneratzea zen, eta eragin txikia izan du. Dokumentu horrek Nazio Batuek adinekoen alde aldarrikatutako bost printzipioak (duintasuna, independentzia, autorrealizazioa, parte-hartzea eta asistentzia-zainketak) ditu oinarri, eta lau gai-arlo nagusi hauek biltzen ditu: berdintasuna, lankidetzeta eta koordinazioa, prestakuntza, eta ikerketa. **I. eranskinean** xehetasun handiagoz azaltzen dira aztertutako planifikazioak.

Hamarkada honetan, eta beren-beregi planifikazioak ez badira ere, **Zahartze Aktiboari buruzko bi Liburu Zuri** egindira, eta bertan informazio eta azterketa erabilgarriak aurki daitezke. **Andaluziako Juntak 2010. urtean** plazaratutakoa atera zen lehenbizi argitara. Dokumentu hori parte-hartze prozesu baten bitartez garatu zen; nagusiki, Andaluziako Autonomia Erkidegoko zahartzearen arloko politiken "ibilbide-orria" garatzea zuen helburu. Gomendioak lau ardatz hauen inguruan egituratu ziren: segurtasuna, osasuna, parte-hartzea eta prestakuntza. Handik urtebetera, **2011an, IMSERSOren Zahartze Aktiboari buruzko Liburu Zuria** argitaratu zen. Dokumentu hori orientabide bat zen, estatu- nahiz autonomia-mailako politika publikoetan gaiari buruzko erabakiak hartzeko. Hura ere dokumentu irekia zen, parte-hartze prozesu sakon baten emaitza. Prozesuan, hain zuzen ere, Adinekoen Estatu Kontseiluak eta hainbat ezagutza arlotako aditu ugari parte hartu zuten. Hiru zatitan egituratuta dago. Lehen zatian, adinekoen eta zahartze-prozesuaren egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko diagnostiko orokorra egiten da. Beste bi ataletan zahartze aktiboari buruzko alderdi esanguratsuak aztertzen dira (ekonomia, osasuna, jarduera fisikoa, hezkuntza, parte-hartzea, irudia, segurtasuna, gizarte-zerbitzuak eta etxebizitza), bai eta erronka nagusiak ere (habitata eta ingurunea, elkarbizitzarako bideak, belaunaldien arteko harremanak, generoa eta nork bere burua zaintzea).

5. grafikoa: estatu-mailako planifikazio gerontologikoen jarduketara-erlo nagusiak



Iturria: Matia Institutu Gerontologikoa Geuk egina.

### 4.3. Nazioartea

Estrategia hau gauzatzeko, gerontologiaren arloko nazioarteko estrategiak eta planifikazioak berrikusi dira. Zehazki, herrialde hauek aztertu ditugu: Australia, Kanada, AEB, Frantzia, Erresuma Batua eta herrialde nordikoak (Norvegia eta Finlandia). Zer dokumentu hautatu erabakitzeko, garrantzia eta denbora-irizpideak (lehentasuna eman zaie egungo planei edo indarrean daudenei) erabili dira. Hautatutako 23 dokumentuak 1. eranskinean ageri dira zehaztuta.


Oro har, estrategia gehienek modu integralean aztertzen dute zahartzea; hala ere, bereziki aipagarriak dira dementzien esparruko sektore-dokumentuak. Planek, oro har, lau zapabost urteko iraupena dute; hala ere, badaude eperik zehazten ez duten planifikazio batzuk ere.

Dokumentuen jarduketa-esparruetan edo –ardatzetan (6. grafikoa), hainbat ezaugarri komun hauteman daitezke: la plan guztietan ikus daitezke zuzenean nahiz zeharka adinekoen osasunari eta ongizateari lotutako helburuak. Horrez gain, egoera kalteberetan zaintzaileei laguntzeko eta arreta emateko beharra ere aipatzen da, baita zahartze aktibo eta osasuntsuari buruzko ikerketen ondorioz egindako aurrerabidea herritarrei hurbiltzeko programak eta zerbitzuak garatzeko beharra ere.

Beste helburu nagusi orokortu bat adinekoei bizitzako esparru guztietan parte hartzeko aukera emateko beharra da, eta horri lotuta ageri dira "Housing" edo "lagunkotasun" moduko kontzeptuak. Baliteke alor horiek izatea garapen mantsoenekoak Espainian; Euskadin, hein handiagoan nahiz txikiagoan, dagoeneko ekin zaio horiek garatzeari. Hala, Euskadin hurbilago gaude zahartze aktiboaren arloan erreferentzia diren beste herrialde batzuen egoeratik: besteak beste, Frantzia, Kanada edo Erresuma Batuaz ari gara.

Beste arlo hauek ere aipatzen dira: kalitatea eta jardunbide egokiak bermatzeko aukera ematen duten estrategiak; zahartzean inplikaturako eragileen arteko koordinazioari lotutako alderdiak; ikerketaren eta prestakuntzaren garrantzia, arreta hobetzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko; adinekoen eskubideak aldarrikatzea (berdintasuna, duintasuna eta abar), bai eta egoera kalteberetan gerta daitezkeen abusu eta tratu txarrei erantzuna emateko beharra ere.

6. grafikoa: Nazioarteko planifikazio gerontologikoen jarduketa-arlo nagusiak



Iturria: Matia Institutu Gerontologikoa Geuk egina.



---

## 5. Estrategia honen printzipio nagusiak

2015-2020rako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiak kontzeptu- eta etika-esparru sendoa du, euskal gizarteko partaide aktibo diren pertsonak eta horiek eskubide eta erantzukizunak ardatz dituenak. Hori dela eta, hala estrategia gauzatzeko jarraitutako prozesua nola bertan aurkezten diren proposamenak eta neurriak printzipio batzuetan oinarrituta daude; printzipio horiek, hain zuzen ere, estrategia honen balioak eta filosofia zehazten saiatzen dira eta lau printzipio nagusitan laburbildu daitezke, uste baita horiek inplikazio zuzena dutela euskal herritarren artean zahartze aktiboa sustatzeko.

### Hauek dira printzipioak:

- **Duintasuna:**

Funtsezko kategoria etikoa da. Hainbat adiera har ditzake, baina guk normahik merezi duen errespetu eta berdintasunari lotutako etika azpimarratu nahi dugu, baita herritarren eskubideak errespetatzeko betebeharra ere, haren ondoriozkoa. "Tratu onaren" oinarria da, eta gure gizartean oso errotuta dauden adinari buruzko estereotipoen aurkako borroka ere oinarritzen du.

• **Autonomia:**

Printzipio honek pertsona bakoitzaren autodeterminazio-eskubidea eta erabakitze eskubidea errespetatzea dakar, baita erabakiak askatasunez eta borondatez hartzeko behar den babesa jasotzeko eskubidea ere. Orobat, tratu onaren berezko printzipioa da, eta berezko lotura du, halaber, zahartze aktiboa, norik bere bizi-proiektua hautatzeko eta eraikitze gaitasun gisa ulertua, sustatzearekin. Inplizituki aitortzen du pertsonen eta haien nahien heterogeneotasuna, zahartze-prozesuari erantzuteko ezinbestekoa.

• **Parte-hartzea:**

Osasunaren Mundu Erakundeak zahartze aktiboaren funtsezko oinarrien artean ezartzen du printzipio hau, osasunarekin eta segurtasunarekin batera. Horrek guztiz aldatzen du zahartze-ari buruzko ikuspegi tradizionala, zeina pasibotasunari eta gizartean rol zehatzik ez izateari baitzegoen lotuta. Parte hartzea eskubide bat da, eta erabateko lotura du pertsonak bizi diren gizartearen eraikuntzako protagonista gisa ikustearekin. Printzipio honek berekin dakar herritarren ahotsa entzun beharra, eragiten dien edozein erabaki hartzeko prozesuan zehar. Horrez gain, defendatzen du zahartzen ari diren pertsonak parte hartu nahi duten ekimenetan integratu eta sartu behar direla, elkartasuna eta herritarren erantzukizuna kontuan hartuta.

• **Erantzunkidetasuna:**

Aipatu ditugun legeek eskubide subjektiboak sortzen dituzte, eta botere publikoek bermatu egin behar dituzte. Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia honek, bere aldetik, herritarren mugimendu bat sortu nahi du, non belaunaldi guztiek parte hartzen baitute adin guztietako herritarrentzako ongizate-gizarte bat eraikitze. Helburu hori erdiesteko ezinbestekoa izango da norbanakoaren eta gizarte osoaren erantzukizuna; elkartasunez jardun beharko dugu elkarlanean, administrazio publikoetako sailek, irabazi-asmorik gabeko nahiz irabazi-asmozko gizarte-ekimenez, komunitateko parte-hartze mugimenduek eta elkarte-sareak egindako ahaleginak integratuz. Laburbilduz, helburu hori lortzeko, norbanako guztiek egin behar dituzte bizimodu aktibo eta osasuntsua eraikitze ahaleginak, eta euskal gizarte-estamentu guztiek hartu behar dute prozesu horretan parte.



6.

**Zahartze Aktiboaren  
Euskal Estrategiaren  
arlo tematikoak  
2015-2020**



---

# 1. ALORRA:

## Gizartea zahartzarora egokitzea.

### Gobernantza-eredu berri bat

#### Sarrera

Euskadik gizartearen ahalegin handia behar du “adintsutasunaren iraultzari” aurre egin ahal izateko; izan ere, hori, dagoeneko,, nazioarteko paradigma bilakatu da. Adibide gisa esan dezakegu azken bi hamarkadetan 80 urtetik gorako biztanleen kopurua bikoiztu egin dela eta, biztanleriaren aurreikuspenen arabera, 2029. urterako ehun urte edo gehiagoko 3.000 pertsona izango ditugu.

Euskal gizarteak aldaketa sakona egin behar du bere egituran, diseinuan eta politika publikoetan herrialde garatuetan ohikoa den biztanleriaren errealitate horri erantzun ahal izateko.

Orain, beste inoiz baino gehiago, Euskadik zeharkako politikak garatu behar ditu zahartzen ari diren biztanleen taldeak dagokion tokia hartu ahal izateko behar den aldaketa integrala gauzatzeko; toki hori ez dagokie soilik biztanle kopurua dela eta, baizik eta euskal gizarte moderno eta garatua eraikitzeke egiten ari diren lanarengatik orobat; gizarte moderno horrek zahartzarotik aberastasuna sortzen du, eta gizartea osatzen duten pertsonentzat ezinbestekoak diren balioak sedimentatzen ditu.

Erronka berri bat dugu aurrean; hain zuzen, bizitza-luzeraren iraultza ekonomiarako abagune eta, batez ere, enplegua, sustatzeko tresna bilakatzekoa. Ekonomia garatzeko aukera ugari dakartza horrek: domotikako eta robotikako teknologia aurreratuenak, laguntza-produktu sinpleenak eta horien artean dagoen guztia, besteak beste, telelaguntza eta zerbitzu pertsonalak, direla etxean bertan, direla bestelako etxebizitza eta egoitzetan. Laburbilduz, industriako, merkatuko eta enpleguko hainbat sektoreri eragingo dien zeharkako garapenerako aukera indartsu bat dugu aurrean.

Adinekoak kontsumitzaile gisa ikusten baditugu, aukera ugari hauteman ditzakegu zahartzeko prozesuan dauden pertsonen taldean, besteak beste, esparru hauetan: diseinua eta moda, kosmetika-produktuak, turismoa, aisialdia, hezkuntza, kirola egiteko gune osasungarriak eta abar, baita uneren batean laguntza behar izanez gero beharko dituzten produktuak eta zerbitzuak ere.

Horrek adinekoen buruzko irudi positiboagoa eta errealitatetik hurbilagoa hedatzen lagundu dezake; izan ere, herrialde garatu guztietan ari dira "adinekoen" merkaturia sustatzen, kontsumitzaile asko izan baititzake eta zahartzarua ekonomia eta enplegua garatzeko iturri garrantzitsua izan baitaiteke.

- Zahartzarua agertzen diren egoera batzuek adinekoen artean kontsumo berriak eragiten dituztelako. Hurbileko enplegua haziko litzatekeelako eta deslokalizatu gabeko lanen lehen hornitzaile bilaka litekeelako.
- Adinekoek aurrezki-gaitasun handia dutelako eta aurrezki horiek askotan beste belaunaldi batzuetara (gazteak) edo ekonomia produktibora bideratzen direlako.

Testuinguru horretan, aitortzen badugu adinekoek eskubidea dutela herritar oso gisa bizitzeko eta gure gizartean modu integralean parte hartzeko, botere publikoetako kideok ezinbestean hartu behar dugu konpromiso aktiboa, biztanle talde horrek zaintza, kudeaketa eta planifikazio politiko eta sozialaren "objektu" izateari utz diezaion, eta eskubide osoko "subjektu" gisa integra dadin erabaki sozial eta politikoak hartzeko prozesuetan. Autonomia galdu duten pertsonen eskubidea dute arreta jasotzeko, eta, beraz, arreta hori jaso beharko dute.

Ondorioz, berriz pentsatu behar dugu gure gobernantza-eredua eta hitza eman behar diegu zahartzen ari direnei; horretarako, autonomia sustatzen duten politikak bultzatu behar ditugu, berdintasunean eta adinean oinarritutako bereizkeriarik ezean bermatuta, egoerei banan-banan erantzunda. Zahartzen ari diren pertsonak biztanleria osoaren herena izango dira laster; beraz, sakon hausnartu behar dugu izango duten tokiari buruz, eta beteko duten eginkizunari buruzko eztabaida publikoa ireki.

Horrekin batera, ezin dugu ahaztu alor pribatuan gizartea biztanleriaren zahartzera egokitzeko beharrezkoa izango dela adinekoen eta haien familien eguneroko bizitza sinplifikatzea; horretarako, orientazioa, aholkua eta laguntza eman beharko zaie, baita produktuak eta zerbitzuak eskaini ere, elkarrekin autonomiaren politika orokorra eraiki ahal izateko.

## 1. HELBURUA

---

Euskadin gizarteko eta antolakuntzako aldaketa sustatzea, biztanleriaren egiturarekin eta zahartzen ari diren pertsonen gizarte horretan duten rolaekin bat datorren gobernantza-eredua garatzeko, bai politika publikoen alorrean, bai arlo pribatuan.

### 1.1. Gobernantza hobetzea

#### Ekintzak:

- Botere publikoek zahartzeari buruzko zeharkako ikuspegiak sustatzea zahartzen ari diren pertsonen eragiten dieten planak, programak, zerbitzuak eta araudiak diseinatzeke orduan.
- Eusko Jaurlaritzan sailarteko organo bat eratzea, zeharkakotasuna berma dezan; horrela, aurrerapausoak eman ahalko ditugu gizartea zahartze-prozesura egokitzeke eta gai izango gara auzi hori jorratzen duten hainbat ekimen koordinatzeke.
- Eztabaida sustatzea "adinekoen botere" delakoaren, horrek politikan, gizartean, ekonomian eta komunitatean duen eraginaren, eta egiten duen ekarpenaren inguruan, kontuan hartuta ezinbestekoa dela protagonistek eztabaida horretan parte hartzea.
- Zahartzen ari diren pertsonen erabakiak hartzeke orduan duten ordezkariaren ereduari buruzko hausnarketa irekitzea, eta garrantzi handiagoa ematea adinekoen elkarteei eta gerontologiaren esparruan lan egiten dutenei.
- Prozesu horietan era askotako adinduak parte har dezaketela bermatzea. Bereziki garrantzitsuak dira alderdi hauek: desgaitasunak, orientazio sexuala,

erlijioa, kultur nortasuna... Guztiak generoaren eta berdintasunaren ikuspegitik landu beharko dira.

- Adinekoekin harremana duten profesionalen artean sentsibilitatea eta alerta-egoera sustatzea, informazio-faltak ez diezaien kalterik egin erabakiak hartzeko unean.
- Euskadiko jakintzen sorkuntzan adinekoak ere integratzea, ez daitezen gera edozein diziplinatako ikerketetatik eta saiakera klinikotatik kanpo, eta adin-eta genero-ikuspegia txertatzea euskal I+G+B arloan.

## 1.2 Zahartzen ari diren pertsonen eskubideen alde eta desberdinkeriaaren aurka borroka egitea

### Ekintzak:

- Adinekoek eskuratzeko eta ulertzeko moduko informazioa sortzen dela sustatzea eta bermatzea, eragiten dieten alderdietan erabakiak har ditzaten eta nahi dutena aukera dezaten.
- Adinekoen eskubideak defendatzea eta adinari lotutako era guztietako bereizkeriak, zuzenekoak zein zeharkakoak, ezabatzea.
- Besteak beste oinarrizko eskubide hauek urratzen dituzten bereizkeria modu berriak agertzen ez direla zaintzea eta, agertuz gero, haiei aurka egitea: etxebizitza egokia lortu ahal izatea, bankuko kreditua eskuratzeko, osasun-aseguruak eskuratu ahal izatea...
- Errealitatearekin bat datorren zahartze-irudia sustatzea; irudi horrek adinekoen balioak eta gaitasunak azpimarratu beharko ditu, eta adinekoenganako tratatu txarrak eragiten dituzten estereotipoak saihestu.

- Generoa eta adina dela-eta gerta daitezkeen desberdinkeria anitzak zaintzea, biztanle talde horretan emakumezkoak nagusi baitira. Adinean oinarritutako desberdinkeria anitzen aurkako zaintzan beste faktore batzuk gehitzea: desgaitasunak eta gaixotasunak, kasurako.
- Adineko emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekimenak sustatzea, trebetasunak eta gaitasun berriak ikasteko aukera izan dezaten, zahartzaroari positiboki aurre egiteko moduan.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, era guztietako lanak egiteari (etxeakoak, zainketak eta abar) eta aisialdirako eskubideari dagokienez.
- Elkartekidetzeta eta gizarte-boluntariotza sustatzea, esparru guztietan.

### 1.3 Zahartzen ari diren pertsonen segurtasuna eta gizarteko inklusioa bermatzea

#### Ekintzak:

- Aurrerapausoak ematea lan-merkatuan generoen artean dagoen soldata-arrakala murrizteko. Halaber, aurrerapausoak ematea laneko eszedentzien eta arduraldi murrizketen eskaeretan berdintasuna lortzeko; gaur egun batez ere emakumeek eskatzen dituzte, eta horrek eragin kaltegarria du jasotzen duten pentsioan.
- Biztanleek erretiroa hartzeko legezko adinera iritsi arte lanpostua izatea bermatzea, baita enpresan bertan zein beste erakunde batzuetan prestakuntza jaso ahal izatea ere.
- Zenbait lanpostu egokitzeko ahaleginak egitea, egokitzapena egiteko ergonomia-ezagutzak aplikatuta.
- Lanpostuak adinera egokitzeko jardunbide egokiak sortzeko ahaleginak egitea: malgutasuna, ordutegiak, erritmoa etab.

- Duen balioa ematea harremanen ekonomiar, azpimarratuz gero eta garrantzitsuagoa dela adinekoek egiten duten ekarpena, bai zaintzen transferentzian, bai beste laguntza batzuetan, ekonomikoa barne; izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioak leuntzen laguntzen ari dira.
- Berdintasun- eta erantzunkidetasun-politikak sendotzea, baita familia, lana eta bizitza pertsonala bateratzekoak ere, adineko emakumeek zaintza- eta etxeko-lanetan ematen duten denboraren zati bat libratzeko eta denbora hori pertsona gisa eta gizartean hazteko erabili ahal izateko.
- Gizarte-bazterkeriaren aurka borroka egitea; hots, aukera-berdintasuna ematea zahartzen ari diren pertsoner, nahi duten jarduera sozial, kultural edo politiko orotan parte hartu ahal izan dezaten.
- Adinekoen segurtasun juridikoa bermatzea. Eragiketa garrantzitsu bat egin aurretik edo erabaki handi bat hartu aurretik orientabide-juridikoa jaso dezaketela ahalbidetzea.

#### **1.4. Zahartzearen inguruko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasuna baitauka eta zahartzen ari diren pertsonen kontsumo berrien iturri izan baitaiteke.**

##### **Ekintzak:**

- “Silver economy” edo adinekoen ekonomia sustatzea; horretarako, berrikuntza sustatuko da zahartzen ari diren pertsonentzako produktu eta zerbitzuetan.
- Zahartzeak hainbat sektoretan sortzen dituen beharrei erantzuteko enpleguen sorrera bultzatzea, batez ere, laguntza behar duten pertsonentzako hurbileko zerbitzuen arloan.
- Teknologien eta laguntza-produktuen esparruan berrikuntza eta ikerketa sustatzea, betiere teknologia eta produktu horiek erabiliko dituzten pertsonen parte-hartzearekin eta finantzen iraunkortasuna izanik abiaburu, herritar gehienek eskura egon daitezten.



- Teknologia- eta laguntza-produktuen merkaturatzea eta patenteen garapena sustatzea.
- Pertsona guztien irisgarritasuna bermatuko duten turismo-zerbitzuen sorrera sustatzea.
- Gorabidean diren sektoreetan (diseinua eta moda, kosmetika, aisialdi osasungarria, jarduera fisikoa, kultura eta turismoa...) adinekoentzako produktuen garapena bultzatzea.
- Zahartzen ari diren pertsonen alorreko enpleguaren balioa nabarmentzea eta bultzatzea; horretarako, gauzatze eta aitortza egokia dhalbidetuko duten gaitasunak eta trebetasunak lortzea sustatuko da.
- Adinekoekin elkarlanean, pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten profesionalen prestakuntzarako eduki nagusiak diseinatzea. Espezialitatea edozein izanik ere, eduki nagusietan honako hauek landu beharko dira: alde batetik, diziplina aniztasunari, talde-lanari, integrazioari eta koordinazioari lotutako edukiak; beste alde batetik, arretaren kalitateari, pertsona ardatz duen arreta-ereduari, irisgarritasunari eta zahartze aktiboari lotutako edukiak. Helburua da profesionalen lanak kalitate al bait onena izatea.

---

## 2. ALORRA:

### Aurrea hartzea eta prebenitzea, hobeto zahartzeko.

Zahartzea bizi-ibilbidearen prozesu bat da, eta neurri handi batean zehaztu egiten ditu pertsonak eta gizarteak zahartzeko dituzten moduak. Zientzian froga ugari daude bizitzeko moduak, osasunaren gizarte-determinatzaileek zein determinatzaile psikologikoen, informazioa eskuratzeko aukerak eta beste hainbat faktorek zahartzean duten eraginari buruz; faktore horiek neurri handi batean baldintzatzen dute pertsonak zahartzaroan izango duten bizi-kalitatea eta autonomia mantentzeko gaitasuna. Gero eta bitarteko gehiago daude zahartzaroan ager daitezkeen mendekotasunari eta gaitz kronikoei loturiko arazoak aurreikusteko.

Estrategia honen lehentasunetako bat da prebentzioa gizarte osoaren arreta jasotzen duen gai bat izan dadila. Botere publikoek –bakoitzaren eskumenak eta eragin-esparruak kontuan hartuta- eta gizarteak, oro har –askotariko adierazpenen bitartez-, lehentasuna eman behar diete aurrea hartzeko eta prebentziozko ekimenei, zahartzean pertsonak alor guztietan autonomia eta independentzia izan dezatela bermatzeko.

Horrez gain, alabaina, auzi horri lehenetsua ematean dautza eskubide-eta aukera-berdintasuna lortzeko egin beharreko esku-hartze gehienak, baita euskal gizartean berdintasuna lortzeko egin beharreko esku-hartzeak ere. “Jakitea egiteko” leloa asko hedatu da Frantzian, eta Euskadin ere geure egin behar dugu; hala, edonork jaso ahal izango ditu informazioa eta orientazioa etorkizunari buruzko erabakiak hartu aurretik, edozein duela ere adina, sexua edo egoera sozioekonomikoa.

Adostasuna dago zahartze-prozesuko hiru fase hauetan trantsizioa egiteko prestatu behar diren inguruan, askotan zailtasunak baitakartzate:

- Laneko bizitzatik erretirorako trantsizioa.
- “Zahartzaroan” sartzea. 75 urte inguruan.
- Autonomia galtzea eta laguntza behar izatea; hori gertatzen zaie adinean oso aurreratuta dagoen askori.

Horrez gain, arlo hauetan prebenitu behar da: osasuna, aisialdiaren erabilera, gizarte-harremanak garatzea eta komunitateko bizitzan modu aktiboan parte hartzea.

Arlo horretan, askotarikoak dira jarduketak-esparruak. Oraingo nahiz geroko zahartzaroan eragina duten erabakiak hartzeko orientazioa eta aholkularitza emateari lotutako jarduketak, osasuna sustatzekoak, gaixotasunak prebenitzekoak, etxebizitzari lotutakoak, gizarte-harremanak garatzeari buruzkoak, aisialdia erabiltzeari buruzkoak, gizartean parte hartzeari lotutakoak edo bizialdi osoko ikaskuntzari buruzkoak. Horiek pixkanaka autonomiaren mapa zehaztuko dute, eta, ondorioz, baita ongizatearena ere, zahartzarora garamatzen ibilbidean zehar.

Etxebizitza bilakatu da adinekoen aldaketaren paradigma. Etxebizitzaren ezaugarriak, ingurune hurbila, kokapena... faktore horiek guztiek hein handi batean baldintzatzen dute zahartu ahala nork bere ingurunean jarraitzeko aukera. Bistakoa da etxebizitzaren prebentzio-potentziala.

Laburbilduz, alderdi hori autonomiaz bizitzeko lehen baldintza da. Habitata pertsonen zahartze-prozesuari eta autonomia-galerari egokitzeko politika koordinatuak behar ditugu. Adinekoen etxebizitza pribatua “gai publiko” bilakatzea Estrategiaren aplikazio-aldian erdietsi beharreko helburu bat da. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016rako Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Plana tresna erabilgarria da nahikoa baliabide ez dituzten biztanle guztientzat, eraikinak eta etxebizitzak egokitzeko eta irisgarritasunaren arloan egin beharreko egokitzapenak egiteko.

Hiri eta herrien diseinuan (plazei eta topaguneei dagokienez) ere kontuan hartu behar da hori; ezinbestekoa da irisgarritasun unibertsalaren printzipioak aplikatzea.

Osasunaren prebentzioari eta sustapenari dagokionez, azken hamarkadotan aurrerapauso handiak eman dira ezagutza-esparru horretan; hala ere, ezagutzen sorrerak etengabeko erronkak dakartza ahultasuna eta mendekotasuna zer gakok eragiten duten identifikatzeko. Ikerketak ekimen berritzaileak sortu beharko ditu autonomia babesteko eta adinak osasunean eragin ditzakeen kalteak aurreikusteko.

Osasun sistemak erronka handia du aurrean: euskal gizartearen zahartzeari egokitzea. Horretarako, berriz formulatu beharko du arreta-eredua, eta arreta berezia jarri beharko die gaitz kronikoei. Arreta soziosanitarioaren garapena eta zehaztapena lehentasunezko jarduera da bi sistemetan. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020rako Osasun Planak halaxe islatzen du, eta Plan honi zuzenean eragiten dioten helburuen bitartez hartu du erronkari erantzuteko konpromisoa:

- Lehentasunezko arlo bat, zahartze osasuntsua sustatzera bideratuta.
- Lehen lerrotik bertatik zeharkako ikuspegia azpimarratuta, "Bidezkoa eta kalitatezkoa izango den euskal osasun-sistema sendotzea, eta osasuna politika guztietan sar dadin eragitea, erakunde publiko guztietatik osasuna sortzeko aukera ematen baitu horrek".
- "Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea lehentasuntzat hartzea ere esan nahi du, eta, zehazki, inguru eta bizi-estilo osasungarriak sustatzea, sektorearteko lankidetzari tira eginez, eta toki eta erkidegoaren eremuetan lan eginez".

Arlo horrek dakarren erronkari primerako tokian gaudela jakinik egingo diogu aurre; izan ere, Euskadi Europako 2. postuan dago 55 urte edo gehiagokoei aplikatzen zaien Zahartze Aktiboaren Indizeko (All) "zahartze aktibo eta osasuntsurako gaitasuna: ingurune mesedegarria" izeneko blokean. Indizearen bloke horretan, desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenari, jarduera fisikoari (atal horretan 28en Europako sailkapenean 1. postuan gaude), ongizate mentalari, IKTen erabilerari eta abarri lotutako hainbat adierazle kalkulatu dira. Zalantzarik gabe, lortzeko moduko erronka dugu Zahartze Aktiboa herrialde-mailako estrategia bilakatzea.

## 2. HELBURUA

---

Zahartzen ari diren pertsonen autonomia eta independentzia sustatzea; horretarako, pertsonen beren bizi-proiektuari buruzko erabakiak hartzen lagunduko dieten zeharkako prebentzio-politikak ezarriko dira.

### 2.1 Bizi osoan zehar erabaki arduratsuak eta orientatuak hartzea sustatzea, pertsonen autonomia indartuz zahartze aktiboa lortzeko.

#### Ekintzak:

- Bizi osoan osoko autonomiaren kulturaren garapena sustatzea.
- Zahartzen ari diren pertsonentzat banan-banako orientabide- eta aholku-zerbitzuak eskaintzea, etorkizunerako dituzten asmoetara egokitzen diren erabaki arduratsuak hartu ahal izan ditzaten.

### 2.2. Laneko bizitzatik erretirorako trantsizio positiboa sustatzea.

#### Ekintzak:

- Laneko bizitzatik erretirorako trantsizioa erraztea eta lan horretan laguntzea, baita etapa berri horretarako aukeraz betetako bizi-proiektu bat eraikitzen laguntzea ere. Hona hemen bi alderdi zehatz:
  - a. Erretiroa hartu ez dutenei aukera ematea erretiroa hartu duten pertsonentzako baliabideak eta guneak erabiltzeko.
  - b. Gizarteko bi talde hauen arteko harremana ahalbideak: erretiroa hartu dutenak eta ez dutenak.
- Sektore publikoa zein pribatua bultzatzea lan-esparrutik prozesu horri erantzun diezaioten.
- Lan-esparruan laguntza- eta prestakuntza-prozesuak sortzea, etorkizuneko zahartzaroa baldintzatuko duten alderdiei buruzko erabakiak hartzeko: arlo juridikoa eta ekonomikoa, gizarteko eta familiako harremanak, etxebizitza...
  - Zahartzaroan sarri agertu ohi diren egoera zailei aurre egiteko gaitasunen eta trebetasunen garapena sustatzea:
  - Eguneroko bizitzaren egoerak kudeatzea. Horrek zailtasun espezifikoak dakartza generoaren arabera (gizonen

kasuan, etxeko lanak; emakumeen kasuan, kudeaketa-lanak...).

- Teknologia berriak erabiltzea. Arlo horretan belaunaldien arteko arrakala handia dago, eta gizartetik at gelditzeko arriskua ekar dezake.
- Gizarte-harremanen sareak mantentzea eta beste harreman batzuk eraikitzea, nahi gabeko bakardade-egoerak saihesteko.
- Prestakuntza-ekimenak gauzatzea bakardadea kudeatzeko eta egoera horretaz gozatzeko gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izateko; helburua da arlo horretako estereotipoak ez errepikatzea.
- Proposatutako jarduketak isolatuta dauden landa-eremuetara egokitzea, bertan zahartzen ari diren pertsonen aukera-berdintasuna bermatzeko.

### **2.3 Etxebizitza eta ingurunea prestatzea, bizi osoan zehar haietaz gozatu ahal izateko.**

#### **Ekintzak:**

- Etxebizitzaren eta hurbileko ingurunearen diagnostiko goiztiarra egin dadila sustatzea; era horretan, etxean jarraitu nahi duten pertsonak hala egin ahal izango dute.
- Herritarren artean Irigarritasun Kontseilua ezagutaraztea, baita Bizilagun elkarteak eskaintzen duen aholkularitza juridikoaren doako zerbitzua ere. Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu biak ala biak; lehenak eraikinen irigarritasuna hobetzeari buruzko jarduketan inguruko galderei erantzuten die; bigarrenak, berriz, etxejabeen eskubideei buruzko galderei.
- Gehiago ezagutaraztea etxebizitzak eta sarbideak egokitzeko diru-laguntza publikoak (2013-2016rako Etxebizitzak Birgaitzeko Renove Plana).
- Etxebizitza eta ingurune lagunkoiak egokitzeari eta eraikitzeari buruzko gida bat idaztea, diseinu unibertsalaren ikuspegitik.

- Administrazio publikoek ematen duten babesa sustatzea, etxebizitza kontserbatzeko lanen eta laguntza behar dutenentzako egokitzapenak egin eta oztopoak kentzearen inguruko aholkua jasotzeari dagokionez.

- Zahartzen ari diren pertsonentzako eta laguntza behar dutenentzako beste etxebizitza mota batzuk identifikatzea, horien bideragarritasuna aztertzea eta, egokiak izanez gero, sustatzea. Hona hemen zenbait adibide:

- Cohousing.
- Zerbitzuak ematen dituzten apartamentuak
- Belaunaldien arteko elkarbizitza sustatzen duten eraikinak.
- Harrera-sistemak.
- Bizikidetzaren unitateak.
- Bereziki babestuko dira landa-eremuko ekimenak.

- Etxebizitza eta bizikidetzaren eredu berritzaileak biltzen dituzten jardunbide egokien sare bat sortzea.

- Arkitektura-ikasketetako curriculumean adinekoentzat banakako zein taldeko etxebizitzak diseinatzeari buruzko edukiak sartzea, betiere pertsona eta irisgarritasun unibertsala ardatz duen arretaren ikuspegitik, zaintza-guneak eta bizitzeko guneak bateragarriak izan daitezzen.

## 2.4. Zahartze osasuntsua sustatzea.

### **Ekintzak:**

- Prebentzio-politika partekatuak garatzea autonomia galtzea eragiten duten faktoreetan eragiteko; arreta berezia jarriko da elikaduran eta gehiegizko pisuaren zein obesitatearen prebentzioan. Ahaleginak egingo dira pertsona guztiek elikadura osasungarria eta orekatua izan dezaten, edozein gizarte-mailakoak direla ere.

- Osasunaren benetako irudia sustatzea; hau da, osasuna ongizate fisiko, mental eta sozial osoa da, eta ez gaitzik edo gaixotasunik eza soilik. Azpimarratu egingo dira harremanekin, emozioekin eta psikologiarekin zerikusia duten alderdiak.
- Adinekoentzat zahartze osasuntsurako programak sustatzea; programa horiek aintzat hartuko dituzte emakumeen berezitasunak eta zenbait patologiek emakumeengan duten eragina.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Osasun Sailak elkarrekin egindako Zahartze Aktibo eta Osasuntsurako Gida ezagutaraztea, baita zahartze ona sustatzeko baliagarriak izan daitezkeen beste material didaktiko batzuk ere.
- Zientziaren bitartez frogatutako eraginkortasuna duten estimulazio kognitiboko programak ezartzea eta haiei buruzko ezagutzak zabaltzea.
- Osasun mental ona sustatzea eta buruko nahasmenduen agerpena prebenitzea.
- Jarduera fisikoari lotutako ekimenak bultzatzen jarraitzea; izan ere, azterketa zientifiko ugari frogatu du jarduera fisikoa onuragarria dela zahartzarorako, bilakaeraren edozein unetan egiten dela ere.
- Heziketa fisikoko profesionalei prestakuntza ematea, gai izan daitezen adinekoei kirolean eta jarduera fisikoan leku egiteko.
- Lan- eta hezkuntza-inguruneetan jarduera fisikoa eta kirola egiteko aukerak ematea.
- Adinekoei gimnasioak eta jarduera fisikoa egiteko guneak erabiltzen laguntzea.
- Taldeko jarduera fisikoak antolatzea.



- Pertsona ahulentzako edo mendekotasun-egoeran daudenentzako jarduera fisikoko programak ezartzea.
- Osasunean eragiten duten gizarte- eta ingurune-determinatzaileen arloko ikerketa sustatzea, OMEk emandako gomendioei jarraituz.
- Belaunaldien arteko harremana zeharka sustatzea.

## 2.5. Bizialdi osoko ikaskuntza txertatzea euskal gizartean.

### Ekintzak:

- Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legea (urriaren 10eko 1/2013) aplikatzea; izan ere, euskal herritarren eskubide bat da eta guztiei ahalbidetzen die norberaren garapen pertsonalerako gaitasunak barneratzeko aukeraberdintasuna.
- Belaunaldien arteko ikaskuntza-guneak sustatzea, maila guztietan; gune horietan pertsonak bizitzan zehar metatu duten kapital sozial eta pertsonala partekatu ahal izango da.
- Bereziki sustatzea Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei (IKT) lotutako ikaskuntza, gizartean parte hartzeko aukera berriak dakartzaten tresnak baitira.
- IKTen erabilerari buruzko jardunbide egokien sareak sortu daitezela sustatzea, esperientzien trukea errazteko.
- Hezkuntzako profesionalek adinekoen ikaskuntza-prozesuetan beharrezkoak diren pertsona-, harreman- eta didaktika-gaitasunak ikas ditzatzela sustatzea.
- Zahartzeari eta adinekoek gizartean duten eginkizunari buruzko zeharkako material didaktikoak egin daitezela sustatzea.

---

### 3. ALORRA:

## Lagunkoitasuna eta parte-hartzea ongizatearen gizartea eraikitzeko garaian

Euskadin egungo eta etorkizuneko biztanleriaren egiturara hobeto egokituta dagoen gobernantza-eredu bat formulatzeko, ezinbestekoa da berriz planteatzea herritarren parte-hartzearen kontzeptualizazioa; izan ere, horixe da hiri, herri eta inguruneen lagunkoitasunari buruzko nazioarteko mugimenduaren oinarria.

Bizi dugun krisi sozioekonomikoaren ondorioz, askotariko ekimenak sortu dira jarduketara honetan; horiei esker orain arte lortutako ongizatea mantentzea eta hobetzea helburu duten herritarren mugimenduak aktibatu ahal izan dira, eta eguneroko bizitzan pertsonen arteko elkarrekikotasuna eta lankidetzaren sustatzen duten proiektu indartsuak agertu dira. Prozesu horretan, adineko pertsonen rola aipagarria da benetan; izan ere, erakundeek sustatutako ekimen egituratuetatik bereiz pertsonen arteko harremanak sortzen dituzten askotariko ekintza parte-hartzaileak agertu dira. Parte-hartzea ardatz duten proiektuen aniztasun horrek sendotu egiten du zahartzaroari loturiko heterogeneotasuna; izan ere, gaur-gaurkoz oraindik ere gehiegi homogeneizatzen da bizitzako etapa hori, adineko pertsonentzako programen eta zerbitzuen eskaintzak islatzen duen moduan.

Kontzeptu-esparru horretan, 2005ean OMEren ekimenez sortutako lagunkoitasun-programak zahartze aktiboaren paradigmari zentzua eta zehaztapena ematen ari dira; izan ere, orain arte askotan banalizatu egin da eta askotariko jarduera sorta batera murriztu da, adinekoei ikusle, kontsumitzaile edo erabiltzaile rola bakarrik esleituz, paradigmen eraikuntzan inolako protagonismorik eman gabe.

Egungo une historiko eta soziala bestelakoa da, eta parte-hartze politikek aintzat hartu eta sustatu egin behar dute zahartzen ari diren pertsonen jarrera aktiboa, autonomia eta ahaldundua. Lagunkoitasuna primerako tresna da prozesu horretan; izan ere, pertsonen aukera ematen die bizi-kalitatea hobetzeko potentzial osoa garatzeko eta pertsona bakoitzaren beharrak, nahiak eta gaitasunak kontuan hartuta gizartean parte hartu ahal izateko. Era horretan, adinekoak mugimendu horren nukleo eragile bilakatzen dira, eta proiektuko protagonista, eredu eta lider bihurtzen. Horren bitartez, pertsona bakoitzaren erantzukizuna eta belaunaldien arteko elkargunea eta elkartasuna sustatzen eta orekatzen dira. Gainera, zahartze-prozesuarekiko lagunkoia diren inguruneak sortzen dira. Horretarako, aurretik ere esan dugun moduan, ezinbestekoa da proiektu honen zeharkakotasuna sustatzea; hala, osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuak aintzat hartzeaz gain, kontuan hartu beharko dira, besteak beste, hezkuntzaren, enpleguaren, kulturaren, etxebizitzaren, garraioaren, gizarte-segurantzaren, justiziaren, landa-garapenaren eta hiri-garapenaren arloetan eskumenak dituztenak ere. Haien parte-hartzea ezinbestekoa da herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, adinaren araberako bereizkeriarik gabe.

Ikuspegi horretatik abiatuta, parte-hartzea modu orokorrean jorratu nahi dugu, pertsonen garapena ahalbidetu eta askotariko ekintzak barne har ditzan:

- Familiako ingurune intimoan, elkarrekikotasuna, erantzunkidetasuna eta era guztietako zainketa zein laguntzen transferentzia garatu beharko dira.
- Gizarte-harremanek, belaunaldi artekoak barne, ongizatea eta autonomia sustatu beharko dute eta pertsonen komunitateko bizitza erraztu.
- Boluntariotza-erakundeetan egituratutako elkartegintzaren bitartez; elkarte horiek taldearen beraren interesak defendatzeko sor daitezke, edo askotariko irabazi-asmorik gabeko ekimenak babestu daitezke.

Batzuek zein besteek ekarpen handia egiten diote lagunkoitasunaren inguruan eratzen ari den mugimenduari.

“Giro lagunkoia bizitza independentea, zahartze aktiboa eta pertsonaren autonomia sustatzen ditu, osasuna, parte-hartzea eta segurtasuna izateko aukerak areagotuz, betiere herritarren bizi-kalitatea hobetzea dela helburu”. (OME, 2007).

Lagunkotasun-programan, adineko pertsonak gure eguneroko bizitza hobetuko duten ongizatea sortzeko prozesu baten protagonistak dira. Prozesu horren bitartez, gune publikoak modu arrazionalagoan berreskuratuko dira, bai eta herritarren arteko harremanak, foroetan duten parte-hartzea, gai publikoetan duten parte-hartzea, zaintzen transferentzia erantzukidetasuna eta udalerrietako eguneroko bizitza gizatiarrago, parte-hartzaileago eta gogobetegarriago bilakatzen duten beste gauza txiki horiek guztiak ere.

Euskadi Lagunkoia proiektuaren barruan egiten ari diren diagnostikoek, baita Bilbon, Donostian eta Gasteizen egindakoek eta estrategia hau gauzatzeko egin diren hiru elkarrizketek ere, argi jasotzen dute behar-beharrezkoak direla zahartzen ari diren pertsonen beren etxean eta beren beharrak eta lehentasunak errespetatzen dituzten auzoetan bizitzeko aukera ematen dieten hirigintza-politikak. Bizitokiak irisgarriak izan behar dute, hurbileko saltokiak, parkeak eta plazak izan behar dituzte, eta bizimodu sozialari, aktiboari, osasungarriari eta sare sozialei bide ematen dieten guneak ere izan behar dituzte. Laburbilduz, herritar guztiekiko lagunkoia den eta adinekoak ere integratzen dituen ingurunea. Ez da “adinekoentzako hiririk edo udalerririk” eskatzen, herritar guztien arteko harremanak dhalbidetzen dituzten eta guztiei bizimodu ona ematen dieten hiri eta herriak baizik.

### 3. HELBURUA

---

Euskadin “lagunkotasunaren” paradigma orokortzea, eta zahartzen ari direnek prozesu horretan parte hartzen dutela eta prozesuko protagonistak direla bermatzea.

### 3.1 Boluntariotza-ekintza eta komunitateko lankidetzak xede duten parte-hartze mugimenduen ekintza sustatzea adineko pertsonekin eta adineko pertsonen artean.

#### **Ekintzak:**

- Herritarrek parte hartzeko foroen sorrera sustatzea, batez ere hezkuntza-esparruetan; foro horietan aintzat hartuko da adinekoek ongizatearen gizartea eraikitzeke eta horri eus-teko egiten duten ekarpena, baita gizarteari egiten diotena ere.
- Adinekoek Euskadiko boluntariotzaren testuinguruan zer eginkizun betetzen duten aztertzea.
- Adinekoek komunitateko edo auzoko jarduketetan modu aktiboan parte hartzeko eta laguntzeko aukera ematen dieten ekimenak sustatzea.
- Pertsonak bizi diren tokian belaunaldien arteko harre-mana sustatzen duten ekimenak babestea; hala, aukerak eman beharko dira belaunaldien arteko loturak sortzeko eta ezagutza, kultura eta balio positiboak transmititzeko.
- Adinekoen egoitzek eskaintzen dituzten zerbitzu eta pro-gramen mapa egitea, ezagutaraztea eta egoitza horiek, bakoitza bere modalitatean, duten eragina ebaluatzea. Proposamen publikoak adinekoen profil berrietara egokit-zeko eta proposamenok hobetzeko iradokizunak egitea, genero-ikuspegiarekin.
- Autonomia Erkidegoan adinekoentzat dauden gizarte-ba-liabideei buruzko gidak egitea, lurralde historikoka.
- Adinekoek aurrez aurre zein modu birtualean parte hart-zeko dituzten aukerak eta guneak ezagutaraztea, eta bes-te gune batzuk sustatzea.
- Adinekoek herritar guztientzako gizarte- eta kultu-ra-etxeetan parte har dezatela sustatzea, batez ere lan-da-guneetan.
- Adinekoek komunitatearentzat beharrezko diren zerbit-zuetan presentzia aktiboa izan dezatela bultzatzea eta haien presentziaren ikusgarritasuna hobetzea, baina lan-intru-sismoan erori gabe.

- Adinekoek teknologia berriak eta informazioaren eta komunikazioaren sare sozialak ezagut eta erabil ditzatela sustatzea.
- Herritarren 2.0 parte-hartzea, IKTen bidezkoa, sustatzea.
- Gizarte-harremanen sareak mantentzea eta beste harreman batzuk eraikitzea, nahi ez diren bakardade-egoerak saihesteko.
- Ekimen didaktikoak gauzatzea bakardadea kudeatzeko eta egoera horretaz gozatzeko gaitasunak eta trebetasunak garatu ahal izateko; helburua da arlo horretako estereotipoak ez errepikatzea.
- Bakarrik sentitzen diren adinekoekin egoteko boluntariotza-ekimenak babestea, adinekoak gizartetik at gera ez daitezen eta horrek dituen ondorioak jasan ez ditzaten.
- Boluntariotza-ekintzen balio soziala sustatzea eta adinekoek dauden elkarteetan parte har dezaketela bermatzea.
- Administrazio publikoek adineko boluntarioen prestakuntza babestea; horretarako, informazioa eta aholkua emango zaie egin ditzaketen ekintzei eta har ditzaketen konpromisoei buruz, pertsona bakoitzaren gaitasunak, itxaropenak eta nahiak kontuan hartuta.
- Denbora-bankuen sorrera sustatzea, tresna erabilgarria baitira gizartea kohesionatzeko, elkartasuna hedatzeko eta belaunaldien arteko gizarte-harremanak indartzeko; gainera, emakumeei eta gizonei lana eta familia bateratzen lagundu diezaiekete, baldintza berdinetan.

### **3.2 Adineko pertsonen familian ematen dituzten zaintzak eta laguntzak aintzat hartzea eta erantzukidetasuna sustatzea.**

#### **Ekintzak:**

- Familiako adinduek zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza ematea, eta lan horren erantzukidetasuna sustatzea, sexuen araberako bereizkeriarik gabe.
- Gizartea sensibilizatzea, uler dezan lankidetzaren erantzukidea eta arazoizkoa sustatu behar dela aiton-amonek bilobak zaintzeari dagokionez; hala, aiton-amonei ez zaie nahi ez duten kargarik jarri behar gainean, baita hori esplizituki adierazten ez dutenean ere.

- Adinekoek familiaratean ematen dituzten zaintzen eta laguntzaren eragin ekonomikoari buruzko informazioa ezagutaraztea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, uler dezaten beharrezkoa eta garrantzitsua dela zaintza-lanetan emakumeak eta gizonak erantzunkide izatea, zaintzak jasotzen dituen pertsona edonor izanik ere. Gauza bera etxeko lanekin.

### 3.3. Euskadiko lagunkoitasun-prozesuei bultzada ematea.

#### Ekintzak:

- Euskadi Lagunkoia Sustraietatik ekimenarekin bat egin duten udalerrien sarea hedatzea.
- Adinekoek parte hartze aktiboa bermatzea beren herri, hiri eta lurraldeen lagunkoitasun-prozesua martxan jartzeko eta diagnostikoa egiteko lanetan.
- Sektore pribatua lagunkoitasunaren mugimenduan inplikatzeko eta, besteak beste, "Establezimendu Lagunkoia" programa sustatzea.
- Adinekoen benetako irudia ezagutaraztea; horretarako, adinekoek Euskadiko ondare ukiezinaren transmisioan duten balio soziala azpimarratuko da, besteak beste, Euskadi Lagunkoia "Ondarea" proiektuaren bitartez.
- Zahartzen ari diren pertsonak udalerriko Lagunkoitasun Planaren diseinuan integratzea.
- "Adinaren" ikuspegia txertatzea hiriko diseinuan, eta hori belaunaldien arteko ikuspegian eta genero-ikuspegian integratzea.
- Euskadi Lagunkoia proiektuaren barruan, adinekoek hirigintza-planetan parte har dezatela sustatzea; horretarako, "aholkulari eta oniritzi-emaile" rola sustatuko da, lagunkoitasunaren, irisgarritasunaren eta diseinu unibertsalaren ikuspegitik.
- Espazio publikoa herritar guztientzako segurua dela bermatzea; horretarako, aintzat hartuko dira bertatik ibiltzeko zailtasunen bat izan dezaketenen iritzia; besteak beste, honako hauena: adinekoak, emakumeak, mugikortasun-arazoak dituztenak, etab.
- "Nire auzoa maite dut" programa ezar dadila sustatzea, baita antzeko beste ekimen batzuk ere, auzolan-erakoak

zein bestelakoak; izan ere horiek tresna egokia dira auzoetan eta udalerrietan belaunaldien arteko gizarte-harremanak ahalbidetzeko eta herritarren eta udalen arteko harremana sendotzeko. Gainera, komunitateko lankidetzaz-eredu berriak ere sustatuko dira, besteak beste crowdfundinga (finantzaketa kolektiboa edo herri-finantzaketa) eta crowdsourcinga (herritar askoren arteko lankidetzaz).

- Zahartzen ari diren herritarrek garraio publiko irisgarria, segurua eta merkea erabil dezaketela bermatzea; arreta jarriko da landa-eremuko toki isolatueta, bertan bizi direnek zerbitzuak eskuratu ahal izateko eta familiarekin zein lagunekin harremanak mantendu ahal izateko, hartara, isolamendua eta horrek pertsona kalteberetan dituen ondorioak saihesteko.
- Gai zehatzei buruzko gidak egitea, besteak beste garraioari, etxebizitzari, establezimenduei edo espazioei buruzkoak; gida horietan lagunkotasuna hobetzeko gakoak emango dira, Eusko Jaurlaritzako sail eskumendunekin elkarlanean.
- Gai zehatzei buruzko hedatze- eta prestakuntza-jardunaldiak egitea, sektore publikoko, pribatuko eta gizarteko eragileen inplikazioarekin.
- Adinekoak, urte kopuru batera heldu direlako bakarrik, gidatzeko gauza ez direla edo haien gidatzeko moduak segurua izateari utzi diola dioen estereotipoari aurka egitea. Adinekoek, ahal den neurrian, bere kabuz hartu beharko dituzte gai horri buruzko erabakiak, gidatzeko zer-nolako gaitasuna eta segurtasun-bermea duten aztertuta, bai beretzat, bai gainerako herritarrentzat.
- Adinekoek modu seguruagoan gidatzea ahalbidetzeko hainbat ekimen gauzatzea; besteak beste, autoeskolan ezagutzak eguneratzea, ezarritako maiztasunarekin osasun-azterketak egitea...
- Adinekoak oinez dabiltzanean haien segurtasuna hobetzeko hainbat neurri gauzatzea.
- Herritartasun aktiboa eta gizarteko erantzunkidetasuna sustatzea adin guztietako pertsonen artean.



---

## 7. Bibliografia iturriak

### Bibliografia-iturriak

Bibliografia oso luzea denez, erakundeen iturriak baino ez dira aipatuko, autoreen bibliografia adierazi gabe.

### Azterketak eta txostenak:

#### Eusko Jaurlaritza:

- Enplegu eta Gizarte Politika Saila (2004): Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa
- Osasun Saila (2013): 2013-2020 Osasun Plana
- Enplegu eta Gizarte Politika Saila (2010): Euskadiko 60 urteko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa
- Enplegu eta Gizarte Politika Saila (2010): "Zahartzen direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza Plan baterako oinarriak" izeneko dokumentua
- Lana eta Gizarte Segurantza Saila (1993): Hirugarren Adinekoen Inkesta

### Foru-aldundiak:

- Bizkaiko Foru Aldundia (2010): Bizkaian zahartze aktiboa sustatzeko ekintza-plana 2010-2011

### Euskal organo autonomikoak:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB) (2014): "Krisi Ekonomikoaren esparruan EAEn lurralde-desorekak". Azterketa eta Txostenen Bilduma, 12. zk.

### Estatuko organo eta erakundeak:

- Comisiones Obreras (CCOO) (2014): Observatorio Social de las Personas Mayores 2014. Para un envejecimiento activo
- IMSERSO (2011): Zahartze Aktiboaren Liburu Zuria
- Andaluziako Junta. Berdintasun eta Gizarte Ongizate Kontseilaritza (2010): Libro Blanco del Envejecimiento Activo

### Europar Batasuna:

([http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/en/lsa/111553.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/en/lsa/111553.pdf))

- European Commission (2013): Active Ageing Index, Policy Brief
- European Commission (2013). Demografía, envejecimiento activo y pensiones
- Consejo de la Unión Europea (2012). Declaración del Consejo sobre el Año Europeo del Envejecimiento Activo y de la Solidaridad Intergeneracional: estrategia futura
- European Commission (2012), Social Europe Guide
- European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing (2011). Strategic Plan & Operational Plan
- Consejo de la Unión Europea (2009) 'Conclusiones del Consejo sobre envejecimiento digno y saludable'

### Nazio Batuen Erakundea (NBE):

Osasunaren Mundu Erakundea (2012): Osasunaren Mundu Batzarren WHA65.3 ebazpena, gaixotasun ez-kutsagarriei buruzko politikak sendotzeari buruzkoa, zahartze aktiboa sustatzeko ([http://apps.who.int/gb/ebwha/pdf\\_files/WHA65/A65\\_R3](http://apps.who.int/gb/ebwha/pdf_files/WHA65/A65_R3))

- Osasunaren Mundu Erakundea (2007): Ciudades Globales Amigables con las personas mayores: Una Guía
- Osasunerako Mundu Erakundea (2002): Envejecimiento Activo. Un marco político. Geneva
- United Nations Economic Commission for Europe (UNECE) (2002). Regional implementation strategy for the Madrid International Plan of Action on Ageing 2002 Geneva:

<http://www.who.int/ageing/es/index.htm>

### Erreferentzia gisa erabilitako araudiak

- 1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Pertsonen burujabetasuna sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntzari buruzkoa

### Estatistika-iturriak:

- Eusko Jaurlaritz. Osasun Saila (2014): Datu garrantzitsuak. 2013ko Euskal Osasun Inkesta
- Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila (2014): Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa, 2014
- Eurostat: Database by themes. Population and social conditions. European Commission
- EUSTAT: adierazle demografikoak
- EUSTAT: Udalmap
- EIN: oinarrizko demografia-datuak
- EIN: INEBASE: Biztanleen Udal Errolda
- EIN: INEBASE: biztanleriaren aurreikuspenak
- EIN: INEBASE: Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- GSIN: 2014ko azaroaren lehen indarrean zeuden pentsioak
- IMSERSO (2014): Espainiako adinekoak, 2013

## 8. Laburduren glosarioa

**AAI:** Active Ageing Index - Zahartze Aktiboaren Indizea

**AME:** Zahartzeari buruzko Mundu Biltzarra

**CCOO:** Langile Batzordeak

**EA:** Zahartze aktiboa

**EPSCO:** Employment, Social Policy, Health and Consumer Affairs Council of de European Union configuration – Europar Batasunaren Kontseilua, Enplegu, Gizarte Politika eta Kontsumitzaileak atalean.

**EUDEL:** Euskadiko Udalen Elkarte – Asociación de Municipios Vascos

**EUROSTAT:** Europar Batasunaren Estatistika Bulegoa

**EUSTAT:** Euskal Estatistika Erakundea – Instituto Vasco de Estadística

**IMSERSO:** Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua

**EIN:** Estatistika Institutu Nazionala

**GSIN:** Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala

**ELGA:** Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea

**OME:** Osasunaren Mundu Erakundea

**NBE:** Nazio Batuen Erakundea

**SI:** nazioarteko elkartasuna

**IKT:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

**EB:** Europar Batasuna

**UNECE:** United Nations Economic Commission for Europe - Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordeak

---

9.

**Eranskinak**




## 1. ERANSKINA

### Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI)

#### Ageing Active Index - AAI (Zahartze Aktiboaren Indizea)

Zahartze Aktiboaren Indizea (AAI) Europako Batzordearen Enpleguko, Gizarte Gaietako eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordeak (UNECE) elkarlanean kudeatutako ikerketa-proiektu baten emaitza da. Tresna honek lau alderdi hartzen ditu kontuan zahartze aktiboa neurtzeko. Hauek dira: enplegua, gizartean parte hartzea, bizitza independentea eta gaitasunak. Alderdi bakoitza kalkulatzeko, 22 adierazle daude; adierazleek ere informazio asko ematen dute.

Aztertutako alderdi bakoitzak berezko pisu espezifikoak du indize globala kalkulatzeko unean. Hala, enpleguak eta gizartean parte hartzeak indize osoaren % 35 hartzen dute bakoitzak; bizitza independenteak, berriz, % 10 hartzen du, eta, gaitasunek, % 20.



Iturria: Geuk egina (UNECE webguneko irudi originalaren itzulpena)

2013ko apirilean, Europako Batzordeak zahartzaroari buruzko adierazleen sistema bat argitaratu zuen, Europako hainbat herrialdetako datuak alderatzeko. Javier Echeverría (2014) esanetan, helburu nagusia zen datu enpirikoen bidezko ekarpena egitea Europako zenbait politika publikoren garapenari; politika publiko horiek ez zeuden adinekoen ongizatea hobetzera bideratuta soilik; aitzitik, adinekoek ekonomian eta gizartean egiten dituzten ekarpenak ere hobetu nahi zituzten.

Indize horren garapenaren harira, aldatu egin da zahartze aktiboa tratatzeko modua. OMEk osasuna, segurtasuna eta parte-hartzea erabiltzen ditu paradigma horren oinarri gisa; hemen, alderdi ekonomikoa ere gehitu da. Alderdi hori adinekoak lan-merkatuan txertatzean datza. Horrez gain, bosgarren alderdi bat ere gehitu da, belaunaldien arteko elkartasuna, hain zuzen ere. Horrek gazteak eta helduak ere inplikatzeko ditu, ez soilik adinekoak. Hala, banakakotik sozialera iritsi gaitzke.

Javier Echeverría AAlri buruz egindako azterketaren arabera (2014),



indize horretarako erabilitako zahartze aktiboaren definizioa OMEk 2002an erabilitakoaz bestelakoa da hainbat alderdi garrantzitsutan. Hain zuzen ere, hau da erabili zen definizioa: "Zahartze aktiboa gertatzen da pertsonak lan-merkatuan parte hartzen jarraitzen dutenean, baita soldatarik gabeko beste jarduera produktibo batzuk ere egiten dituztenean (familiako kideak zaintzea eta boluntario-lanak, besteak beste) ere, eta zahartu ahala bizimodu osasungarria, independentea eta segurua dutenean".

Kontzeptu-aldaketa hori 4 alderdi hauetan egituratzen diren 22 adierazleak sartzearekin zehaztu zen: enplegua, parte-hartzea, independentzia eta gaitasunak. Lehenengo aldaketa izan zen gaitasunen ikuspegia sartzea; bigarren aldaketa berriz, parte-hartzearen alderdian egin zen, dimentsio hori jarduera produktibora bideratu baitzen. Ikuspegi horrek pertsonalki aktiboak izateaz gain sozialki aktiboak ere badiren zahartze-prozesuak sustatzen ditu. Zahartze-ari buruzko azterketetan eta politika publikoetan egindako aldaketa horrek berrikuntza garrantzitsuak ekarriko ditu gizartearen alorrean; izan ere, datuak neurtzeko erabiltzen den sisteman kontuan hartzeko moduko pisua ematen zaie jarduera sozioekonomikoei, gaitasun eta parte-hartzeko modu gisa ulertuta. AAIren harira sortuko diren zahartze-politikak oso bestelakoak izango dira OMEren paradigman (2002) oinarrituta dauden politika tradizionalen aldean (Echevarría, 2014).

Euskadiko AAIa honako bi helburu hauekin kalkulatu da: lehenengo helburua, garrantzitsuena, politika publikoek zer arlo behar dituzten hautematea, herritarren bizi-kalitatea are gehiago hobetzeko. Bigarren helburua, aldiz, estatu- eta Europa-mailako alderaketa bat egitea, egoera zein den zehatz-mehatz jakiteko.

Eranskin honetan nazioarteko alderaketa ageri da, bai eta arlo bakoitzean hautemandako alderdirik garrantzitsuenak ere.

## 1. INDIZE GLOBALA:

Euskadiko Zahartze Aktiboaren Indizeak (AAI) aztertu diren EBko 28 herrialdeetatik 7. postuan jartzen du Euskadi.


Euskadik AAI n lortutako puntuazioa (36,6) Europako batez bestekoaren (34,05) oso gaineratik dago. Horrek oso toki onean jartzen du Euskadi; izan ere, ongizate-maila eta gizarte-babes maila altua duten hainbat herrialderen aurretik kokatzen da; besteak beste, Alemania, Austria eta Frantziaren aurretik.

Hala ere, gogoan izan behar da sailkapena egiteko erabili diren datu berrienak 2011-2012koak direla; ondorioz, gaur egun aldaketa txikiren bat egon liteke.

Espainiako Estatua 18. dago Europako sailkapenean (17., Euskadi kontuan hartzen ez bada), 32,8 puntu lortu baititu.

Aipagarria da Euskadik EBko puntuaziorik onena eskuratu duela hiru adierazletan (enplegua ez beste guztietan), eta Estatuko puntuazioaren gainetik dagoela aztertutako lau adierazleetan.

	Enplegua	Gizarte-partaidetza	Bizitza independentea	Gaitasuna	Balioa	Postua
<b>Euskal Herria</b>	<b>25,38</b>	<b>21,03</b>	<b>72,3</b>	<b>65,70</b>	<b>36,60</b>	<b>7</b>
<b>Estatua</b>	23,33	18,26	69,8	56,28	32,80	18
<b>28 EB</b>	27,90	18,10	70,6	54,50	34,05	



## 2. ENPLEGUA:

Enpleguaren azpiadierazleak edo arloak AAIren puntuazio osoaren % 35 hartzen du. Arlo honetako puntuazioa kalkulatzeko, adin talde bakoitzaren (55-59; 60-64; 65- 69; 70-74) batez besteko okupazio-tasa kalkulatu behar da.

Euskadi EBko herrialdeen artetik hamabosgarrena da (25,4 puntu), 28en batez bestekoa (27,9) baino zertxobait beherago eta Espainiako Estatua baino zertxobait gorago (23,3 - 19. postua).


Hainbat alde daude Euskadiko eta Estatuko okupazio-tasaren artean. 55 eta 64 urte artean dituzten eta lanean ari diren pertsonen ehunekoa zertxobait handiagoa da Euskadin; aldiz, txikiagoa da 65 urtetik gorakoen kasuan.

EBko batez bestekoaren aldean, aipatzeko modukoa da Euskadiko okupazio-tasa nabarmen txikiagoa dela 65 urtetik gorakoen artean.

### Euskadiko, Estatuko eta 28 EBko datuen alderaketa enpleguaren arloan:

	Okupazio-tasa 55-59	Okupazio-tasa 60-64	Okupazio-tasa 65-69	Okupazio-tasa 70-74	Balioa	Postua
<b>Euskadi</b>	<b>62,1</b>	<b>35,1</b>	<b>3</b>	<b>1,3</b>	<b>25,4</b>	<b>15</b>
<b>Estatua</b>	54,4	31,8	5,2	1,5	23,3	19
<b>28 EB</b>	62,2	31,6	11,6	6,1	27,9	

### 1ºDominio.- Empleo



### 3. GIZARTEAN PARTE HARTZEA:

Gizarteko parte-hartzearen alorra Zahartze Aktiboaren Indizearen (AAI) puntuazioaren beste % 35 da.

Hori kalkulatzeko, pertsonak (ondorengoak, asabak, mendekotasunen bat dutenak) zaintzea (soldatarik jaso gabe) xede duten boluntarioritza-jarduerak eta politikan parte hartzeari lotutako jarduerak hartzen dira kontuan.

Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeen artean 9. postuan dago Euskadi, 21 punturekin. Beraz, EBko batez bestekoaren (18,1) gainera dago, baita Espainiaren gainera ere. Azken hori 15. postuan dago, 18,3 punturekin; puntuazio hori Europako batez bestekotik oso hurbil dago.


Euskadik, Estatuaren aldean, puntu gehiago jaso ditu boluntarioritza-jardueretan, politikan parte hartzean eta adingabeen zaintzan (seme-alabak eta bilobak). Hala ere, txikiagoa da gutxienez astean behin adinekoren bat edo desgaitasunen bat duen norbait zaintzen duten euskal herritarren ehunekoa.

EBko batez bestekoari dagokionez, Euskadik puntuaziorik altuena lortu du neurtutako lau adierazletan. Adinekoen edo desgaitasunen bat duten pertsonen zaintzari buruzko adierazlean besterik ez du jaso puntuazio baxuagoa.

**Euskadiko, Estatu eta 28 EBko datuen alderaketa gizartean parte hartzearen arloan:**

	Boluntarioritza	Seme-alaba eta biloben zaintza	Adinekoen eta desgaitasunen bat dutenen zaintza	Politikan parte hartzea	Balioa	Postua
<b>Euskadi</b>	<b>19</b>	<b>44</b>	<b>9,4</b>	<b>12,3</b>	<b>21</b>	<b>9</b>
<b>Estatua</b>	9,6	36,1	15,7	10,6	18,3	15
<b>28 EB</b>	14,8	32,5	12,9	12,0	18,1	

## 2ºDominio.- Participación



#### 4. BIZITZA INDEPENDENTEA


“Bizitza independentea” azpiadierazleak edo arloak Zahartze Aktiboaren Indizearen puntuazio osoaren % 10 hartzen du; horrek esan nahi du arlo honek duela pisurik txikiena adierazlean. Arlo honetan sartzen dira jarduera fisikoari buruzko informazioa, osasuneko beharrianak (medikoak eta hortzetakoak), etxebizitza mota, batez besteko errenta, pobrezia-arriskua, gabezia materiala, segurtasun fisikoa eta bizialdi osoko ikaskuntza.

Arlo honetan, 13. postuan dago Euskadi (72,3 puntu); hau da, Estatuaren gainetik (69,8) eta aztertutako Europako 28 herrialdeen batez bestekoaren gainetik (70,6). Aipatzeko modukoa da Euskadin 55 urte baino gehiago dituzten eta astean 5 aldiz baino gehiagotan jarduera fisikoa egiten duten pertsonen ehuneko altua (jarduera fisikoa da kirola eta beste edozein ariketa fisiko, besteak beste, bizikletan ibiltzea, oinez ibiltzea, lorategia edo baratzea zaintzea etab.); ehuneko hori Estatuak eta EBko batez bestekoa halako lau da ia.

**Euskadiko, Estatuak eta 28 EBko datuen alderaketa bizitza independentearen arloan:**

	Jarduera fisikoa	Estalitate premia medikoak eta hortzetakoak	Bakarrik edo bikotekidearekin bizitzea	Batez besteko errentaren gaineko ratioa	Pobrezia-arriskurik gabe	Gabezia materialik gabe	Segurtasun fisikoa	Bizialdi osoko ikaskuntza	Balioa	Postua
<b>Euskadi</b>	<b>60,9</b>	<b>81,5</b>	<b>61</b>	<b>91,3</b>	<b>94,8</b>	<b>97</b>	<b>89,1</b>	<b>5,3</b>	<b>72,3</b>	<b>13</b>
<b>Estatua</b>	15,8	89,6	73,4	93,1	93,8	97,1	67,4	4,8	69,8	16
<b>28 EB</b>	15,6	88,2	84,2	86,3	93,0	90,0	69,3	4,5	70,6	

#### 3º Dominio.- Vida independiente



## 5. ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNTSURAKO GAITASUNA

Gaitasunen azpiadierazle honek ingurunea zahartze aktiborako egokia den ala ez balioesten du. Zahartze Aktiboaren Indizearen puntuazio osoaren % 20 hartzen du, eta honako 6 alderdi hauek hartzen ditu kontuan: bizi-itxaropena, gaixotasunik edo desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena, osasun mentala, teknologia berrien erabilera, gizartearekiko konexioa eta prestakuntza-maila.

Azpiadierazle horretan, Euskadik Europako bigarren puntuaziorik onena du, Suediaren atzetik. Euskadik Estatuak baino puntu gehiago lortu ditu atal honetan neurtutako elementu guztietan. Aldea bereziki handia da prestakuntza-mailan (Euskadik 13,5 puntu gehiago ditu) eta gizartearekiko konexioan (18,3 puntu gehiago). Hori dela eta, Euskadiko puntuazio globala (65,7) Estaturkoa (56,3) baino 9,4 puntu altuagoa da.


Ia ez dago alderik Euskadiko eta Estaturko bizi-itxaropenaren artean; hala ere, aldea dago desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenean, Euskadik Estatuak baino 10 puntu inguru gehiago erdietsi baititu.

Europar Batasunaren batez bestekoari dagokionez, Euskadik aise gainditzen du (11,3 puntu gehiago eskuratu ditu). Alderik nabarmenena gizartearekiko konexioan dago; izan ere, Euskadiko mailak ia bikoiztu egiten du Europakoa.

**Euskadiko, Estaturko eta 28 EBko datuen alderaketa zahartze aktibo eta osasunerako gaitasunaren arloan:**

	Bizi-itxaropenaren proportzioa	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena	Osasun mentala	IKTen erabilera	Gizartearekiko konexioa	Prestakuntza-maila	Balioa	Postua
<b>Euskadi</b>	<b>60,5</b>	<b>62,5</b>	<b>76,6</b>	<b>38,8</b>	<b>95,8</b>	<b>42,4</b>	<b>65,7</b>	<b>2</b>
<b>Estaturko</b>	59,1	52,9	68,2	29,0	67,5	28,9	56,3	13
<b>28 EB</b>	53,8	53,2	64,6	40,8	49,0	59,7	54,4	

#### 4ºDominio.- Capacidad de envejecimiento activo





## 2. ERANSKINA

### Estatu-mailako eta nazioarteko plan gerontologikoen berrikusketa

#### Estrategien eta plan gerontologikoen berrikusketa

Hautatutako estrategiak eta planak (Estatukoak zein nazioartekoak) sistematikoki aztertzeko, Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak (SIS) "Europako plangintza gerontologikoari buruzko dokumentu-azterketa konparatiboa" (2011) egiteko erabili zuen sistema kategoriala hartu dugu oinarri. Dokumentu bakoitzerako deskripzio-fitxa bat sortu da. Planak hautatzeko, honako irizpide hauek hartu dira kontuan: denbora (indarrean dauden planak edo nahiko berriak direnak) eta garrantzia edo adierazgarritasuna.

Beraz, dokumentuen laburpena egiteko, alderdi hauek hartu dira kontuan:

- **Jarduketa-esparrua:** erreferentziazko ikuspegia hartzen du kontuan; hau da, orokorra edo integrala den, edo sektoriala eta esparru zehatz batekoa.
- **Printzipioak eta jarduketa-ardatzak:** kontuan hartzen du dokumentuak zahartzearen arloko politikak gidatzen dituzten printzipioetan oinarrituta dauden ala ez. Gainera, aztertzen dituen jarduketa-esparruak ere kontuan hartzen ditu.

- **Metodologia eta diagnostikoa:** estrategia edo plana gauzatzeko aurretik egin diren prozesuak aztertu dira, horiek publikoak diren eta dokumentuan bertan ageri diren kasuetan. Halaber, egoera aztertu den ala ez ere jasotzen da.
- **Ebaluazioa eta adierazleak:** dokumentuan zehaztu egiten da ea ebaluazio-mekanismorik eta/edo betetze-mailaren adierazle-sistamarik dagoen.
- **Aldia:** strategiaren/planaren aplikazio-aldiari egiten dio erreferentzia.
- **Koordinazioa:** helburuak erdiesten laguntzeko erakunderen baten koordinazioa aipatzen den ala ez.
- **Aurrekontua:** aurrekontuari eta finantzaketari buruzko datuak, planifikazioa gauzatu ahal izateko.

## Estatu-mailan eta nazioartean aztertutako estrategia eta plan gerontologikoak (Euskal Autonomia Erkidegoa kontuan hartu gabe)

<b>Estatua</b>	Adinekoentzako Arretari buruzko Gaztela-Mantxako II. Plana. 2011 Horizontea
	Adinekoentzako Salamankako III. Udal Plana, 2012-2015
	Valentziako Erkidegoko Zahartze Aktiboaren Estrategia
	Osasuneko eta Gizarte Ongizateko Estrategia 2011-2020, Gaztela-Mantxa
	Galiziako Adinekoentzako Plana 2010-2013, 2015 Horizontea
	Adinekoentzako Udal Plana 2013-2016, Bartzelona

<b>Nazoartea</b>	A) AUSTRALIA	Prosperity Through Longevity: South Australia's Ageing, 2014-2019
		Living Longer Living Better (2012-2016)
		Plan for Positive Ageing 2010-2014: Towards an Age-Friendly City
	B) KANADA	Canada's Aging Population: Seizing the Opportunity
		Action for Seniors
		Living Longer, Living Well (Ontario)
		Aging Population Policy Framework
		AgeFriendly Manitoba: Creating communities committed to healthy, active aging
	C) ESTATU BATUAK	ACL Strategic Plan (2013-2018)
		National Plan to Address Alzheimer's Disease
		Washington State Plan on Aging
		New York State Plan on Aging
	D) FRANTZIA	Plan National "Bien Vieillir"
		Plan Solidarite Grand Age
		Projet de Loi Relatif a L'adaptation de la Société au Vieillessement
	E) ESKANDINAVIAKO HERRIALDEAK	High-Quality Services for Older People (Finlandia)
		National Memory Programme 2012-2020. Creating a "memory-friendly" Finland
		The Dementia Plan 2015 (Noruega)
	F) ERRESUMA BATUA	Hope, Confidence and Certainty for Older People 2013-2015
		Reshaping Care for Older People: A Programme for Change 2011-2021
Scotland's National Dementia Strategy: 2013-16		
National Policy for Older Persons (Anguilla)		
Service Framework for Older People (Anguilla)		

## 2.1. ESTATUA

<b>PLANA</b>	<b>Gaztela-Mantxako Adinekoentzako Arretari buruzko II. Plana 2011 Horizontea</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Autonomia-erkidegoa – Gaztela-Mantxa
<b>Printzipioak eta jarduketa-ardatzak</b>	<p>Hauek dira planaren oinarrizko printzipioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Adinekoen aldeko Nazio Batuen printzipioak, 1991ko abenduaren 16ko Biltzar Nagusian onetsiak (46/91 Ebazpena).</li> <li>- Martxoaren 23ko 5/1995 Gaztela-Mantxako Elkartasunaren Legearen printzipioak.</li> <li>- Zahartzeari buruzko II. Mundu Biltzarra. Madrilgo Zahartzeari buruzko Nazioarteko Ekintza Plana, 2002.</li> </ul> <p>Eta lau jarduketa-ardatz nagusi hauek proposatzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Bermeak, eskubideak eta babesa.</li> <li>2) Zahartze aktiboa sustatzea.</li> <li>3) Mendekotasun-egoeran daudenei eta haien familiei arreta ematea.</li> <li>4) Kalitatea, ikerketa, prestakuntza eta berrikuntza adinekoentzako arretan.</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Xehetasun osoz azaltzen du ebaluazioaren metodologia, baina ez planaren diseinuarena.

PLANA	<b>II Plan de Atención a Personas Mayores en Castilla la Mancha Horizonte II (Gaztela-Mantxako Adinekoentzako Arretari buruzko II. Plana 2011 Horizontea)</b>																																
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	<p>Hauk dira ebaluazioa oinarritzen duten helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Planaren egokitasuna, eraginkortasuna eta efizientzia neurtzea.</li> <li>Plana hobetzeko eta/edo aldatzeko erabakiak hartzeko prozesua erraztea.</li> <li>Ezusteko ondorioak zein neurritan eman diren zehaztea.</li> <li>Etorkizunean zer-nolako esku-hartze egin behar diren jakiteko azterketa prospektibo bat sustatzea.</li> </ol> <p>Planean proposatzen den ebaluazioak lau fase ditu, hurrenkera honetan: aurretikoa, bitartekoa, eraginei buruzkoa eta emaitzei buruzkoa. Erabili diren adierazleak eta tresnak taula honetan ageri dira:</p> <table border="1" data-bbox="407 611 1040 1124"> <thead> <tr> <th>DIMENSIONES DE LA EVALUACIÓN</th> <th>TIPO DE EVALUACIÓN</th> <th>INDICADORES</th> <th>HERRAMIENTAS</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td rowspan="3">CARACTERÍSTICAS DE LOS USUARIOS Y BENEFICIARIOS</td> <td>PREVIA</td> <td rowspan="3">Grado de satisfacción de los usuarios Nivel de participación en las actividades</td> <td>Cuestionarios Escala de actitudes Análisis documental</td> </tr> <tr> <td>PROCESO</td> <td>Observación Grupo de discusión Cuestionarios</td> </tr> <tr> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Observación Cuestionarios Instrumentos estandarizados</td> </tr> <tr> <td>ESFUERZO</td> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Gasto total de las actividades Nº de horas totales actividades</td> <td>Cronogramas Hojas de gastos</td> </tr> <tr> <td>EFICACIA</td> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Grado de consecución objetivo previsto Nº de intervenciones realizadas</td> <td>Hojas de seguimiento Observación Grupo de discusión Hojas de seguimiento Cuestionarios</td> </tr> <tr> <td>EFICIENCIA</td> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Relación tiempo/intervención Relación dinero/resultados</td> <td>Cronogramas Hojas de gastos Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión</td> </tr> <tr> <td>RENTABILIDAD</td> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Relación gasto realizado/ ahorro de costes futuros</td> <td>Hojas de gastos Hojas de seguimiento</td> </tr> <tr> <td>CALIDAD</td> <td>RESULTADOS E IMPACTO</td> <td>Calidad de las infraestructuras Calidad científico-técnica Calidad relacional</td> <td>Cronogramas Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión</td> </tr> </tbody> </table> <p style="text-align: center;">Iturria: Gaztela-Mantxako Adinekoentzako Arretari buruzko II. Plana</p>	DIMENSIONES DE LA EVALUACIÓN	TIPO DE EVALUACIÓN	INDICADORES	HERRAMIENTAS	CARACTERÍSTICAS DE LOS USUARIOS Y BENEFICIARIOS	PREVIA	Grado de satisfacción de los usuarios Nivel de participación en las actividades	Cuestionarios Escala de actitudes Análisis documental	PROCESO	Observación Grupo de discusión Cuestionarios	RESULTADOS E IMPACTO	Observación Cuestionarios Instrumentos estandarizados	ESFUERZO	RESULTADOS E IMPACTO	Gasto total de las actividades Nº de horas totales actividades	Cronogramas Hojas de gastos	EFICACIA	RESULTADOS E IMPACTO	Grado de consecución objetivo previsto Nº de intervenciones realizadas	Hojas de seguimiento Observación Grupo de discusión Hojas de seguimiento Cuestionarios	EFICIENCIA	RESULTADOS E IMPACTO	Relación tiempo/intervención Relación dinero/resultados	Cronogramas Hojas de gastos Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión	RENTABILIDAD	RESULTADOS E IMPACTO	Relación gasto realizado/ ahorro de costes futuros	Hojas de gastos Hojas de seguimiento	CALIDAD	RESULTADOS E IMPACTO	Calidad de las infraestructuras Calidad científico-técnica Calidad relacional	Cronogramas Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión
DIMENSIONES DE LA EVALUACIÓN	TIPO DE EVALUACIÓN	INDICADORES	HERRAMIENTAS																														
CARACTERÍSTICAS DE LOS USUARIOS Y BENEFICIARIOS	PREVIA	Grado de satisfacción de los usuarios Nivel de participación en las actividades	Cuestionarios Escala de actitudes Análisis documental																														
	PROCESO		Observación Grupo de discusión Cuestionarios																														
	RESULTADOS E IMPACTO		Observación Cuestionarios Instrumentos estandarizados																														
ESFUERZO	RESULTADOS E IMPACTO	Gasto total de las actividades Nº de horas totales actividades	Cronogramas Hojas de gastos																														
EFICACIA	RESULTADOS E IMPACTO	Grado de consecución objetivo previsto Nº de intervenciones realizadas	Hojas de seguimiento Observación Grupo de discusión Hojas de seguimiento Cuestionarios																														
EFICIENCIA	RESULTADOS E IMPACTO	Relación tiempo/intervención Relación dinero/resultados	Cronogramas Hojas de gastos Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión																														
RENTABILIDAD	RESULTADOS E IMPACTO	Relación gasto realizado/ ahorro de costes futuros	Hojas de gastos Hojas de seguimiento																														
CALIDAD	RESULTADOS E IMPACTO	Calidad de las infraestructuras Calidad científico-técnica Calidad relacional	Cronogramas Hojas de seguimiento Cuestionarios Grupos de discusión																														
<b>Aldia</b>	2007tik 2011ra																																
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu																																
<b>Koordinazioa</b>	Planak komunikazio-bideak eta antolakuntza-formula egokiak sortzearen aldeko apustua egiten da, adinekoen arretara bideratutako baliabideen eta askotariko profesionalen arteko koordinazioa ahalbidetzeko eta jarduketak koherenteak direla bermatzeko.																																
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.castillalamancha.es/sites/default/files/documentos/20120511/iiplanatencionpersonasmayoreshorizonte2011.pdf">http://www.castillalamancha.es/sites/default/files/documentos/20120511/iiplanatencionpersonasmayoreshorizonte2011.pdf</a>																																

<b>PLANA</b>	<b>Adinekoentzako Salamankako III. Udal Plana, 2012-2015</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Geografia-eremua</b>	Udal-mailakoa – Salamankako Udala
<b>Printzipioak</b>	<p>Hauek dira planaren printzipioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Adinekoen eskubideak eta askatasunak defendatzea eta babestea, eta zahartzearen irudi positibo eta errealista sustatzea.</li> <li>· Planifikazio malgua egitea, zerbitzuak adinekoen beharrezan bilakaerara egokitu ahal daitezen.</li> <li>· Zerbitzuen kalitatea bermatzea, eraginkortasuna, efizientzia, izapideen sinplifikazioa, programazio hobea eta emaitzen balioespena kontuan hartuta.</li> <li>· Ingurunea eta zerbitzuak biztanleriaren gainerako taldeen baldintza berdinetan eskuratu ahal izatea.</li> <li>· Adinekoen partaidetza gizarte-politiken diseinuan; horretarako adinekoak gizartearen ordezkaritza-organoetan parte hartu ahal izatea ahalbidetuko da.</li> <li>· Jarduketan zeharkakotasuna, Udalaren kudeaketa-arloen arteko koordinazioarekin.</li> </ul>
<b>Jarduera-ardatzak</b>	<p>Plan praktikoa bat da eta 114 neurri zehatz ditu; neurrien helburua 25.000 pertsonari baino gehiagori zuzendutako programak eta jarduerak gorpuztea da. Sei ildo estrategikoa hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>I: osasuna eta bizitza autonomoa</li> <li>II: ingurune sozialean parte hartzea eta harremana izatea.</li> <li>III: etengabeko prestakuntza eta hezkuntza</li> <li>IV: irudi soziala</li> <li>V: adinekoen segurtasuna eta babesa, eta</li> <li>VI: koordinazioa eta ikerketa</li> </ul>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Ez dira azaltzen. Planean adinekoen eskura dauden baliabideak berrikustea eta biztanleriaren azterketa sozio-demografikoa egitea proposatzen da.
<b>Aldia</b>	2012-2015

PLANA	Adinekoentzako Salamankako III. Udal Plana, 2012-2015
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ebaluazioa hiru eduki hauek osatzen dute: poztasunaren ebaluazioa, emaitzen ebaluazioa eta prozesuen azterketaren bitartezko etengabeko hobekuntza. Lehen biak gauzatzeko, azterketa misto kuantitatibo eta kualitatibo bat egingo da. Hirugarrenerako, berriz, azterketa kualitatiboa erabiliko da soilik.
<b>Aurrekontua</b>	"Zahartze aktiboa sustatu eta mendekotasuna prebenitu" izeneko planerako, adierazi diren sei jarduketa-ildo horiek kontuan hartuta, 1.874.337 €-ko aurrekontua egin da. Aurrekontua desberdina da ardatz bakoitzean. Horrez gain, "etxeko arretarako baliabideak eta joan-etorrietarako laguntza 60 urtetik gorakoentzat" planaren gastuaren aurrekontua egin da; guztira, 18.033.565 €-koa da. Bi aurrekontu horiek lau urterako dira, 2012tik 2015era.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://mayores.aytosalamanca.es/es/docs/III_Plan_Municipal_Personas_Mayores_Salamanca.pdf">http://mayores.aytosalamanca.es/es/docs/III_Plan_Municipal_Personas_Mayores_Salamanca.pdf</a>

PLANA	Valentziako Erkidegoko Zahartze Aktiboaren Estrategia
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Autonomia-erkidegoa – Valentziako erkidegoa
Printzipioak	<p>Osasun-eskubidea, ekitatea eta genero-ikuspegia kontuan hartzeaz gain, estrategiak jarduketa-printzipio hauek ere baditu oinarri:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Adinekoen independentzia errespetatzea haien osasunari buruzko erabakiak hartzeko unean.</li> <li>2. Osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko ahaleginak egitea, herritarrak modu aktibo eta osasungarrian zahartu daitezen.</li> <li>3. Adinekoen eskubideen alde egitea.</li> <li>4. Adinekoen parte-hartze aktiboa sustatzea gizartean haien beharrei ematen zaien erantzunean eragiteko.</li> <li>5. Zahartze aktiboaren ikuspegia politika guztietan txertatzen laguntzea.</li> <li>6. Gizarteak adinekoenganako duen errespetua eta elkartasuna indartzea.</li> <li>7. Erakundeen arteko koordinazioa eta adinekoekin lan egiten duten erakunde publiko zein pribatuetak profesionalen lankidetzatza bultzatzea.</li> <li>8. Adinekoekin lotura duten helburuak eta jarduerak txertatzea Valentziako Erkidegoaren osasunaren arloko plan, programa eta estrategia guztietan.</li> </ol>



PLANA	Valentziako Erkidegoko Zahartze Aktiboaren Estrategia
<b>Jarduera-ardatzak</b>	<p>Proposatzen diren helburu orokorrak erdiesteko, esku hartzeko lau arlo handi hauetan banatutako hainbat jarduketa-ildori jarraitzea planteatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Erakundeen arteko koordinazioa, gobernantza eta gizartearen partaidetza.</li> <li>2. Zahartze aktiboari buruzko prestakuntza eta ikerketa.</li> <li>3. Zahartze aktiboa sustatzea, osasuna babestea eta gaixotasunak prebenitzea.</li> <li>4. Osasun-arazoetarako arreta integrala.</li> </ol> <p>Arlo horietako bakoitzean hainbat helburu espezifikoki zehaztu dira, zenbait jarduketa-ildo edo ekintzarekin; horren helburua da Valentziako Erkidegoko biztanleen zahartzea ahalik eta aktibo, seguru eta osasungarriena izatea.</p>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Ez da zehaztu.
<b>Aldia</b>	2013tik aurrera.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ez da zehaztu.
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.
<b>Koordinazioa</b>	Ekintza bakoitzerako, hura betetzeaz arduratuko diren erakundeak eta eragile arduradunak zehazten dira.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://cuidatecv.es/pubs/estrategia-envejecimiento-activo-en-la-comunidad-valenciana-2013/">http://cuidatecv.es/pubs/estrategia-envejecimiento-activo-en-la-comunidad-valenciana-2013/</a>

<b>PLANA</b>	<b>Osasuneko eta Gizarte Ongizateko Estrategia; Gaztela-Mantxa 2011-2020</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala (Ez da berariaz adinekoentzat, baina haienzako sektore-plan bat du)
<b>Eremu geografikoa</b>	Autonomia Erkidegoa – Gaztela-Mantxa
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	Osasuneko eta Gizarte Ongizateko 2011-2020 aldirako Estrategiaren dokumentuan hamar helburu eta zortzi ardatz estrategiko jaso dira. Ardatz estrategikoei 83 jarduketa aurreikusten dituzte, eta honako hauek dira:  1.- Autonomia pertsonala, gizarteratzea eta osasuna hobetzea bizitzaren aro guztietan 2.- Pertsona ardatz duen zainketa-sistema antolatzea, eta arretaren jarraitutasuna bermatzea 3.- Deliberaziozko parte-hartze soziala 4.- Profesionalen parte-hartzea eta antolamendu-eredua berriak 5.- Ikerkuntza, berrikuntza eta garapena prozesu guztietan 6.- Estrategia gauzatzera bideratutako prestakuntza 7.- Kalitatearen etengabeko hobekuntza 8.- Etika osasunean eta gizarte-ongizatean

PLANA	Osasuneko eta Gizarte Ongizateko Estrategia; Gaztela-Mantxa 2011-2020
<p><b>Metodologia eta diagnostikoa</b></p>	<p>Osasuneko eta Gizarte Ongizateko 2011-2020 aldirako Estrategia parte-hartze bidezko metodologia bati jarraikiz prestatu da. Horretarako, gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloko profesional adituez osatutako idazketa-batzorde batek prestatu zuen lehen dokumentua. Dokumentu hartan, sakonago aztertu beharreko gai hauek identifikatu ziren: autonomia; gizarteratzea eta osasuna bizitzaren aro guztietan (haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora; helduarora; zahartzarora; gizarteratzea eta osasuna); mendetasun-egoeran daudenentzako zainketak; zerbitzu-sare integratua; deliberaziozko parte-hartze soziala; ikerketa, aplikatutako teknologiak; Planaren ebaluazioa.</p> <p>2009. urtearen amaieran, eztabaida taldeak biltzeko deialdia egin zen, eta bertan askotariko prestakuntza eta lan-eskarmentua zuten profesionalak hartu zuten parte (tokikoak zein eskualdekoak, elkarteen ordezkariak, kontsumitzaileak eta boluntarioak) Guztira, 200 profesionalak baino gehiagok parte hartu zuen beren ikuspegia eta proposamenak ekarriz.</p> <p>Eztabaida-talde bakoitzak dokumentu bat prestatu zuen, eta horiek sarera igo ziren, herritarrek beren iritzi eta iruzkinak bidali ahal izateko.</p> <p>2010. urtean zehar eztabaidatu ziren, Estrategiaren zirriborroa egiteko. Idazketa-batzordeak 2011ko urtarrilean amaitu zuen zirriborro berria.</p>
<p><b>Ebaluazioa eta diagnostikoa</b></p>	<p>Estrategiaren ebaluazioa Jarraipen Batzordeak egingo du, eta Kontseilaritzako profesionalak eta dokumentua prestatzen parte hartu duten erakundeetako (profesionalen eta enpresen erakundeak, zientzia-elkarteak, profesionalen elkargoak, elkarteak, etab.) hainbat adituz egongo da osatua.</p> <p>Ebaluazio Batzordeak urteroko txosten bat prestatuko du Estrategiaren jarraipena taxuz egiteko, eta egoki deritzen aldatetarik proposatuko ditu. Txostena Estrategiaren urteroko bileran aurkeztuko da, bertan direla hura egiten parte hartu duten eragile guztiak, proposatutako aldatetarik onar daitezkeen, hala badagokio.</p>
<p><b>Aldia</b></p>	<p>2011-2020</p>

PLANA	<b>Osasuneko eta Gizarte Ongizateko Estrategia; Gaztela-Mantxa 2011-2020</b>
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu. Honako hau adierazi da: gizarteak, aurrekontu publikoen bitartez, gizarte-politikak finantzatzeko egin dezakeen ahalegina herrialdeko ekonomiaren egoeraren mende dago lehenik eta behin, eta Gobernu bakoitzak esleitutako gastu-lehentasunen mende bigarrenik.
<b>Koordinazioa</b>	Osasunaren, gizarteratzearen eta gizarte-ongizatearen aldeko itun estrategiko gisa pentsatu da, gizarte-eragileen, profesionalen, zerbitzuak ematen dituzten erakundeen eta herritarren artekoa.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.adaceclm.org/DocumentosInteres/Documentosda%C3%B1ocerebral/Documents/ESTRATEGIA%2020-20%20SALUD%20Y%20BS.pdf">http://www.adaceclm.org/DocumentosInteres/Documentosda%C3%B1ocerebral/Documents/ESTRATEGIA%2020-20%20SALUD%20Y%20BS.pdf</a>

PLANA	O Plan Galego das Persoas Miores 2010-2013, Horizonte 2015
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Autonomia Erkidegoa - Galizia
Jarduketa-ardatzak eta printzipioak.	<p>Funtsezko hiru premia hauek hartzen ditu kontuan: dibertsitatea, zeharkakotasuna/integrazioa eta parte-hartzea.</p> <p>Plana lau ekintza-nukleo nagusi hauetan zatitu da:</p> <p><b>1.- Balioen sustapena eta eskubideen babesa.</b></p> <p>Lau helburu operatibo hauek aurreikusten ditu: zahartzaroan gizarteari ekarpen garrantzitsuak egiten zaizkiola hedatzea; adinekoen eskubideak jendarteratzea; adinekoen eskubideak babesteko eta arriskuzko egoerei aurrea hartzeko dauden mekanismoak hobetzea; eta gizon eta emakumeen arteko desberdinkeriak murriztea, adinekoen artean genero-berdintasunari buruzko printzipioak sustatuz.</p> <p><b>2.- Zahartze aktiboa eta gizartean parte-hartzea.</b></p> <p>Helburu operatiboak xede hauetara bideratu dira: adinekoen autonomia sustatzera eta zahartze osasuntsu eta osasungarriari bide ematera; adinekoek gizarte zibilean parte har dezatela laguntzea, ahotsa izateko eta erabakiak hartzean parte hartzeko aukera emanez; adinekoek boluntariotza-programetan eta kultura-, aisialdi eta astialdi-jardueretan parte hartzea sustatzea, eta adinekoek Galiziako eremu sozioekonomiko eta profesionalari egiten dioten ekarpena indartu eta aintzat hartzea.</p> <p><b>3.- Zerbitzu eraginkor eta kalitatezkoak ematea.</b></p> <p>Hona hemen helburuen xedea: etxean bizitzen jarraitzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko aukeran dauden programa eta zerbitzuen katalogoa zabaltzea; autonomia sustatzea eguneroko ingurunearen barruan; etxean bizitzen jarraitu ezin dutenei egoitzan arreta emateko baliabideen sorreran aurrera egitea; arreta emateko lanak betetzen dituzten pertsonen ezagutza eta prestakuntza sustatzea; programa eta zerbitzuen kalitatea eta baliabide berrien sorrera ziurtatzea, I+G+Bren arloko jarduketak martxan jarritz.</p> <p><b>4.- Zeharkako lankidetzeta.</b></p> <p>Sailarteko lankidetzeta hobetzeko tresnak edo estrategiak ezarri nahi dira, batera jardutea eskatzen duten helburuak lortzeko; tokiko eremuan sortutako sinergieiei bide ematea, baliabideen kudeaketa hobetu eta autonomiako politiken inpaktua ziurtatzeko; autonomiaz gaindiko lankidetzeta sustatzea, kanpoaldean bizi diren galiziarrengana iritsi eta Plana gehiago hedatzeko.</p>

<b>PLANA</b>	<b>O Plan Galego das Persoas Maiores 2010-2013, Horizonte 2015</b>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Plana parte-hartze bidezko prozesu baten ondorioa izan da, eta prozesu horretan hala administrazio publikoei eta lurralde-maila guztietako mendeko erakundeei, nola Galiziako adinekoek osatutako gizataldearen interesak ordezkatzeko dituzten elkarteei eta erakunde sozial eta profesionalei egin zitzaizkien deialdia.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Jarduketa-nukleo bakoitzerako helburu eta adierazle sorta bat zehaztu da, eta aukera emango dute plana zenbateraino bete den aztertzeko, urtean-urtean. Aldi berean, jarduketa sustatzen duten erakundeak ere zehaztuko dituzte.  Jarraipen- eta ebaluazio-ekintzak funtsezko hiru fase hauetan oinarrituta egingo dira: a) aurretiazko ebaluazioa (ezarpena eta lehen hilabeteak), b) prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa (txostenak egitea) eta c) emaitzen eta eraginaren ebaluazioa (emaitzak aurkeztu eta jakitera ematea).
<b>Aldia</b>	2010-2015
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="https://benestar.xunta.es/export/sites/default/Benestar/Biblioteca/Documentos/Plans_e_programas/Plan_GalegoV3.pdf">https://benestar.xunta.es/export/sites/default/Benestar/Biblioteca/Documentos/Plans_e_programas/Plan_GalegoV3.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Plan municipal para las personas mayores 2013-2016 (Adinekoentzako udal-plana; Bartzelona)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Udalekoa - Bartzelonako Udala
<b>Printzipioak</b>	<p>Planerako 12 printzipio gidari hauek ezarri dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Adinekoak eta bizitzaldi luzea politika publikoen lehentasun bihurtzea.</li> <li>2) Autonomia pertsonalari osotasunean heltzea eta bultzada ematea, eta ardatza gaitasun, indar eta premietan jartzea. Adinekoak holistikoki hartzea.</li> <li>3) Sustapena eta prebentzioa.</li> <li>4) Parte-hartzea.</li> <li>5) Ekitatea.</li> <li>6) Familia kapital sozial gisa.</li> <li>7) Aniztasuna parte-hartze eta garapen pertsonalean, banakotasuna kontuan hartuz.</li> <li>8) Lurraldetasuna (gertutasuna eta lankidetzak komunitate bakoitzean).</li> <li>9) Zeharkakotasuna. Ikusmolde integratu, orokor eta sistemikoa.</li> <li>10) Sareko lankidetzak. Sinergiak gizarte-eragile guztien artean.</li> <li>11) Ezagutza eta etengabeko ikerkuntza ekiteko oinarri gisa.</li> <li>12) Programa, proiektu eta zerbitzuak ebaluatzea, etengabe hobetzeko eta berritzeko.</li> </ol>

<b>PLANA</b>	<b>Plan municipal para las personas mayores 2013-2016 (Bartzelona)</b>
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Lau ardatz nagusi deskribatzen dira (guztira 218 ekintza gauzatu dira), honako hauekin loturan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Adinekoak hiriko protagonista aktibo gisa: adinekoen parte-hartzea eta kalitatezko informazioaren eskuragarritasuna sustatzea herritar aktiboak sustatzeko; autonomia indartzea eta adinekoen isolamendu soziala prebenitzea, adin guztiekin lagunkoia den hiri batean.</li> <li>· Ongizatea eta osasuna: kalitateko oinarrizko gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera unibertsala bermatzea; zahartze aktiboari orokorrean hel dakiola sustatzea, zerbitzuak koordinatuz eta egokituz; eta osasuna sustatzeko baliabideak eta elkarrekiko babes- eta laguntza-sareak indartzea, kontuan hartuta, bereziki, genero-ikuspegia eta adinekoen aniztasuna.</li> <li>· Tratu ona eta berdintasunaren defentsa: adinekoen tratu ona bermatzeko konpromisoan aurrera egitea eta bereizkeriaren aurka borrokatzea, estereotipoak ikusaraziz, desberdinkeriei aurre eginez eta krisialdiaren eragina sufritzen duten adinekoentzat egokitutako erantzunak garatuz.</li> <li>· Adinekoak eta hiriko eguneroko bizitza: aurrera egitea espazio publikoaren irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzetan, baita etxebizitzaren eta ingurunearen, garraio publikoaren eta, oro har, mugikortasunaren baldintzetan ere, horien erabilera aktibo, partekatu eta komuna sustatuz.</li> </ul>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Udalaren 2012-2015 aldiko Jarduketa Programaren esparruan kokatzen da. Ez da zehaztu garapeneko gai metodologikorik, baina dokumentuan testuinguruaren azterketa sartu da.
<b>Aldia</b>	2013-2016
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	<p>Ebaluazioak nagusiki kudeaketa-adierazleak osatutako adierazle-sistema bat izango du; hala ere, kontuan hartuko dira prozesuaren adierazleak eta ingurunearen adierazleak planaren eragin orokorraren balorazioari dagokionez.</p> <p>Jarraipena egiteko, mekanismo hauek aurreikusi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Emaiza neurgarrien adierazleak, programekin lotutakoak, arduradun exekutiboekin batera adostuak, eta prozesuaren eta ingurunearen beste adierazle batzuk.</li> <li>· Planaren jarraipenaren zeharkako mahai teknikoak; plana egiten parte hartu duten eta adinekoen eguneroko bizitzarekin lotutako sailetako arduradun tekniko diren pertsonen egongo da osatua.</li> <li>· Jarraipen Batzorde Politiko eta Teknikoa; plana zenbateraino bete den balioesteko zeregina izango du.</li> <li>· Plana ebaluatzeko urteroko txostena.</li> </ul>
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="https://es.slideshare.net/Barcelona_cat/pla-municipal-per-a-les-persones-grans">https://es.slideshare.net/Barcelona_cat/pla-municipal-per-a-les-persones-grans</a>



## 2.2 NAZIOARTEA

## A. AUSTRALIA

<b>PLANA</b>	<b>Living Longer Living Better (2012-2016) (Luzeago bizi, hobeto bizi)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Australia (Mankomunitatea)
<b>Jarduketa-ardatzak eta printzipioak</b>	Erreformak 9 aurrekontu-ardatz aurreikusten ditu. Hona hemen horietako bakoitzaren gaiak: 1) etxean bizitzen jarraitzea; 2) zaintzaileei laguntza ematea; 3) egoitzako zaintza; 4) adinekoen zaintzaren profesionalak; 5) laguntza-eta ikerketa-sareak; 6) osasun- eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa; 7) demenzia; 8) integrazioa eta aniztasunari arreta jartzea; 9) etorkizunean sistemari eustea.
<b>Metodologia</b>	<p>Bost lege-proiektu egin dira.</p> <p>Erreformarako, Gobernuak kontsulta egin dio adinekoen zaintza-sisteman inplikaturako hainbat eragileri, zaintzaileei eta adinekoei barne.</p> <p>Osasun eta Zahartze Ministerioak ekintza hauek egin ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- National Conversations on Ageing: 31 bat ekitaldi, 4000tik gora lagunen parte-hartzearekin (landa-eta hiri-eremuak). Xedea: Australiako adinekoen, haien senideen eta zaintzaileen ikuspegia izatea.</li> <li>- National Aged Care Alliance batasunaren barruan lantalde bat sortu du, erreformaren funtsezko alderdien inguruan aholka dezan Gobernuak.</li> <li>- Osasun eta Zahartze Sailak kudeatutako sailarteko batzorde bat sortu du, beste sail batzuekin bildu, eta erreformak zeharkakotasunez eta ikuspegi holistikoz egiten direla bermatu dadin.</li> <li>- Aldi berean, Produktibitate Batzorde bat eratu zen, aholkulari jardun dezan. "Caring for Older Australians" (2011) dokumentua prestatu zuten.</li> </ul>
<b>Diagnostikoa</b>	Beharriaren azterketa metodologiari buruzko atalean deskribatu da.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Planak barne hartzen du Age Care Reform Implementation Council batzordeak erreformen ezarpenaren jarraipena egiteko aurrekontua, baita Gobernuarekiko mendekotasunik gabeko Age Care Financing Authority berriaren sorrera ere, finantza-gaietan aholkuak eman eta gardentasuna eta independentzia bermatu ditzen.

<b>PLANA</b>	<b>Living Longer Living Better (2012-2016) (Luzeago bizi, hobeto bizi)</b>
<b>Aldia</b>	2012. urtetik; aurreikusitako aurrekontua 5 urterako da. Erreformek, aldiz, 10 urteko iraupena izango dutela aurreikusten da.
<b>Aurrekontua</b>	3,7 mila milioi dolar. Dokumentuan, aurreikusitako helburu bakoitzaren arabera banakatuta agertzen da aurrekontua.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.health.gov.au/internet/publications/publishing.nsf/Content/">http://www.health.gov.au/internet/publications/publishing.nsf/Content/</a>

<b>PLANA</b>	<b>Plan for Positive Ageing 2010-2014: Towards an Age-Friendly City (Zahartze positiborako plana 2010-2014: adinekoekin lagunkoia den hiri baterantz)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Tokikoa - Canberra
<b>Printzipioak</b>	Nazio Batuek adinekoekin loturan emandako printzipio hauek ditu oinarri: independentzia, parte-hartzea, zainketak, autorrealizazioa eta duintasuna. Barne hartzen ditu, orobat, OMEk hiri lagunkoiei buruz emandako gidalerroak.
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	Planak funtsezko zazpi ardatz hauek ditu: <p><b>1) Informazioa eta komunikazioa:</b> pertsonak gai garrantzitsuei buruzko informazioa erraz eskuratzeko modua izan behar dute: adibidez, bizitza osasuntsua, erretiroa, laguntza-zerbitzuak eta -produktuak, prestazioak eta komunitatean parte-hartzea.</p> <p><b>2) Osasuna eta ongizatea:</b> osasunaren eta ongizatearen zaintza sustatzea, zahartze ona eta pertsonak komunitatean aktiboki parte-hartu ahal izatea ziurtatzeko.</p> <p><b>3) Errespetua, balioespina eta segurtasuna:</b> adinekoak aintzat hartuak eta errespetatuak sentitzea, eta bizitzeko toki segurua izatea.</p> <p><b>4) Etxebizitza eta bizilekua:</b> etxebizitza egokia eta eskuragarria izateko eskubidea.</p> <p><b>5) Laguntza-zerbitzuak:</b> autonomia sustatzea laguntza-zerbitzuen bitartez.</p> <p><b>6) Garraioa eta mugikortasuna:</b> adinekoek beren komunitatean erraz mugitzeko aukera izatea.</p> <p><b>7) Lana eta erretiroa:</b> erretiroaren plangintza sustatzea eta hura hartutakoan jardueretan parte-hartzea bultzatzea.</p>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Oinarritzko lerro bat neurtzea aurreikusten da, planaren ezarpenaren aurrerabidea neurtu ahal izateko. Horretarako, plana gauzatzeko jardunaren adierazle sorta bat hartuko da kontuan.
<b>Aldia</b>	5 urte
<b>Aurrekontua</b>	Ez da halakorik aipatzen.
<b>Koordinazioa</b>	Ministerio Legearen Adinekoen Aholku Batzordeak garatu du plana.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.aarp.org/content/dam/aarp/home-and-family/livable-communities/2013-12/act-strategic-plan-for-positive-aging-2010.pdf">http://www.aarp.org/content/dam/aarp/home-and-family/livable-communities/2013-12/act-strategic-plan-for-positive-aging-2010.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Prosperity Through Longevity: South Australia's Ageing 2014-2019</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa - Hego Australia
<b>Printzipioak</b>	Plana Zahartze Aktiboaren lau oinarrien (OME) esparruan kokatzen da: osasuna, parte-hartzea, segurtasuna eta bizialdi osoko ikaskuntza, bai eta Hiri Lagunkoien Sare Globalaren eta Zahartze Aktiborako Politiken oinarrietan ere.
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	Jarduteko lehentasunak hiru ardatz hauetan bildu dira: 1) Osasuna, ongizatea eta segurtasuna 2) Produktibitate sozial eta ekonomikoa 3) Komunitate lagunkoiak
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Datorren 5 urteetan egingo diren jarduerak biltzen dituen plana argitaratu aurretik, "Prosperity Through Longevity: South Australia's Ageing: Our vision" dokumentua prestatu zen, adinekoen egoera eta ekin beharreko erronka nagusiak deskribatzen zituena. Azken dokumentu hori 2013an egin zen, 3.690 pertsonari egindako inkestaren eta eztabaiden bitartez jasotako informazioa erabiliz.
<b>Diagnostikoa</b>	Plan osoaren aurrerapenak Ministerial Advisory Board on Ageing (MAB) batzordeak aztertuko ditu. Lehentasunak eta horien ondoriozko ekintzak aztertzeaz, aldiz, COTA SA (Council of the Ageing South Australia) arduratuko da. OFTAk (Office for the Ageing) informazioa emango du, adinekoen kontsultak erregulartasunez eginez.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	2016an plana berrikustea eta ordura arte egindako aurrerabidea ebaluatzea aurreikusi da.
<b>Aldia</b>	5 urte
<b>Aurrekontua</b>	Planaren dokumentuan ez da zehaztu. Zahartzearekin lotutako proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen beste dokumentu batean, jasota ageri da 2013an 781.471 \$ eman zirela adinekoentzako proiektuetarako, eta 847.800 \$, aldiz, zahartze positiboko proiektuetarako.
<b>Koordinazioa</b>	Planak barne hartzen du tokiko eta estatuko hainbat erakundeekin koordinazioan aritzea planteatutako ekintzak gauzatzeko.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.sahealth.sa.gov.au/wps/wcm/connect/public+content/sa+health+internet/about+us/publications+and+resources/plans/prosperity+through+longevity+south+australias+ageing+plan/prosperity+through+longevity+south+australias+ageing+plan">http://www.sahealth.sa.gov.au/wps/wcm/connect/public+content/sa+health+internet/about+us/publications+and+resources/plans/prosperity+through+longevity+south+australias+ageing+plan/prosperity+through+longevity+south+australias+ageing+plan</a>

## B. KANADA

PLANA	<b>Canada's Aging Population: Seizing the Opportunity (Kanadako adineko biztanleak: abagunea baliatuz)</b>
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Estatu federala - Kanada
Jarduketa-ardatzak eta printzipioak	<p>Dokumentuak kapitulutan banatutako 10 jarduketa-ardatz orokor aurreikusten ditu.</p> <p>Gai hauek jorratzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Zahartzaroarekiko estereotipo negatiboek aurka egitea (edadismoa).</li> <li>2) Zainketak koordinatzea eta integratzea.</li> <li>3) Berdintasuna herrialdeko zerbitzuak eskuratzeko.</li> <li>4) Zahartze aktiboa hiri lagunkoietan eta landa-komunitateetan.</li> <li>5) Pobrezia desagerraraztea.</li> <li>6) Zaintzaileei laguntzea.</li> <li>7) Boluntario-sektoreari laguntzea.</li> <li>8) Osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetako langileak.</li> <li>9) Ikerkuntza eta teknologia berriak txertatzea.</li> <li>10) Biztanle talde federalak.</li> </ol> <p>Aldi berean, Senatuko Zahartze Batzordeak egindako proposamen hauetan laburbildu daitekeen gomendio zerranda bat ere egin da.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Berehala hartzea zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzeko neurriak eta diskriminazioaren aurka borrokatzekoak.</li> <li>b) Lidergoa eta koordinazioa ematea Arreta Integraleko Ekimen Nazionalaren bitartez, Zaintzaileentzako Estrategia eta Pharmacare gisako programa nazionalak eta transferentzia federala egitea, adinekoen proportzio handienak dituzten probintzien premiei erantzuteko.</li> <li>c) Kanadarren segurtasun finantzarioa bermatzea adineko langileen premiei erantzuteko, eta pentsio-sisteman erreformak aurreikustea.</li> <li>d) Kanadar adinduei berek erabakitako toki egoki batean bizitzeko modua eta garraioa erabiltzeko aukera ematea, eta eskaintzen diren zerbitzuetan koordinazio soziosanitarioa egotea.</li> </ol>

<b>PLANA</b>	<b>Canada's Aging Population: Seizing the Opportunity (Kanadako adineko biztanleak: abagunea baliatuz)</b>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	2006an programa eta zerbitzu publikoei buruzko berrikuspena abian jarri ziren, horietan falta ziren alderdiak identifikatu ziren, eta hurrengo urteetan biztanleria zahartzearen ondorioz izango diren inplikazioak identifikatu ziren. Azterlanak hiru fase hauek izan zituen: 1) barne-txosten baten egitea, 2) txostena xeheki berrikustea eta kanadar adinduen erakundeei inkesta bat bidaltzea, eta 3) dokumentua ebaluatzea, aditu talde batek berrikusi ondoren.
<b>Aldia</b>	2009an sortua
<b>Aurrekontua</b>	Ez da aurreikusi.
<b>Koordinazioa</b>	Gobernu Federalak zeregin nagusia betetzen du helburuak lortzeko, baina jurisdikzio guztien buru eta koordinatzaile da. Dokumentuan aipatutakoaren arabera, planaren hiruhileko bakoitzean parte hartu eta kooperatu behar duten hainbat maila daude tartean.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.parl.gc.ca/content/sen/committee/402/agei/rep/aging-finalreport-e.pdf">http://www.parl.gc.ca/content/sen/committee/402/agei/rep/aging-finalreport-e.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Action for Seniors (Kanadako gobernuak adinekoentzat egindako programa eta ekimenen berrikuspena)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatu Federala - Kanada
<b>Printzipioak eta jarduketara-ardatzak</b>	<p>Dokumentuan, Kanadan adinekoekin loturan egindako politika eta programak jaso, eta interes nagusiko 6 gaietan bildu dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Adinekoen segurtasun finantzarioa bermatzea.</li> <li>2) Parte-hartze aktiboa sustatzea, hala lanean nola komunitatean.</li> <li>3) Etxean zahartzen laguntzea.</li> <li>4) Zahartze aktibo eta osasungarria indartzea.</li> <li>5) Adinekoenganako tratu txarren aurka borrokatzea.</li> </ol> <p>Oso adineko biztanleek informazioa jasotzeko eta erabilgarri dituzten zerbitzuak eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.</p>
<b>Metodologia eta koordinazioa</b>	2006. urtetik aurrera, Kanadako Enplegu eta Gizarte Garapenerako Ministerioa buru duen Sailarteko Batzorde bat dago, eta adinekoekin lotutako diziplina guztiak ardatzen ditu. 22 sail federal eta bulego baino gehiago koordinatu dira.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ez dira zehaztu.
<b>Aurrekontua</b>	Programaren araberakoa.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.seniors.gc.ca/build/theme-sc-ac/pdf/action_report_for_seniors.pdf">http://www.seniors.gc.ca/build/theme-sc-ac/pdf/action_report_for_seniors.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Living Longer, Living Well (Ontario) (Luzeago bizi, ondo bizi)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa - Ontario (Kanada)
<b>Jarduketa-ardatzak eta printzipioak</b>	<p>Plana printzipio hauen gainean bermatzen da: sarbidearen printzipioa, ekitatearena, aukerarena, balioarena eta kalitatearena.</p> <p>Estrategia honetan jasotako gomendioak jarduketa-ardatz hauetan egituratu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasuna eta ongizatea sustatzea</li> <li>- Adinekoentzako lehen mailako arreta indartzea</li> <li>- Etxeko eta komunitateko zerbitzu eta prestazioak hobetzea</li> <li>- Patologia akutua duten adinekoentzako arreta hobetzea</li> <li>- Ontarion iraupen luzeko zainketetarako etxeko arreta hobetzea</li> <li>- Adinekoen behar bereziei erantzutea</li> <li>- Sendagaiak eta zahartzea</li> <li>- Zaintzaileak zaintzea</li> <li>- Edadismoari eta adinekoenganako tratu txarrei aurka egitea</li> <li>- Adineko aborigenen beharrei heltzea</li> <li>- Komunitate lagunkoia garatzeko laguntza ematea</li> <li>- Ontarioko adinekoak ardatz dituen Estrategia babestea</li> <li>- Estrategiaren mandatua eta aplikazioa ezartzea</li> </ul>



PLANA	Living Longer, Living Well (Ontario) (Luzeago bizi, ondo bizi)
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	<p>Osasunaren eta Iraupen Luzeko Ministerioaren barruan talde bat ezarri zen, Adinekoentzako Estrategiaren buru izateko; aldi berean, Ontarioko Adinekoen idazkariaren babesa jaso zuen.</p> <p>Lanari ekiteko, hainbat jurisdikziotan adinekoek egindako eta adinekoentzat gauzatutako estrategia, ikuspegi eta jardunbideak berrikusi ziren.</p> <p>Hala argitaratutako dokumentuak nola argitaratu gabeak sartu ziren barne, baita txosten, datu eta analisiak ere, ez Ontarion egindakoak soilik. Kontuan hartu zen, jurisdikzioak aukeratzean, adinekoekin lotutako eremuetakoren batean aurrekari izatea. Gainera, adituek aurrez egindako txosten hauek bildu ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ontarioko zerbitzu publikoak: Iraunkortasunerako eta Bikaintasunerako bidea.</li> <li>- Adinekoak zainduz eta zainketa alternatiboetarantz bideratuz.</li> <li>- Zainketa-prozesua hobetzea.</li> <li>- Zahartzaro osasungarria Kanadan: ikuspegi berria, bizitzeko inbertsioa.</li> <li>- Kanadako biztanleen zahartzea: abagunea baliatuz.</li> </ul> <p>Kontsulta-prozesuan, ekipoak zenbait dokumentu gehigarri partekatu eta berrikusi zituen. Profesionalen eta adinekoen kolektiboen iritzia jasotzeko, hainbat probintzian banatutako inkesta bat egin zen. Ontarioko 5000 adinduk baino gehiagok bete zuen, eta 3.500 profesionalak baino gehiagok (osasungintzakoak, gizartearen arlokoak eta beste batzuetakoak). Txostenaren gomendioak egitean eta ondorioak ateratzean, lehentasuna eman zitzaion iritzi horiei.</p>
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ez dira zehaztu. Jarraitu beharreko gida nagusiak biltzen dituen dokumentu bat da
<b>Aldia</b>	2013an sortua
<b>Aurrekontua</b>	Ez da aurreikusi
<b>Koordinazioa</b>	Ardatz estrategikoaren arabera. Aipatzen duenez, beharrezkoa izango da gobernuko, komunitateko eta tokiko eragileen arteko koordinazioa.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.health.gov.on.ca/en/common/ministry/publications/reports/seniors_strategy/docs/seniors_strategy.pdf">http://www.health.gov.on.ca/en/common/ministry/publications/reports/seniors_strategy/docs/seniors_strategy.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Aging Population Policy Framework (Adineko biztanleentzako estrategia politikoa)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa – Alberta (Kanada)
<b>Jarduketa-ardatzak eta printzipioak</b>	<p>Dokumentuak zortzi eremu nagusi hauetan jardutea proposatzen du:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Segurtasun finantzarioa eta diru-sarrerak.</li> <li>2. Etxea eta toki egokian zahartzea.</li> <li>3. Arreta jarraitua.</li> <li>4. Zahartze aktiboa eta osasun-laguntza.</li> <li>5. Garraioa eta mugikortasuna.</li> <li>6. Babesa eta segurtasuna.</li> <li>7. Laguntza-komunitateak.</li> <li>8. Gobernurako sarbidea.</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	<p>Albertako Gobernuak estrategia sorta bat garatu zuen dokumentua egin baino lehen, adinekoen premiei lotutako zenbait auzi jorratzeko. Hona hemen horietako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Arreta jarraiturako estrategia – Toki egokian zahartzea;</li> <li>-2020 ikuspegia – Osasunaren eta zainketa etorkizuna Albertan;</li> <li>-Biharamuneko herritarrak eratzuz eta heziz; eta,</li> <li>-Familia barruko indarkeria eta larderia prebenitzeko estrategia.</li> </ul> <p>Aztertutako dokumentuak aurreko horiek osatzen ditu, Gobernuak adinekoen premiei dagokienez zer zeregin eta erantzukizun dituen taxutuz.</p> <p>2008ko maiatzean Demografia Plangintzako Batzordea eratu zen. Tarteko eragileen aholkularitza eta kontsultarako elkarrizketa sorta bat egin zen, adinekoengan interesatutako 100etik gora erakunderen parte-hartzearekin, baita online bidez betetako azterlan zabala ere, Albertako askotariko adin eta udalerritako 10.000 pertsonen parte-hartzearekin.</p>
<b>Aldia</b>	2010. urtea
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ardatz bakoitzeko lortu beharreko emaitza multzo bat aurreikusi zen, baina ez zen zehaztu horiek ebaluatzeko modua.

<b>PLANA</b>	<b>Aging Population Policy Framework (Adineko biztanleentzako estrategia politikoa)</b>
<b>Koordinazioa</b>	Dokumentuaren xedeetako bat zen ministerio-mailan lankidetzaren hobetzea, adinekoen hainbat alderditaz arduratzen diren ministerio guztien aldetik, bai eta, horrez gain, tarteko eragile guztien mailan ere: Gobernuak, senideak eta ingurunea, sektore pribatua eta hirugarren sektorea, udalerrriak eta beste batzuk.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.health.alberta.ca/documents/Aging-Population-Framework-2010.pdf">http://www.health.alberta.ca/documents/Aging-Population-Framework-2010.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Age Friendly Manitoba: Creating communities committed to healthy, active aging (Manitoba adinekoekin lagunkoi: zahartze aktibo eta osasungarriaz arduratzen diren komunitateak sortuz)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa – Manitoba (Kanada)
<b>Printzipioak eta jarduketa-ardatzak</b>	<p>Dokumentuaren funtsezko alderdiek lagunkotasun kontzeptua dute ardatz, baina baita parte-hartze sozialarekin eta zahartze aktiboarekin lotutako beste helburu batzuk ere. Hona hemen proposatutako ardatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aire zabaleko guneak eta eraikin atsegín, seguru eta irisgarriak izatea.</li> <li>- Ongi diseinatutako etxe-aukerak izatea, eskuragarriak eta adinekoentzat egokiak eta seguruak.</li> <li>- Espaloi eta bide irisgarriak gehitzea.</li> <li>- Garraio publiko eskuragarri eta irisgarriaren alde lan egitea.</li> <li>- Harreman begirunetsuak sustatzea adin guztietako pertsonen artean.</li> <li>- Osasuna eta komunitateko zerbitzuak sustatu eta babestea.</li> <li>- Aukerak ematea adinekoiei beren astialdian sozialki aktiboak izateko eta jarduera sozial kultural nahiz espiritualak egiteko.</li> <li>- Boluntarioran eta/edo beste hiri- nahiz lan-jarduera batzuetan parte hartzea erraztea.</li> </ul> <p>Informazio erraza eta eskuragarria ematea taldearekin komunikazio egokia errazteko.</p>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Ekimena 2008an jarri zen martxan, eta Adinekoen eta Zahartze Osasungarriaren Idazkaritzak (Seniors and Healthy Aging Secretariat) zuzentzen du, Bizitza Osasungarriako, Adinekoentzako eta Kontsumitzaile Gaietarako Sailarekin (Healthy Living, Seniors and Consumer Affairs) batera.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ez dira aurreikusi.
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.

<b>PLANA</b>	<b>Age Friendly Manitoba: Creating communities committed to healthy, active aging (Manitoba adinekoekin lagunkoi: zahartze aktibo eta osasungarriaz arduratzen diren komunitateak sortuz)</b>
<b>Koordinazioa</b>	<p>Manitobatik OMErekin eta Osasun Publikoaren Kanadako Bulegoarekin lanean dihardute, adineko biztanleen parte-hartzea, osasuna, independentzia eta segurtasuna handitzen lagunduko duten komunitate lagunkoiak sortze aldera.</p> <p>Halaber, hainbat eragilerekin elkartu da Manitoba (Association of Manitoba Municipalities, the Manitoba Chambers of Commerce, Rural Development Institute, the University of Manitoba's Centre on Aging, eta Manitoba Association of Senior Centres elkartearen moduko beste erakunde batzuk), adinekoek komunitateko bizitzaz gozatzeko ahal bezainbeste aukera dituztela bermatzeko eta etxean zahartzeko aukera izan dezaten.</p>
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.healthincommon.ca/wp-content/uploads/2013/07/age-friendly_booklet.pdf">http://www.healthincommon.ca/wp-content/uploads/2013/07/age-friendly_booklet.pdf</a>

**C. AMERIKAKO ESTATU BATUAK (AEB)**

<b>PLANA</b>	<b>New York State Plan on Aging (New York Estatuko Zahartze Plana)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa – New York

PLANA	New York State Plan on Aging (New York Estatuko Zahartze Plana)
Jarduketa-ardatzak eta printzipioak	<p>Plana bat dator Zahartzeari buruzko Administrazioak hiru alor hauetan proposatutako ikuspegiarekin: adineko herritarrentzako programak eta oinarritzko legeak; Zahartzeari buruzko Administrazioak emandako diru-laguntzak; kontsumitzaileen kontrola eta aukeratu ahal izatea.</p> <p>Estrategia bost ardatz nagusi hauen inguruan dago egituratuta:</p> <p><b>1. ardatza.-</b> Osasunari eta iraupen luzeko zainketei buruzko erabaki informatuak hartzea erraztea, bai adinekoek, bai familiei eta inguruko beste pertsona batzuei. Aldi berean, garraio-zerbitzuen erabilera erraza, informazioa, eta laguntza eta kasuen kudeaketa indartzea.</p> <p><b>2. ardatza.-</b> Hiriko adinduei beren etxeetan al bait luzeen bizitzen jarraitzeko aukera ematea, bizi-kalitate handia bermatuz. Horretarako, zerbitzuak emango dira etxean eta komunitatean, zainketa informalak egiten dituztenei laguntza ematea barne.</p> <p>Era askotako zerbitzuak eskaintzen dira: etxean ardatutakoak (In-Home Contact and Support, Supporting Aging in Place), nutrizio-alderdierdietan oinarritutakoak (Nutrition Program for the Elderly), familia-zaintzaileei emandakoak (National Family Caregiver Support Program, Respite Services, Social Adult Day Services, New York State Family Caregiver Council) eta biztanle talde jakin batzuk gogoan izanik pentsatu direnak, adibidez, gerra-beteranoentzakoak (Veterans Directed Home and Community based Services Program).</p> <p><b>3. ardatza.-</b> Zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzea adinean aurreratuen dauden herritarrentzako zerbitzuen legearen bitartez, eta osasunaren prebentzioa eta sustapena egitea, osasun-aseguru publikoaren –Medicare– bitartez.</p> <p>Bai gaixotasuna prebenitzeko eta osasuna sustatzeko zerbitzuak (National Family Caregiver Support Program, Respite Services, Social Adult Day Services, New York State Family Caregiver Council), bai autonomia eta bizitza luzeagoa sustatzeko jardueretan ardatutakoak eskaintzen dira (Civic Engagement and Volunteerism, Retired Senior Volunteer Program, Foster Grandparent Program, Older American Community Service Employment Program).</p> <p><b>4. ardatza.-</b> Adinekoen eskubideak bermatzea eta abusua, arretra falta eta esplotazioa galaraztea. Horretarako, honelako lege-zerbitzuak eskaintzen dira: Legal Assistance Program, New York State Long-Term Care Ombudsman Program, SMP (formerly, Senior Medicare Patrol Program), Elder Abuse Education and Outreach Program.</p> <p><b>5. ardatza.-</b> Gaur egungo jardunbideak hobetzea, hala kudeaketari nola eragiketeki dagokienez, eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzea. Horretarako, informazioa bilduko da gauzatzen diren programa, zerbitzu eta ekimenen bitartez. Kalitateko datuak izateko lan egingo da, bildumatuta eta azterketak egiteko moduan. Informazioa bilduko da proiektuen errendimenduari buruz, eta eguneroko gaietan eta parte-hartze zibilean aukera-berdintasuna dagoen eta dibertsitatea kudeatzen den jakiteko. Orobat, baita gobernuarteko lankidetzeta eta larrialdi kasuetarako protokoloak eta prestaketa dagoen jakiteko ere.</p>

PLANA	New York State Plan on Aging (New York Estatuko Zahartze Plana)
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Plana era askotako informazio-iturriak erabiliz gauzatu da: NYSOFA (New York State Office for the Aging) bulegoak egindako azterlanak, zahartzearen alorreko agentziek lortutako informazioa, eta estatu-mailako komunitate-foroetan eta Estatuko Bulegoak, Aholku Batzordeek eta Estatuko Agentziara elkartutakoek antolatutako bileretan bildutakoa.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Planak helburu bakoitzerako jasotzen du espero diren emaitzen deskribapena eta horien betetze-data.
<b>Aldia</b>	Lau urteko aldia (2011-2015)
<b>Aurrekontua</b>	Dokumentuan, kokapenaren eta zerbitzu motaren arabera esleitutako finantzazioa banakatzen da, baita estatuko agentziek jarduerak egiteko eska ditzaketen baliabideak ere.
<b>Koordinazioa</b>	Aurreikusitakoaren arabera, adineko biztanleei zerbitzu ematen dieten erakunde publiko eta pribatuen sarearekin lankidetzan ezarriko da plana.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.aging.ny.gov/NYSOFA/PlanOnAging.pdf">http://www.aging.ny.gov/NYSOFA/PlanOnAging.pdf</a>



<b>PLANA</b>	<b>National Plan To Address Alzheimer's Disease (Alzheimerren gaixotasunari heltzeko Plan Nazionala)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Sektorekoa: demenziak (Alzheimer)
<b>Eremu geografikoa</b>	AEB
<b>Printzipioak</b>	<p>Hiru printzipio hauek gidatzen dute plana:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Lehendik dauden baliabideak optimizatzea eta aribideko jarduerak hobetu eta koordinatzea.</li> <li>2) Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarketei babesa ematea.</li> <li>3) Alzheimerren gaixotasunera hurbiltzeko modua eraldatzea.</li> </ol>

PLANA	National Plan To Address Alzheimer's Disease (Alzheimerren gaixotasunari heltzeko Plan Nazionala)
Jarduketa-ardatzak	<p><b>1. ardatz estrategikoa.- Alzheimerren gaixotasuna eraginkortasunez prebenitu eta tratatzea 2025 urterako</b></p> <p>Lehentasuna eman behar zaio ikerketaren erritmoa azkartzeari, eta ziurtatu behar da frogetan oinarritutako soluzioak azkar identifikatzen direla, baita gauzatzen ere, Alzheimerren gaixotasuna dutenek ezagutza zientifiko handiagoaren onurak jasoko dituztela ziurtatuz.</p> <p><b>2. ardatz estrategikoa.- Kalitatea eta efizientzia hobetzea</b></p> <p>Ezagutza egokiak dituzten profesional trebatuak izan behar dira (lehen mailako arreta, gizarte-zerbitzuak eta komunitatekoak), zehaztasunez baloratu, eta hobetzeko tresnak erabili.</p> <p><b>3. ardatz estrategikoa.- Alzheimerren gaixotasuna dutenentzako eta haien familientzako babesa handitzea</b></p> <p>Erakunde ofizialetan (medikuak, ospitaleak edo egoitzak) emandako arretaz harago doazen laguntza-premiak dituzte. Familiek eta gainerako zaintzaile informalek funtsezko zeregina betetzen dute. Alzheimerren gaixotasuna dutenei, haien familiei eta haiek zaintzen dituztenei laguntza emateko, etorkizuneko premiak planifikatzen laguntzeko behar dituzten tresnak eman behar zaizkie, eta segurtasuna eta duintasuna bermatu.</p> <p><b>4. ardatz estrategikoa.- Herritarren sentsibilitatea eta parte-hartzea hobetzea.</b></p> <p>Herritar gehienak Alzheimerren gaixotasunaren jakitun dira; itaundutakoen % 85ek baino gehiagok identifika ditzake gaixotasuna eta haren sintomak. Baina badira zenbait ideia eta uste oker, diagnostikoaren atzerapena eta gizartean duen estigma indartzen dituztenak. Alzheimerren gaixotasuna hobeto ulertzen bada, errazagoa izango da gaixotasuna dutenei eta haien familiei gaixotasunak dakartzan erronkei aurre egiten lagundu diezaiaketen interesdun guztiek parte hartzea. Helburu honen esparruko estrategiak eta ekintzak talde jakin batzuk gaixotasunaren inguruan hezteko diseinatu dira.</p> <p><b>5. ardatz estrategikoa.- Planaren aurrerabidearen jarraipena.</b></p> <p>Ahaleginak egingo dira datuen azpiegitura zabaldu eta hobetzeko, eta gobernu federaleko agentziei eta beste ikertzaile batzuei horiek erraz eskuratzeko modua emateko. Datuen azpiegiturak egin den aurrerabidea ebaluatzen lagunduko du; izan ere, hainbat mailatan gainbegiratu da.</p>

<b>PLANA</b>	<b>National Plan To Address Alzheimer's Disease (Alzheimerren gaixotasunari heltzeko Plan Nazionala)</b>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Kontsulta egin zaie Alzheimerrean interesa duten alderdiei, Gobernu Federal barruan nahiz kanpoan. Gaixotasun horri aurre egiteko planifikatu diren lanen artean lehenengoa da Plana. Bertan sartu dira 2013tik ikerketa zientifikoan izandako ekimen eta emaitza nagusiak.
<b>Aldia</b>	Plana 2012. urtean sortu zen; aztertutako dokumentua planaren bigarren eguneraketa da (2014).
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Planak eranskin bat du (2. eranskina), eta bertan jaso dira ebaluatzeko modua eta beharrezko adierazleak. Bete beharreko mugarrak xehatu dira, baita horietako bakoitzaren ardura duten erakundeak, beste erakundeekin elkartzeak eta horietako bakoitza betetzeko data ere.
<b>Koordinazioa</b>	Plan Nazionalak sektore publiko eta pribatuko ahaleginak koordinatzea eskatzen du. Kontseilu Aholku-emailearekin etengabeko elkarriketan, Gobernu Federalak aurrera egiteko alor itxaropentsuenak identifikatuko ditu, abagune horietan jardun ahal izateko.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://aspe.hhs.gov/daltcp/napa/NatlPlan2014.shtml">http://aspe.hhs.gov/daltcp/napa/NatlPlan2014.shtml</a>

<b>PLANA</b>	<b>ACL Strategic Plan (2013-2018) (Komunitateko bitzita administratzeko plan estrategikoa)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	AEB
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Dokumentuak bost xede nagusi ezartzen ditu. Hauek dira:</p> <p><b>1. XEDEA.- Defentsa.</b> Adinekoen, desgaitasuna dutenen eta haien familien interesak zaintzea, eta interes horiek programa eta politika publikoen diseinuan eta ezarpenean jasotzea.</p> <p><b>2. XEDEA.- Eskubideen babesa eta tratu txarren prebentzioa.</b> Adinekoen eta desgaitasuna dutenen eskubideak babestu eta sustatzea, eta abusuak, tratu txarrak eta abandonua prebenitzea.</p> <p><b>3. XEDEA.- Autodeterminazioa eta kontrola.</b> Honako hauen mesederako lan egitea: komunitatean parte hartzea, erabakiak hartzeko eskubide osoa baliatzea, eta nor bere independentziaren, ongizatearen eta osasunaren gaineko kontrola izatearekin lotutako beste gai batzuk.</p> <p><b>4. XEDEA.- Iraupen ertain-luzeko zerbitzuak eta laguntzak.</b> Komunitatean bizi diren adinekoei aukera ematea kalitatezko zerbitzuak eskuratu eta baliatzeko, familia eta zaintzaileei babesa ematera bideratutakoak barne.</p> <p><b>5. XEDEA.- Kudeaketa eraginkor eta malgua.</b> Jardunbide egokiak ezartzea adinekoentzako eta desgaitasuna dutenentzako programen osotasuna eta eraginkortasunari eusteko, eta zergadunek emandako dirua egoki kudeatzen eta administratzen dela ziurtatzea.</p>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	<p>Osasun eta Zerbitzu Sailak (U.S. Department of Health and Human Services, 2012) erakunde berri bat sortu zuen 2012an: Komunitate Bizitzaren Administrazioa (ACL).</p> <p>Dokumentu hori da ACLren bi azpialorren –Zahartzeari buruzko Administrazioa eta Adimen eta Garapen Desgaitasunari buruzkoa– ahaleginak eta lorpenak jasotzen dituen lehen plan estrategikoa.</p>
<b>Aldia</b>	2013-2018
<b>Aurrekontua</b>	2014. urterako aurrekontuak esteka honetan kontsultatu daitezke: <a href="http://www.acl.gov/About_ACL/Budget/ACL-FY2014-funding-information.aspx">http://www.acl.gov/About_ACL/Budget/ACL-FY2014-funding-information.aspx</a>
<b>Koordinazioa</b>	Finkatutako helburuak lortzeko, sektoreko erakundeekin, elkarrekin, senideekin eta adinekoekin elkarlanerako sareak sortzea proposatzen dute.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.acl.gov/About_ACL/StrategicPlan/docs/ACL_Strategic_Plan.pdf">http://www.acl.gov/About_ACL/StrategicPlan/docs/ACL_Strategic_Plan.pdf</a>

PLANA	Washington State Plan on Aging (Washington Estatuko Zahartze Plana)
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Estatukoa - Washington
Printzipioak eta jarduketa-ardatzak	<p>Planak lau jarduketa-ardatz hauek ezartzen ditu:</p> <p><b>1. ARDATZA.-</b> Adinekoen segurtasuna eta babesa hobetzea eta haien eskubideak bermatzea. Abusua, arreta falta eta esplotazioa prebenitzea, eta adinekoen eta desgaitasuna dutenen beharrak barne hartzen dituzten larrialdi-planak izatea.</p> <p><b>2. ARDATZA.-</b> Medicaid-en sartzea prebenitzeko edo atzeratzeko behar diren zerbitzuak, eta babesak zabaltea eta indartzea.</p> <p><b>3. ARDATZA.-</b> Adinekoek beren etxebizitzetan bizitzen jarraitzeko bide ematea eta haien bizi-kalitateari eustea. Estatuko komunitate-zerbitzuen sistema indartzea, baita etxebizitzarekin lotutakoena ere.</p> <p><b>4.- ARDATZA.-</b> Osasun-egoera hobetzea, adinekoen eta desgaitasuna dutenen kolektiboa ahaldunduz. Helburua zahartze osasungarri eta aktiboa indartzea da, osasuneko eta epe ertain eta luzera babesa emateko zerbitzu eta programa integratuen bitartez.</p>
Metodologia eta diagnostikoa	Plana berrikusteko ardura zuten organoen arteko sare bat ezarri zen (The State Council on Aging, the Area Agencies on Aging, Tribal Governments eta beste eragile interesdun batzuk). Horrez gain, kontsulta egin zitzaizen Etxeko eta Komunitateko Zerbitzu eta Programen zuzendariei.
Ebaluazioa eta adierazleak	Ardatz bakoitzak helburu zehatz batzuk jasotzen ditu, baita horiek betetzen direla bermatzeko neurri jakin batzuk ere.
Aldia	2014-2018
Aurrekontua	Planaren dokumentuan ez da zehaztu.
Koordinazioa	Zeregin estrategikoak dituzten hainbat unitate daude eta elkarrekin koordinatzen dira plana kalitatezkoa dela eta betetzen dela bermatzeko (Quality Assurance Unit, State Unit on Aging, Home and Community Programs Unit, Clinical Effective and Performance Improvement (CEPI) Unit, Adult Protective Services (APS) Unit, Area Agency on Aging and Home and Community Services Field Supervisors eta Waiver Management Committee).
Dokumentua eskuratzeko	<a href="http://www.altsa.dshs.wa.gov/about/documents/State%20Plan%20on%20Aging%202014-2018.pdf">http://www.altsa.dshs.wa.gov/about/documents/State%20Plan%20on%20Aging%202014-2018.pdf</a>

## D. FRANTZIA

<b>PLANA</b>	<b>Plan Solidarité Grand Âge (Adinekoekiko elkartasuneko plana)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa - Frantzia
<b>Printzipioak</b>	OMEk (2002) proposatutako zahartze aktiboaren paradigmen barruan kokatzen da.
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Planak bederatzi ardatz estrategiko hauek jasotzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ardatza. Zahartzearekin lotutako arriskuei antzematea eta aurrea hartzea.</li> <li>2. ardatza. Dieta orekatua sustatzea 55 urtetik gorakoak sasoiari mantentzeko.</li> <li>3. ardatza. Adinean aurreratuen dauden biztanleen artean ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak sustatzea.</li> <li>4. ardatza. Arrisku-faktoreak hautematea eta adinekoen bizi-kalitatean eragiten duten patologiai prebenitzea.</li> <li>5. ardatza. Sendagaien erabilera egokia sustatzea.</li> <li>6. ardatza. Belaunaldien arteko elkartasuna eta elkarreragina erraztea, zahartze onaren funtsezko alderdi gisa.</li> <li>7. ardatza. Plana toki-mailan garatzea.</li> <li>8. ardatza. Planaren alorretan ikerkuntza eta berrikuntza garatu eta indartzea.</li> <li>9. ardatza. Europako dimentsioa Frantziako ikuspegiaren barruan txertatzea.</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Dokumentuak berezko atal bat du; bertan, Frantziako zahartzea testuinguruan kokatzen da eta adierazle estatistiko nagusiak deskribatzen dira.
<b>Aldia</b>	2007-2009
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ardatz bakoitzak hainbat jarduketa-puntu hartzen ditu barne, eta horietan testuingurua, helburu zehatzak eta gauzatuko diren neurri zehatzak deskribatzen da dira.
<b>Aurrekontua</b>	Hartutako neurri batzuetarako erabilgarri dagoen finantzaketa agertzen da.
<b>Koordinazioa</b>	Erakunde arduradunak zein izango diren planteatzen du helburu operatibo bakoitzerako eta hartutako neurri bakoitzerako.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.cnsa.fr/IMG/pdf/plan_solidarite_grand_age-2.pdf">http://www.cnsa.fr/IMG/pdf/plan_solidarite_grand_age-2.pdf</a>

PLANA	Plan national "Bien vieillir " 2007-2009 ("Zahartze ona" Plan Nazionala 2007-2009)
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Estatukoa - Frantzia
Printzipioak	OMEk (2002) proposatutako zahartze aktiboaren paradigmatikaren barruan kokatzen da.
Jarduketa-ardatzak	Planak bederatzi ardatz estrategiko hauek jasotzen ditu: <b>1. ardatza.</b> Zahartzearekin lotutako arriskuei antzematea eta aurrea hartzea. <b>2. ardatza.</b> Dieta orekatua sustatzea 55 urtetik gorakoak sasoiari mantentzeko. <b>3. ardatza.</b> Adinean aurreratuen dauden biztanleen artean ariketa fisikoa eta kirol-jarduerak sustatzea. <b>4. ardatza.</b> Arrisku-faktoreak hautematea eta adinekoen bizi-kalitatean eragiten duten patologiak prebenitzea. <b>5. ardatza.</b> Sendagaien erabilera egokia sustatzea. <b>6. ardatza.</b> Belaunaldien arteko elkartasuna eta elkarreragina erraztea, zahartze onaren funtsezko alderdi gisa. <b>7. ardatza.</b> Plana toki-mailan garatzea. <b>8. ardatza.</b> Planaren alorretan ikerkuntza eta berrikuntza garatu eta indartzea. <b>9. ardatza.</b> Europako dimentsioa Frantziako ikuspegiaren barruan txertatzea.
Metodologia eta diagnostikoa	Dokumentuak berezko atal bat du, eta bertan Frantziako zahartzea testuinguruan kokatzen da eta adierazle estatistiko nagusiak deskribatzen dira.
Aldia	2007-2009
Ebaluazioa eta adierazleak	Ardatz bakoitzak hainbat jarduketa-puntu hartzen ditu barne, eta horietan testuingurua, helburu zehatzak eta gauzatuko diren neurri zehatzak deskribatzen da dira.
Aurrekontua	Hartutako neurri batzuetarako erabilgarri dagoen finantzaketa agertzen da.
Koordinazioa	Erakunde arduradunak zein izango diren planteatzen du helburu operatibo bakoitzerako eta hartutako neurri bakoitzerako.
Dokumentua eskuratzeko	<a href="http://travail-emploi.gouv.fr/IMG/pdf/presentation_plan-3.pdf">http://travail-emploi.gouv.fr/IMG/pdf/presentation_plan-3.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Projet de loi relatif à L'adaptation de la société au vieillissement (Gizartea zahartzera egokitzeari buruzko Legearen proiektua)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Estatukoa – Frantzia
<b>Jarduketaradatzak</b>	<p>Gizartea zahartzera egokitzeke legeak hiru habe bereizezin ditu oinarrian:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrea hartzea: autonomia-galera prebenitzeko, bai banakoari dagokionez, bai taldeari dagokionez. Adina autonomia-galeraren arriskua handitzen duten gizarte-eta osasun-desberdintasunak azkartzen dituen faktore bat da. Funtsezkoa da arrisku-faktoreak prebenitzea eta kontuan hartzea; horri esker, batetik, behar den guztietan proposatu ahal izango dira prebentzio-programak eta, bestetik, errazagoa izango da laguntza teknikorak jotzea.</li> <li>- Gure gizartea egokitzea: adinak ez du diskriminazio-edo bazterketa-faktore izan behar; zahartzearen gaineko begirada aldatu behar da. Horretarako, gizarte-harreman berriak sortu behar dira, belaunaldiak elkar hurbilduz, baina baita adinekoren eskubideak berretsi ere, ez daitezen bazter utzi. Komeni da politika publiko guztiak berriz pentsatzea, bereziki etxebizitzari, hirigintzari eta garraioei, eta abarrei dagokienez. Aldi berean, berrikuntza teknologikoa eta ekipo domotikoen ekoizpena sustatu behar da Frantzian, ager litezkeen premiak estaltzeko eta zahartzearen arloko industria-sektorearen indartzea bultzatzeko. Gizartearentzat pizgarri bat da, enpleguei, industria-garapenari eta hazkunderari dagokienez.</li> <li>- Autonomia-galeran lagun egitea: lehentasunezkoa da hala nahi dutenei beren etxebizitzetan bizitzen jarraitzeko aukera ematea, baldintza onak bermatuz. Halaber, aintzat hartu behar da familien eta hurkoren lana, hainbatetan ematen duten laguntza dela eta. Adinekoei komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko erraztasunak eman behar zaizkie, eta haien aukera-askatasuna errespetatu behar da.</li> </ul>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Dokumentuak berezko atal bat du; bertan, Frantziako zahartzea testuinguruan kokatzen da eta adierazle estatistiko nagusiak deskribatzen dira.
<b>Aldia</b>	2014
<b>Aurrekontua</b>	Dokumentuan ez da zehaztu.
<b>Koordinazioa</b>	Hiru habeetako helburu bakoitzaren erantzule izan daitezkeen erakundeei buruzko informazioa jasotzen du.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="https://www.legifrance.gouv.fr/affichLoiPreparation.do?idDocument=JORFDOLE000029039475&amp;type=general&amp;typeLoi=proj&amp;legislature=14">https://www.legifrance.gouv.fr/affichLoiPreparation.do?idDocument=JORFDOLE000029039475&amp;type=general&amp;typeLoi=proj&amp;legislature=14</a>



## E. ESKANDINAVIAKO HERRIALDEAK

<b>PLANA</b>	<b>High-Quality Services for Older People (Kalitate handiko zerbitzuak adinekoentzat)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Finlandia
<b>Printzipioak</b>	<p>Dokumentuaren esparrua osatzen eta zahartzaro duina sustatzen duten printzipio etikoak aipatzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Determinazio askea</li> <li>- Baliabideetara bideratzea</li> <li>- Berdintasuna</li> <li>- Parte-hartzea</li> <li>- Banakotasuna</li> <li>- Segurtasuna</li> </ul>
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Dokumentuan, kalitatea eta eraginkortasuna hiru alderdi hauetan bultzatzeko ezarri diren estrategiak deskribatzen dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Osasuna eta ongizatea sustatzea, eta zerbitzu-egitura bat garatzea.</li> <li>2) Langileak eta haien trebeziak kudeatzea.</li> <li>3) Bizitza, arreta eta zainketak zahartzean.</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	<p>Dokumentua aurreko esparrua berrikusteko prozesu baten emaitza da; esparru horren helburua adinekoei kalitate handiko zerbitzuak ematea zen (2001. urtea). Gaur egungo estrategian, zenbait datu gehitu dira hirugarren adinerako gaur egungo estrategia eta politikiei, duela gutxi ikerketen emaitzei eta beste alderdi garrantzitsu batzuei buruz (adibidez, lehenagoko planaren ebaluazioak berak).</p>
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	<p>Esparruaren eragina erregularitasunez aztertu eta ebaluatuko da, bai tokian-tokian, bai herrialde osoan. Dokumentuan jarraipenerako adierazleak jaso dira, eta alor nagusietan egin diren aurrerapenak ebaluatzeko erabiliko dira. Gainera, nazio-mailan, ebaluazio independente bat egingo da.</p>
<b>Aldia</b>	2008an sortua
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu. Udalerrien eta aurrekontu-planaren arabera izango dela aipatzen da.
<b>Koordinazioa</b>	Hirugarren sektorea, sektore pribatuko zerbitzu-emaeleak eta artatutako biztanleak elkarlanean arituko dira.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.stm.fi/c/document_library/get_file?folderId=39503&amp;name=DLFE-6710.pdf">http://www.stm.fi/c/document_library/get_file?folderId=39503&amp;name=DLFE-6710.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>National Memory Programme 2012–2020. Creating a “memory-friendly” Finland (Oroimen Plan Nazionala 2012-2020. Finlandia oroigarria sortuz)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Sektorekoa - Dementia
<b>Eremu geografikoa</b>	Finlandia
<b>Printzipioak eta jarduketa-ardatzak</b>	<p>Programa lau oinarriren gainean bermatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) “Garunaren osasuna” sustatzea.</li> <li>2) Jarrera irekiagoa sustatzea garunaren osasunari, demenziaren tratamenduari eta errehabilitazioari dagokienez.</li> <li>3) Bizi-kalitate ona bermatzea dementzia duten pertsonentzat eta haien familientzat, laguntzaren, tratamenduaren eta zerbitzuen bitartez.</li> <li>4) Ikerkuntza eta hezkuntza handitzea, frogetan oinarritutako ikuspegi batetik.</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	<p>Gizarte Gaietako eta Osasuneko Ministerioak ezarritako Batzorde batek sortu du nazioko estrategia. Hona hemen jarraitu beharreko gidalerroak: garunaren osasuna sustatzeko xedek barne hartzea, memoriaren nahasmenduen arreta eta tratamendu goiztiarra ziurtatzea, dementzia duten pertsonen eta haien familiek zerbitzuak eta laguntza erabilgarri izango dituztela ziurtatzeko sistema bat ezartzea, eta ekintza-plan bat prestatzea xede horiek lortzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko.</p> <p>Plangintzan, kontuan hartu dira ikerketaren ondorioz ateratako emaitzak. Horixe izan da dokumentuaren oinarria, eta zerbitzuekin eta arretarekin lotutako erabakiak hartzen lagundu du.</p>
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Ebaluazioak egingo dira helburuak lortu diren zehatz-mehatz neurtzeko. Horien artean, gizartean izandako eraginaren ebaluazioa jasoko da, baita erabakiak hartzearen eta kostuen ondorioen azterketa ere.
<b>Aldia</b>	2012tik 2020ra
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.
<b>Koordinazioa</b>	Aribidean dauden legegintzako ekimenekin koordinatuko da, baita beste programa batzuekin ere, adibidez, Gizarte Ongizaterako eta Osasunerako Garapen Programa Nazionalarekin (KASTE).
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.stm.fi/c/document_library/get_file?folderId=6511574&amp;name=DLFE-26234.pdf">http://www.stm.fi/c/document_library/get_file?folderId=6511574&amp;name=DLFE-26234.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>The Dementia Plan 2015 (Dementzia Plana 2015). Norvegia</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Dementzia (Care Plan 2015aren azpiplana)
<b>Eremu geografikoa</b>	Norvegia
<b>Jarduketa-ardatzak eta printzipioak.</b>	<p>Sektoreko planak hiru ardatz-gune nagusi hauek identifikatzen ditu: eguneko programak; instalazioak hobetzea, artatutako biztanleen premietara egokituz; eta ezagutza eta trebeziak handitzea (informazioa, hezkuntza, ikerketa eta aurrerapen berriak).</p> <p>Azpiarratzen da dementzia duten pertsonen ez dutela talde homogeneoa eratzen eta, beraz, premia eta interes mota desberdinak dituztela. Zerbitzuak hobetzearen alde egiten dute, pertsona bakoitzaren bizi-historiara eta osasunera banan-banan egokituz.</p> <p>Funtsezko printzipio hauek ditu oinarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dementziei arreta egokia ematea.</li> <li>- Irekitasuna eta inklusioa.</li> <li>- Zainketa-katearen jarraitutasuna.</li> <li>- Betiko instalazioen aldaketa («txikia eta atsegina dena», korridore eta areto handiak dituzten instalazioen ordez).</li> <li>- Duintasuna eta errespetua.</li> </ul> <p>Bost estrategia hauek aurkezten dituzte dementzien arretarekin lotutako erronkei aurre egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikerkuntzaren eta plangintzaren kalitatea hobetzea.</li> <li>- Gaitasun eta ezagutzak, eta hazteko ahalmena handitzea.</li> <li>- Tartean dauden diziplina guztien arteko lankidetzak eta jarraipen medikoa hobetzea.</li> <li>- Zainketa aktiboa.</li> <li>- Familiekin eta tokiko komunitateekin hitzarmenak egitea.</li> </ul>

PLANA	The Dementia Plan 2015 (Dementzia Plana 2015). Norvegia
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Dokumentua Norvegiako Gobernuak aurkeztutako Care Plan 2015aren barruan dago jasota. 2006an, Gobernuak eta Tokiko Agintarien Norvegiako Elkarteak hitzarmena egin zuten zaintzarekin eta osasunarekin lotutako zerbitzuei ekiteko. Adostutako gaietako bat dementzia zaintzeko ekintza-plan hau egitea izan zen. Planaren hasieran, alor horretan lortu nahi diren helburuak deskribatu, eta postulatu horiek justifikatzeko datu garrantzitsuak ematen dira.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	2007an Follow Along izeneko sistema ezarri zen, planaren helburu nagusiak ebaluatzeko arduraz izango zuena. Horren azken xedea jarduneko lehen urtetik 2015era arte lortutako emaitzak aurkeztea zen.  Aldi berean, lau urtero inkesta bat egingo da nazio-mailan, dementzia duten pertsonen eskaintako zerbitzuei buruzko informazioa biltzeko.
<b>Aldia</b>	2015. urtera arte.
<b>Aurrekontua</b>	Ez da zehaztu.
<b>Koordinazioa</b>	Dokumentuan zerrendatutako ekintzen arabera.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.aldringoghelse.no/?PagelD=2855">http://www.aldringoghelse.no/?PagelD=2855</a>

## F. ERRESUMA BATUA

<b>PLANA</b>	<b>Hope, Confidence and Certainty for Older People 2013-2015 (Itxaropena, konfiantza eta segurtasuna adinekoentzat 2013-2015)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Ipar Irlanda
<b>Printzipioak</b>	Nazio Batuek adinekoentzat ezarritako bost printzipioak ditu oinarri (1991). Bost eremu hauetan biltzen dira: independentzia, parte-hartzea, zaintza, duintasuna eta autorrealizazioa.
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	Planak hainbat ataletan bereizten diren funtsezko bost ardatz hauek ditu: 1) adinekoekiko jarrera positiboak sustatzea; 2) haiei eragin diezaieketen politika eta legeen eraginkortasuna eta egokitasuna berrikustea; 3) aukerak sustatu eta bermatzea eta adinekoenganako diskriminazioa desagerraraztea; 4) jardunbide egokiak sustatzea adin handieneko biztanleenganako tratuan; eta 5) erakundeen kudeaketa.
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Proposatutako ardatzen aukera estrategikoa egiteko hainbat bilera eta topaketa egin ziren 2012. urtean zehar, eta bertan jaso ziren adinekoen eta haiekin lan egiten duten erakundeen iritziz eta ikuspuntuak.  Barne-ikuskaritza egiteko zerbitzu independente bat kontratatu zuten.
<b>Aldia</b>	2013-2015 urteetarako proposatutako plana.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.copni.org/images/publications/COPNI_Corporate_Plan_-_Hope_Confidence_Certainty_2013-2015.pdf">http://www.copni.org/images/publications/COPNI_Corporate_Plan_-_Hope_Confidence_Certainty_2013-2015.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Reshaping Care for Older People: A Programme for Change 2011-2021 (Zaintza adinekoei egokitzea: aldaketarako programa. 2011-2021)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Eskozia
<b>Printzipioak</b>	<p>Estrategiaren helburua adinekoen independentzia eta ongizatea optimizatzea da, beren etxebizitzan edo ingurune atsegina eta eroso batean.</p> <p>Horretarako, bizi-kalitate albat onena izaten lagundu behar zaie adinekoei, alderdi hauen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Seguru senti daitezela sustatuz.</li> <li>- Gizarteratzeko eta elkar laguntzeko aukerak emanez.</li> <li>- Inor bakarrik edo isolatuta ez egotea ziurtatuz.</li> <li>- Pertsonak ahal bezain ondo irautea sustatuz.</li> <li>- Adinekoei nahi duten lekuan eta moduan bizitzea erraztuz.</li> <li>- Estigmatizazio eta diskriminazioz libre egonez.</li> <li>- Uneoro haiei entzunez, jasotzen dituzten zerbitzuetan ahotsa emanez eta errespetuz eta duintasunez tratatzen zaiela ziurtatuz.</li> </ul>

<b>PLANA</b>	<b>Reshaping Care for Older People: A Programme for Change 2011-2021 (Zaintza adinekoei egokitzea: aldaketarako programa. 2011-2021)</b>
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1) Osasuna eta ongizatea zahartzaroan</li> <li>2) Zaintzaile informalak</li> <li>3) Etxebizitza</li> <li>4) Zainketa-guneak</li> <li>5) Ekipamendua eta egokitzapenak</li> <li>6) Telelaguntza eta telemedikuntza</li> <li>7) Garraioa</li> <li>8) Laguntza-bide eraginkorrak</li> <li>9) Laneko garapena</li> <li>10) Plangintza, ezarpena eta euskarria</li> </ol>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Dokumentua prestatzeko, eskura zeuden frogak berrikusi ziren eta herritarrek parte hartzeko programa bat egin zen, non 5.000tik gora pertsonen ideia eta iritziak bildu baitziren. Estrategiaren forma eta edukia lortutako datuetan oinarrituta erabaki ziren.
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Dokumentuan ez da zehaztu.
<b>Aldia</b>	2011-2021
<b>Aurrekontua</b>	2011/2012 urteetarako 70 milioi euroko aurrekontua ezarri zen, eta guztira 300 milioi eurokoa 2011/2012tik 2014/2015era bitarteko aldirako.
<b>Koordinazioa</b>	Beharrezkoa izango da tokiko agintarien, gobernuko sektoreen eta hirugarren sektorearen edo beste erakunde batzuen artean koordinatzea.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.scotland.gov.uk/Resource/0039/00398295.pdf">http://www.scotland.gov.uk/Resource/0039/00398295.pdf</a>

PLANA	National Policy For Older Persons (Adinekoentzako Politika Nazionala)
Sektore-eremua	Integrala
Eremu geografikoa	Aingira (itsasoz bestaldeko Britainia Handiko lurraldea)
Printzipioak	<p>Politika honek printzipio hauei jarraitzen die:</p> <p><b>a) Independentzia.-</b> Planaren oinarria adinekoei laguntzea da, beren bizitzaren kontrola mantendu dezaten, beren erabakiak hartuz eta eragiten dieten guztiari buruzko iritzia emanez.</p> <p><b>b) Segurtasuna.-</b> Bai etxe barruan nahiz kanpoan giro segurua izateari dagokionez, bai segurtasun ekonomiko eta finantzarioari dagokionez.</p> <p><b>c) Irisgarritasuna.-</b> Zerbitzuetan ez du adinekoekiko diskriminaziorik egon behar.</p> <p><b>d) Zahartze produktiboa.-</b> Adineko guztiak izan behar dute bizitza produktiboa eramateko gai, hala sozialki nola ekonomikoki.</p> <p><b>e) Etxeko arreta.</b> Familiartea da adinekoentzako girorik egokiena; barneratzera azken aukera gisa baino ez da jo behar.</p> <p><b>f) Duintasuna.-</b> Adinekoek errespetatuak izateko eta beren duintasunari eusteko eskubidea dute, beste edozeinek bezala.</p> <p><b>g) Giza eskubideak.-</b> Aukerarekin lotutako alderdiak hartzen ditu barne, baita gai ideologiko, espiritual edo erlijiozkoak ere.</p>



PLANA	National Policy For Older Persons (Adinekoentzako Politika Nazionala)
<p><b>Jarduketa-ardatzak</b></p>	<p>Jarduteko lehentasunezko hamahiru alor hauek identifikatu dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. alorra.- Hezkuntza eta komunikabideak: zahartzearen irudi onuragarriagoa sustatzea.</li> <li>2. alorra.- Azpiegiturak: azpiegiturak, baita eraikinetako egokitzapenak ere, adinekoentzat irisgarriak izateko moduan diseinatu direla ziurtatzea.</li> <li>3. alorra.- Etxebizitza: adinekoek etxebizitza egokia eta eskuragarria dutela ziurtatzea.</li> <li>4. alorra.- Legeria: adinekoen eskubideak bermatzea.</li> <li>5. alorra.- Familiartean babesa ematea: adinekoek familiaren kontuetan parte hartzeko moduko giroa sustatzea.</li> <li>6. alorra.- Errenta: adinekoen artean finantza-egonkortasuna sustatzea.</li> <li>7. alorra.- Mediko-sanataria: Bizitza osasuntsua izateko aukera ematea adinean aurreratuen daudenei, osasuna mantentzeko programak ezarriz.</li> <li>8. alorra.-GIB/HIES: adinekoiei GIBaren alderdi guztiei buruzko kontzientzia harraraztea, hezkuntzaren eta komunikabideen bitartez, eta gaixotasuna hartzearen arriskuei buruz sentsibilizatzea.</li> <li>9. alorra.- Nutrizioa: adinean aurreratuen daudenen nutrizio-beharrak ase direla ziurtatzea.</li> <li>10.alorra.- Buruko osasun-zerbitzuak: beharrezko zerbitzuak eta laguntza ematen direla bermatzea, edozein dela ere adina, etnia, generoa, erlijioa edo egoera ekonomikoa.</li> <li>11. alorra.- Larrialdi eta hondamendien kudeaketa: larrialdi-egoeretan adinekoen ongizatea babestea, daudela etxean, daudela egoitzetan.</li> <li>12. alorra.- Jarduera: haien egoera (fisiko eta mentala) hobetzeko eta gerta litekeen narriadura murrizteko jarduera sozial eta produktiboak egin ditzatela sustatzea.</li> </ol> <p>Area 13.- Ikerketa eta garapena: bereziki adinekoiei eragiten dieten alderdietan aurrera egiteko ikerkuntzaren eta sistemen garapenean parte hartzea.</p>
<p><b>Diagnostikoa</b></p>	<p>Aingirako gaur egungo egoera aztertu da, eta alderdi garrantzitsuenak dokumentuan bertan jaso dira.</p>

PLANA	National Policy For Older Persons (Adinekoentzako Politika Nazionala)
<b>Ebaluazioa eta adierazleak</b>	Aholku-batzorde bat izendatu da estrategiaren ezarpena gainbegiratu eta ebaluatzeko. Batzordearen helburua adinekoentzako politika nazionala sustatu, ezarri, monitorizatu eta ebaluatu dadila bermatzea da.
<b>Aldia</b>	2009tik aurrera
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.gov.ai/documents/NationalPolicyForOlderPersons.pdf">http://www.gov.ai/documents/NationalPolicyForOlderPersons.pdf</a>
<b>Sektore-eremua</b>	Integrala
<b>Eremu geografikoa</b>	Ipar Irlanda
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Esparru estrategiko honek hein handi batean 65 urtetik gorako pertsonengana bideratutako arau sorta bat ezartzen du, baina kontuan hartzen ditu 50 urtetik gorakoekoen premiak ere (bereziki, prebentzio-gaietarako).</p> <p>Arauk honako hauei buruzkoak dira: pertsona ardatz duen arreta, osasuna, gizarte-ongizatearen hobekuntza, adinekoen babes, zaintzaileei buruzko alderdiak, zahartzaroko gaitz ohikoenak, sendagaiak, eta arretako trantsizioak kudeatzeko eta lantzeko modua.</p>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Esparruaren garapena prozesu barne-hartzailea izan da, eta osasunarekin eta gizarte-laguntzarekin zerikusia duten profesionalen gain, paziente, bezero eta zaintzaileek ere parte hartu dute bertan.
<b>Aldia</b>	3 urteko iraupena. (2014/3-2017/3)
<b>Aurrekontua</b>	Ez da halakorik aipatzen.
<b>Koordinazioa</b>	Helburuaren arabera, zehaztutakoa ezartzeaz arduratuko diren gizarte-eragileak eta laguntza emango duten beste kide batzuk aipatzen dira.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.dhsspsni.gov.uk/service_framework_for_older_people-2.pdf">http://www.dhsspsni.gov.uk/service_framework_for_older_people-2.pdf</a>

<b>PLANA</b>	<b>Scotland's National Dementia Strategy: 2013-16 (Eskoziako Dementzia Estrategia Nazionala: 2013-2016)</b>
<b>Sektore-eremua</b>	Dementziak (Second National Dementia Strategy)
<b>Eremu geografikoa</b>	Eskozia
<b>Jarduketa-ardatzak</b>	<p>Estrategian lehentasun sorta hau ezarri da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dementzia izan eta etxean bizi-kalitate ona duten pertsonen kopurua handitzea, eta ahal bezain beste iraunaraztea.</li> <li>- Dementziarako gaituta dauden komunitate lagunkoiak garatzea, herritarrei arazo horien inguruan kontzientziatzen lagundu eta gizarteko estigma murriztuko dutenak.</li> <li>- Dementziaren diagnostiko goiztiarra sustatzea.</li> <li>- Diagnostikoaren osteko babesa handitzea, bai dementzia duten pertsonentzat, bai haien senideentzat.</li> <li>- Gaixoei, haien senideei eta zaintzaileei laguntza ematea gaixotasunaren ibilbide osoan.</li> <li>- Errespetua eta pertsonen eskubideak bermatzea, alor guztietan, eta tratamenduari lotutako lege-betekizunen konplimendua hobetzea.</li> </ul>
<b>Metodologia eta diagnostikoa</b>	Estrategia "Alzheimer Scotland" elkarrearekin batera parte-hartze bidezko elkarrizketa eta eztabaida sorta bat egin ondoren garatu da. Lehen proposamena aurkeztu eta egunkarian argitaratu zen, eta hartatik abiatuta, bigarren estrategia hau oinarritu behar zuten ekintzei buruzko adostasun zabala lortu zen. Proposamen hura izan zen, bada, gerora aditu talde batek ekoizitako lan honen abiaburua.
<b>Aldia</b>	2013-2016
<b>Aurrekontua</b>	Ez da xeheki zehaztu.
<b>Koordinazioa</b>	Helburu jakin batzuetarako, koordinatuko diren erakundeak aipatzen ditu.
<b>Dokumentua eskuratzeko</b>	<a href="http://www.scotland.gov.uk/Resource/0042/00423472.pdf">http://www.scotland.gov.uk/Resource/0042/00423472.pdf</a>



## 3. ERANSKINA

### Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiarako kontsulta-prozesua

3.1. eranskina: egindako elkarrizketen ondorioak

3.2. eranskina: lan-jardunaldiko ekarpenen laburpena

#### 3.1. eranskina. Egindako elkarrizketen ondorioak

##### Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia egiteko kontsulta-prozesuaren txostena

Dokumentu honetan, labur-labur aurkezten da Zahartze Aktiborako 2010-2015 aldiko Euskal Estrategia diseinatzeko proiektuaren esparruan egindako kontsulta-prozesua, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatua. Emaitzak honako hauei egindako 49 elkarrizketei dagozkie:

- Hezkuntzaren, etxebizitzaren, osasunaren eta abarren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako arduradunei.
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udaletako arduradunei, baita Araba eta Gipuzkoako foru-aldundietakoei ere (Bizkaikoari ezin izan zitzaion elkarrizketarik egin).
- Beste erakunde publiko batzuei: Emakunde, EUDEL...

- Adinekoen elkarteei eta beste erakunde batzuei: FEDERPEN, HELDUAK, ADII, NAGUSILAN, Esperientziaren Forora, Las Cuatro Torres...
- Sendagileen, gizarte-langileen eta psikologo enbide-elkargoeri, Zahartzarora elkargoari (geriatria eta gerontologiako euskal elkargoa) eta arlo horretako gaikuntza duten profesionaleri, eremu akademikokoak nahiz erakunde espezializatuetaoak izan. Kontsultatu diren erakunde en zerrenda eranskin gisa eman da.
- Elkarrizketek 41 eta 120 minutu artean irau n dute. 2014ko urritik azarora bitartean egin dira, eta lkerketa Taldeak aurrez diseinatutako gidoi bat izan da horiek garatzeko abiapuntua (erantsi egin da). Elkarrizketatuei proposatutako gaiak haietako bakoitzaren erantzukizunetara eta esperientziara egokitu dira, edukia pertsonalizatzeko. Elkarrizketak grabatu egin dira, eta elkarrizketan sartutako kategorietan oinarrituta transkribatu eta aztertu dira.

Era askotako instituzio eta erakunde publiko nahiz pribatuak elkarrizketatu direnez, askotariko erantzunak agertu dira, hainbatetan elkarren desberdinak; ezin zuen bestela izan. Adierazitako iritzi guztiak biltzeko ahaleginak egin dira, eta prozesuaren gai garrantzitsuenak jasotzen dituzten 9 alderditan sistematizatu dira. Adierazitako proposamen eta iritzi gehienak gehitu dira Zahartze Aktiborako Estrategian proposatutako ekintzetara, batzuetan proposamena osorik jasoz, eta beste batzuetan proposamen orokorragoetan txertatuz.

Gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu gure elkarrizketa sakoneko eskaerari erantzuteko beren denbora eta ahalegina eskaini diguten pertsona guztiei.

## Ondorioak

### 1. **Gizartea, oro har, eta Euskadikoa, bereziki, zahartzera egokitzea**

- Jaso diren erantzunek aditzera ematen dutenez, euskal herritarra sentikorak dira zahartzearekin lotutako alderdiei dagokienez, eta nabarmena da euskal gizartean badagoela aukerarik biztanleriaren zahartzeak eragindako erronkekin zerikusia duten hainbat gizarte-eragileren arteko aliantzak eratzeko.

- Elkarrizketatutako erakunde batek baino gehiagok eskatu du Adinekoen Institutu bat eratzea, beste herritar talde batzuekin (emakumeak, gazteak) egin den moduan.

Beste proposamen bat Zahartzearen Behatokia sortzea da, Euskadiko adinekoen egoeraren jarraipena egiteko, hainbat ikuspegitatik: baliabideak, osasun- eta gizarte-zerbitzuak, demografia, iritziak, estereotipoak, irudia, etab.

- Nolanahi ere, zeregin argien faltak eta, ondorioz, errekonozimendu faltak, zahartzearekiko jarreratxarrak sortzen dituzte, eta gehiegietan identifikatzen da gaixotasun, mendekotasun eta gastu sozialarekin. Orokorra dirudi zahartzaroa gizarteari “garesti ateratzen” zaiolako pertzepzioak. Bestalde, “gaztetasuna” garrantzitsutzat daukan gizarte batean bizi gara. Edertasun-ereduak argi eta garbi daude zehaztuta. Zahartzaroa gizarte-balio horiez guztiez kanpo dago.
- Ez dago oso argi zer zeregin duten adinekoen interesak ordezkatzten dituzten erakundeek, eta administrazio publikoen mendeko batzordeetan daude txertatuta. Haien erabaki-ahalmena oso txikia da. Ezinbestean berrikusi behar dira adinekoak ordezkatzten dituzten egiturak.
- Nolanahi ere, nabarmentzekoa da lurraldeen artean alde handiak daudela adinekoentzako zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez, eta beharrezkoa dela Herrialdeko Itun bat egitea, desberdintasun horiek gutxienera murrizteko eta ekimen eta politiken jarraitutasuna ziurtatzeko.<sup>1</sup>
- Bestalde, zahartzeak zeharkako ardatza izan behar duela irizten da, eta bizi-kalitatea bizi-ziklo osoan zehar iraun dezala bilatzen duten programa eta zerbitzuen sorrera gidatu behar duela, bilakaeraren ikuspuntutik. Zahartzea ez da gizarte-zerbitzuen ardura soilik. Etxebizitza, garraio, hezkuntza, osasun eta abarrerako politiken kontua ere bada.
- Adostasun nahiko zabala dago adieraztean 65 urteko erretiro-adina, zahartzaroaren hasiera gisa, gizarteko alorretan ondorio kaltegarriak eragiten dituen kontzeptu zaharkitu bat dela, eta adinean oinarrituko diskriminazioa indartzen duela.

---

(1) Bidean da gai horri konponbide mesedegarria emateko saioa, 2014/12/19an Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan –Eusko Jaurilaritzak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek, eta udalak ordezkatzten dituen EUDEL-Euskaadiko Udalen Elkarteak osatua– akordioa lortu ondoren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroak izan beharreko edukiri buruz. Zorroa dekretu batean jaso beharko da (gaur egun izapidean da), eta Eusko Jaurilaritzak gutxi barru onetsiko du, Gizarte Zerbitzuen Legea garatze aldera.

- Halaber, elkarrizketa gehienetan azpimarratu da bizialdi osoko zahartzearen kontzeptua transmititu behar dela gizartean. "Izan garena gara, bizi-ibilbide baten emaitza. Horregatik, desberdinak gara, ez gara homogeneousak adin berbera izanagatik".
- Zenbaitetan nolabaiteko mesfidantza agertu da "gizartea zahartzera egokitzea" lelo moduko horri dagokionez, hauteman baita zahartzaroarekin diskriminazio positibo mota horrek halako alarma sor lezakeela gizartean, eta ondorio kaltegarriren bat ekarri.
- Azkenik, nolabaiteko laguntza behar duten pertsonak ordezkatzeko zituzten elkarrizketatuen artean, ikusi dute gizartean ez dagoela oraindik behar adinako sentsibilizazioa, herritarren bizitzan deserosotasunak sortzen dituen desberdintasuna onartzeko unean.

"Gizartea osatzen duten askotariko eragileek (dendako saltzaileak, autobus-gidariak) adinekoen mugak (motelak direla, laguntza behar duela...) naturaltasunez onartzen dituztenean, orduan ulertu ahalko dugu gizartea zahartzeko prest dagoela".

## 2. Gizarte Zerbitzuen Sistema

- Jasotako erantzunek, hein txikian, laguntza behar duten pertsonentzako gizarte-zerbitzuei eta zerbitzu soziosanitarioei egiten diete aipamena. Elkarrizketaren xedea ez zen talde hori; hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea ezen, eraginpeko pertsonen eta haien familien ustez, parte-hartze eskasa dutela baliabideen aukeran, eta nolabait kexu direla zerbitzuak emateko ereduarekin.

"Adinekoen zainketa-planak "kutxa beltzak" dira". "Adituek haiekin negoziatu gabe hartzen dituzte erabakiak".

"Kasuen jarraipena hobetu behar dugu. Kontua ez da 10.000 laguntza izatea, baizik eta etengabeko laguntza-sare bat izatea, ondo antolatua, kasuen kudeatzaileak behar izanez gero alarma aktibatu ahal izateko".

- Bat datoz adinekoen zentroetara joateko interesa duten pertsonen profila aldatu dela esatean. Oro har, adineko belaunaldi berriek prestakuntza-maila handiagoa izatea, gehiago parte-hartzea eta aurreko belaunaldiek baino eskaera zehatzagoak izatea dute bereizgarri.



- Elkarrizketatuek adierazitakoaren arabera, adinekoek beren interesetara egokitutako zentro komunitarioetara joatea litzateke egokiena. Gaineratzen dute, hala ere, “zaharretxe tradizionalak” ohitura konbentzionalagoak dituen pertsona mota jakin baten premiak ase ditzaketela.
- Bestalde, adierazten dute zentroetako jarduerak eta kudeaketa aldatzen ari direla, gero eta aniztasun handiagoa dagoelako jarduera eta zerbitzuen eskaintzan, eta erabiltzaileek jarduerak sortu eta kudeatzeko espazioak eskaintzen direlako, halako moldez non adinekoen rola eraldatzen ari baita, “zerbitzu edo jardueren bezero” izatetik, “horien sortzaile” izatera igaroz.

Baina, orobat, elkarrizketatutako hainbat lagunek adierazi dute jarduera soziokulturalek eta aisialdikoek ez dutela gizarte-zerbitzuen mende egon behar, eta aldarrikatzen dute, alde batetik eta beste behin, zahartzearen ikuspegiak zeharkakoa izan behar duela, eta, bestetik, gaur egun eskaintza soziokultural oso anitza dagoela herritar guztientzat eta, beraz, ez daudela justifikatuta adinean oinarritutako diskriminazioa indartzen dituzten aisialdi edo “prestakuntza” jarduera “espezifikokak”. Esaten dutenez, adinekoen parte-hartzea lortzeko “zahartzaroaren eredu defizitariotik parte-hartzearen eredura igaro behar da. Osasun-eta ongizate-mailak eta IKTen eskuragarritasuna hobetu behar dira, eta, diru-sarrera duinez gain, bermatu behar da oinarritzko baldintza egoki batzuk egotea harreman sareak mantendu eta zabaltzeko eta bizialdi osoko prestakuntzarako”.

### 3. Adinekoak gizartean

- Bat datoz azpimarratzen dutenean adinekoen artean heterogeneotasun handia dagoela, eta 65 urteko adina pertsona horiek multzokatzeko irizpide gisa hartzeak mugak ezartzen dituela.
- Zenbait erantzunetan adierazi da pertsona horien talde nabarmen batek kapital sozial handia duela, eta gaur egun ez dela aintzat hartzen, garatzen eta baliatzen. Hala, adibidez, aipatu dute Euskadiko boluntarioen artean erdiek dituztela 55 urte baino gehiago (Boluntaren txostena).
- Zenbait erantzunetan, adinekoen premiak eta/edo ahalbideak argitzeko gizarte-maila eta generoa kontuan hartu behar direla azaldu da.

- Ildo horretan, aipatzen dute baliabide pertsonal eta sozialak dituzten 60 urteko edo gehiagoko pertsona askok bere kabuz ekimenak egiten dituztela beren interesak eta motibazioak asetzeko, eta unean-unean behar izaten dutela horiek garatzeko laguntza.
- Horiek horrela, gizarte-erakundeek era askotako zerbitzu eta proposamenak eskaintzen dituzte, norik bere behar eta interesetara hobeto egokitzen diren zein diren erabakitzeke moduan. Garrantzitsua da jendeak aukera dezala, beste adinetakoek ere egiten duten bezala. Aukerak sortu behar ditugu, jendeak bere erabakiak har ditzan. Erantzunak bat datoz esatean gizarteak irudi negatibo eta homogeneoa duela adinekoei buruz, eta irudi hori ez datorrela bat, inola ere, pertsona horien benetako ezaugarriekin. Berezi nabarmentzen dute hedabide sozialen bitartez helarazten den "arazo" irudia, eta elkarrizketatu diren zenbaitek adierazi dute ekimenak egin behar direla irudi hori aldatzeko eta errealitateara egokitzeko.
- Azpimarratu dute Eusko Jaurlaritzak "tratu onari" buruz egindako kanpaina errealitatearekin bat zetorrela. Saihestu egin behar dira pena, errukia eta gaitza helarazten duten eta umetzen duten irudiak.
- Irudi erreala eman behar dugu ikustera, non milaka eta milaka adinekok, beren etxean ez ezik, beren seme-alaben etxean ere sostengu diren, eta gainera mendekotasun-egoeran dauden gurasoak, baita bilobak ere, zaintzen dituzten. Horixe da adineko ugariaren eguneroko errealitatea.
- Merkatuaren ikuspuntutik ere, eta kontsumitzaile gisa, aldatzen ari da adinekoei buruzko ikuspegia. Hedabideetan eta iragarkietan ageri dira (jakina, interesak direla eta), baina garrantzitsua da hor egotea, are gehiago balizko erosle gisa. Adierazgarria eta ona da.

#### **4. Bizialdi osoko ikaskuntza eta hezkuntza**

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ustez, Administrazioak ez ditu berariaz adinekoentzat sortu behar ekimenak; aitzitik, pertsona edo taldeek egindako proposamen eta/

edo eskaerei erantzun behar zaie. Ikuspuntu horretan, herritarrek adierazitako prestakuntza-premia eta/edo -interesei erantzutea da kontua.

- Beste ikuspuntu batetik, hezkuntza-curriculumetan zahartze-prozesuari lotutako alderdiak sar daitezela iradokitzen duten erantzunak jaso dira.
- Hala, esate baterako, aisialdian hezi behar dela aipatu da, pertsonak beren bizitzan zehar proiektu aberasgarriak sortzeko, lanetik edo familiaratik kanpo.
- Bigarrenik, iradoki da haur eta gazteak elkartasunean eta parte-hartze sozialean hezi behar direla. Azkenik, erantzun batzuetan jaso denez, bizitzan zehar garapen pertsonal ona izaten lagunduko duten eta zahartze-prozesu albait onena sustatuko duten ohitura osasungarriak ezarri behar dira.
- Adostasuna dago erretiroa hartzeko prestatzen duten ekintzei garrantzi handiagoa eman behar zaiela esaterakoan. Elkarre batzuen ustez, enpresa handietan eta erakunde publikoetan nahitaez lagundu behar da erretirorako trantsizio-prozesua.
- Ikusi da, halaber, esperientziaren eskolek balorazio oso ona jasotzen dutela, ohitura osasungarriak sortzeko eta gizarte-sareak eratzeko gune gisa. Eztabaidaezina da balio prebentiboa dutela.
- Genero-ikuspuntutik, irizten da bizialdi osoko ikaskuntzaren eta erretirorako prestakuntzaren barruan sartu behar direla zainketa balioa eta erantzunkidetasuna.
- Eskatutakoaren arabera, Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren Legea, behar beste garatu gabea, aplikatzea bultzatu behar da.
- Era berean, Donostian 2011n egindako Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Biltzarraren ondorioak aztertzea eskatzen dute.

## 5. Hiri- eta landa-diseinua

- Elkarrizketatutako pertsonak bat datoz esaten dutenean Euskadiko hiri eta herriek, oro har, baldintza onargarriak dituztela (irisgarritasuna, hiriko altzariak, argiztapena, garraioa, etab.) herritarrek segurtasunez eta independentziaz moldatu ahal izateko.
-

- Landa-eremuan zailtasun gehiago identifikatzen dira, lurraldearen zati handi bat menditsua izateak irisgarritasun-arazoak ekartzen dituelako.
- Erantzun batzuek adierazi dute hiriko guneen artean desberdintasunak daudela, eta hirigunean aldirietan baino esku-hartze gehiago egin direla irisgarritasuna hobetzeko.
- Aipatutakoaren arabera, hirigintzan oraindik ez dira sartu oinezkoen premiak.
- Oro har, elkarrizketatuak ez daude adinekoen mesederako berariazko neurriak ezartzearen alde. Nolanahi ere, zenbait alderdi-komun publikoak, argiteria hobea edo gune garaietara igotzen diren mikrobusen zerbitzuak orokortzea– oso lagungarriak izango lirateke adinekoentzat.
- Alor horretan, arestian aipatu bezala, elkarrizketatuak bat datoz baieztatzean adin guztietarako hiriak diseinatu behar direla, adinekoentzat berariazko neurriak pentsatu baino gehiago.

## 6. Etxebizitza

- Ikusi da elkartegintzak kezka adierazten duela alderdi honen inguruan, eta etxebizitzaren arloan egiteko asko falta dela uste duela, bai irisgarritasunari, bai egokitasunari eta egokitzearen dagokionez.
- Haien ustez, beharbada, esku hartzeko eremu hau ez delako behar beste garatu. Etxebizitzak egokitzearekin lotutako interesa kalera eta kaletik iristea erraztea izan du ardatz (ataria, igogailua, adib.), baina lan gutxi egin da etxebizitza zaharrak han bizi diren pertsonen premietara egokitzeko.
- Era berean, arreta jarri behar zaio etxean laguntza teknikoak sartzeari. Ildo berean, baserriek ez dute jaso behar adinako arreta haietan bizi diren adin aurreratuko pertsonen premietara egokitzeko.
- Oro har, gazteek, etorkizuneko arazoei aurrea hartzeko, etxebizitza irisgarriak eta eraberrituak edukitzeko premiari buruzko kontzientzia handiagoa dutela uste da.
- Hainbat elkarrizketatan azpimarratu da informazioa falta dela laguntzei, orientazioari eta abarrei buruz. Jendeak premia zehatz bat duenean soilik jotzen du udaletxera, gizarte-zerbitzuetara, eta

gainera nolabaiteko estigma dago. Beste bide batzuk, elkarteak eta gisakoak, kasurako, eremu horietan mugitzen diren pertsonengana soilik iristen dira.

- Legeria mailan kontuan hartzen dira etxebizitzaren egokitasunari buruzko premia horiek, baina ondoren ez dago konexiorik, baliabiderik, agente erraztailek... neurriok beste maila batzuetara iristeko. Eskuarki, erabakiak nahikoa informazio eduki gabe hartzen dira.
- Garrantzitsutzat jotzen da Administrazioaren bultzada alor horretan, bereziki, baliabide urrienen kasuan.
- Azkenik, elkarrizketatu batzuek soilik –batez ere, elkartegintzakoak eta Emakundekoak– agertu dute bestelako bizileku sistemarako ekimenak abian jartzeko interesa: bakarrik dauden emakumeentzako egoitzak/apartamentuak, cohousingeko esperientziak, etab.

## 7. Enplegua eta erretiroa

- Adostasuna ia erabatekoa da erretiroa hartzeko formula malguak ezartzeko beharrari dagokionez, ibilbide hori gutxika egin ahal izateko eta lana eta pentsioa bateratzeko aukera izateko ere.
- Aipatzen da garrantzitsua dela jendeari (enpresetan, hezkuntza-sisteman) aukerak ematea, bizitzan zehar garapen pertsonaleko proiektuak egin ditzaten, ekoizpen-eremutik kanpo.
- Zenbait erantzunetan erretiro goiztiarraren (60 urte) desabantaila pertsonal eta sozialen berri eman da, eta adierazi da enpresek bertako langile edadetuenen premietara egokitu behar dutela.
- Erretiroaren sistema aldatu da, eta are gehiago aldatuko da. Aldaketa, oro har, ez da traumatikoa. Gero eta onuragarriagoa da, eta jendeak aro horretarako proiektuak eta plangintza ditu. Nolanahi ere, aro horretan ekarpenak egiteko aukerak, bideak... mugatuak dira; beraz, hautabide gehiago behar dira, boluntariora bizigarria sustatu behar da, eta erretirodunen profil berrietara egokitutako proposamenak egin behar dira.
- Erretiroak estatus-galera dakar, eta beste gauza batzuk egiteko aukerak falta dira. Eta, nola konpentsatzen dira galera horiek? Zenbaitetan, lana uzteagatik sortutako galerak herritar gisa parte hartzeko jarduerekin konpentsatzen dira.

- Aukera interesgarria litzateke erretirodunek beren aurretiko enpreekin zuten loturari eustea, eta eskarmentu handia duten jarduera batean aholku emanaz lagundu ahal izatea. Hala, nolabait, kidetza sentimenduari eutsiko litzaioke.

## 8. Aurrea hartzea / prebenitzea

- Elkarrizketatuetako batzuek adierazi dute ekimenak egin behar direla lan egin gabe bizitzen ikasteko, diruaren eta beste kontu batzuen kudeaketari aurrea hartzeko, eta etxebizitza prestatzeko. Haatik, ez dute identifikatu zer erakundetatik gauzatu litezkeen ekintza horiek.
- Itaundutako zenbaitek gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko proposamenak egin behar direla plazaratu du (gazteekin egin den bezala), pertsona kalteberenak gizarte-baliabideekin lotzeko eta, hala, isolamendua eta bakardadea prebenitzeko.
- Oraindik egiteko dauden gaien artean sartzen da gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko benetako koordinazioa, prebentziozko ekintza eraginkorrak bermatzeko. Nahiz eta “mahai soziosanitarioak” egon badauden, bai eta bi eremuon artean harreman onak ere, nabarmendu da baterako ekintza falta dela, eta, batez ere, garrantzi eta parte-hartze handiagoa osasunaren eremuaren aldetik.

## 9. Ongizate-gizartea lortzeko parte hartzea eta elkarlanean aritzea

- Elkarrizketatuek identifikatu dutenez, badago adinekoen belaunaldi berrietara bideratutako hainbat baliabide, gizarte-ongizaterako lagungarri izan daitezkeenak. Beraz, adinekoek gainerako herritarrekin ezagutza, esperientzia eta abar trukatzeko ekimenak sustatu behar dira.
- Bestalde, elkartegintza osoa ados agertu da benetako parte-hartzea –hau da, eragina izateko eta aintzat hartuak izateko gai dena– gauzatzeko dauden oztopoei dagokienez. Adinekoen Batzorde Sektorialaren eginkizuna ez da aski. Oro har, parte hartzeko egiturek ez dute funtzionatzen.
- Elkarrizketatutako beste estamentu batzuen ustez, ezarritako bide formalak –aipatutako Batzorde Sektoriala, kasurako, baita foru- eta udal-mailako beste batzuk ere– aholku organoak dira eta beren eginkizuna betetzen dute. Administrazioak jaso egiten ditu hirugarren

sektoreko elkarrekin iristen diren kezka eta planteamenduak eta, beraz, badute eraginik.

- Onuragarritzat hartzen dira “Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu egokian aurrera egiteko ehun proposamen” dokumentuak jasotako zenbait proposamen, non mahai gainera ekartzen baita udal-eremuetan profesionalak eta erretirodunak parte hartzeko lankidetzak-ekimenak abian jartzeko aukera.
- Bestalde, mesfidantza handia dago boluntariotzako ekimenak erabakitaz bultzatzeko, hain justu, krisialdi ekonomiko sakoneko eta langabeziaren hazkunde nabarmeneko une batean.
- Elkarrizketatutako zenbaitek nolabaiteko “obsesioa” ikusten du adinekoek parte hartzeko eta egiten duten guztia kuantifikatzeko, “ohiko bideetatik” kanpo parte hartzeko esperientzia ugari gauzatzen direnean; adibidez, auzoko elkarrekin edo berriaz adinekoentzat ez den edozein jardueretan lagunduz.
- Era berean, ikusi da adinekoek motibazio-elementu bat izan behar dutela parte hartzeko. Ez du funtzionatzen besterik gabe galdegiten eta konpromisoa eskatzen bazaie. Lehenbizi haiengandik atera behar du, haien motibazio eta ekimenen inguruan. Eta Administrazioak, profesionalak eta abarrek laguntzeko eta errazteko eginkizuna bete behar dute.

## 10. Ondorioak

Laburbilduz, Elkarrizketetan parte hartu dutenek emandako informazioak agerian utzi du zer ondorio dituen biztanleriaren zahartzeak, besteak beste, inguruneke ekipamendurako, zerbitzuetarako eta programa publikoetarako. Horregatik da Estrategia honetarako garrantzitsua. Informazio horretatik, ondorio hauek atera daitezke:

**1.** Aldaketa nabarmena ikus daiteke orain zahartzen ari diren pertsonen profileen: oro har, prestakuntza handiagoa eta bizi- eta lan-esperientzia aberatsagoak dituzte aurreko belaunaldien aldean.

Gainera, garapen pertsonaleko eta gizartean parte hartzeko beren proiektuekin jarraitzen dute, edo erretiroa hartu ostean abiarazten dituzte.

**2.** Nabarmendu da orotariko zerbitzu, programa eta eskaintzetan kontuan hartu behar dela gero eta handiagoa den jende multzo hori,

eta, aisialdiaren erabilerarekin lotutako premiez harago, garapen pertsonalarekin lotutakoak ere agertzen dituztela. Elkarrizketek agerira ekarri dituzte pertsona horiek sortu eta sostengatzen dituzten ekimenak, gizarte-baliabideak ekarri, boluntariorza, zaintza, eta abarren moduan.

**3.** Adinekoentzako ohiko ekipamenduak berrikusi behar direla irizten da, aisialdiko, hezkuntzako, parte-hartzeko eta abarreko eskaintzak herritar guztientzako antolamenduetan kokatu daitezten. Ildo berean, erantzun batzuetan iradoki da adinekoak administrazio publikoan ordezkatzeko dituzten egiturak berrikusi behar direla, dituzten eginkizunak eta administrazioarekin harremanak argitzeko.

**4.** Ikusi da gizartean zahartzeari buruzko irudi negatiboak irauten duela, eta ez duela zerikusirik, edo zerikusi eskasa duela, Euskadiko adinekoen irudi errealarekin. Jasotako erantzun batzuek azpimarratu dute herritarrek sentikortzeko ekintzak gauzatu behar direla, "zahartzearen irudi tradizionala" zuzentze aldera.

**5.** Elkarrizketetan hezkuntzaren eta lanaren arloekin lotutako neurriak proposatu dira, bi sektoreotan gauzatu daitezkeen kalitateko bitziza eta zahartze-prozesu batekin lotutako baliabideak eskuratzeko aukera emango duten ekintzak. Orobat, lan-jardueratik erretirorako trantsizio egokia errazteko neurriak aipatu dira, lan-eremutik kanpo garapen pertsonaleko ibilbide bat diseinatzeko giltzak eman ahal izateko langileei.

**6.** Elkarrizketatuak bat datoz euskal hirietako irisgarritasunaren garapen-maila azpimarratzean; hala ere, landa-eremuei eta etxebizitzaren egokitzapenari ere arreta jartzeko beharra identifikatu dute. Gehienak bat datoz herritar guztientzako plangintza egin behar dela nabarmentzen dutenean; hau da, "denontzako diseinuaren" ikuspuntutik.

**7.** Elkarrizketatuen artean, zenbaitek onartu du Euskadi ingurune mesedegarria dela zahartzearekin lotutako erronkei heltzeko batasunak eratzeko. Hala ere, beharrezkoa da plangintza bat egitea, besteak beste, lurraldeen arteko desberdintasunak gutxienera murrizten lagundu dezan. Batzuek hizpidera ekarri dute, ildo horretan, Estatuko Itun bat egiteko edo Zahartzearen Behatoki bat sortzeko beharra. (2)

Elkarrizketatuak bat datoz, azken finean, nabarmentzen dutenean Euskadiko biztanleriaren zahartzea abagune aproposa dela pertsona guztientzako gizarte hobea eratzeko. Zahartzerako prest egongo den gizarte bat, elkarrizketatuetako batek adierazitakoaren arabera,



herritarrek, oro har, eta gizarte-eragileek, bereziki, “adin handienekoen mugak naturaltasunez onartzen dituztenean”.<sup>2</sup>

### 3.1.1. Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiarako elkarrizketen gidoia

#### 1. Zure ustez, zenbateraino dago gizartea, oro har, eta Euskadikoa, bereziki, biztanleriaren zahartzerako egokitua?

Galdera batzuk egin nahiko nizkizuke gai honekin lotutako zenbait alderdien inguruan. Berrikusteko alderdiak:

- **Enplegua:**  
Zer iritzi merezi dizu lan-bizitzaren luzapenak (erretiroaren adina atzeratzea, aurre-erretiroaren aldean)? Zure ustez, ba al dago babes sozialeko sistema mantentzen dela bermatzeko hautabide hoberik?
- **Erretiroa:**  
Zure ustez, zer ondorio dakartza? Zer esku-hartzek lagundu dezakete lan-jardueratik erretirorako trantsizioa egiten?: enplegu malguko aukerak, ordainpeko enplegu aukerak, etab. Bizi-zikloari buruzko teoria (prestakuntza, enplegua eta aisialdia, bitzta osoan zehar tartekatuak, ez hiru aroetan soilik: gaztaroa, helduaroa, zahartzaroa).
- **Hiri- eta landa-diseinua:**  
Hiri eta herrietako diseinua adinekoentzat egokia dela iruditzen zaizu?  
  
Zure iritzia ezagutu nahiko nuke, bereziki, garraioari eta mugikortasun-irisgarritasun gaiekin loturan.
- **Etxebizitza:**  
Ohartu gara garatutako herrialdeetako plangintzetan zati handia hartzen duela alderdi honek. Zure ustez, zer ekimen

---

(2) Aurrez ere adierazi den bezala, ondorio hauen 1. atalean, bidean da auzi horri konponbide mesedegarria emateko saioa, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak 2014/12/19an lortutako Akordioaren ondoren. Ikus orrialde honetan dagoen oin-oharra.

sustatu beharko lituzkete botere publikoek, jendearen etxebizitza bitzitza osoan zehar izan dadin haiena, haiek nahi bezala?

Zure ustez, esku hartu al daiteke okupatu gabeko higiezinaren parke ugarian, ekimen iraunkorrak eta mendekotasunaren eraginez ager daitezkeen premietara egokituak sustatzeko?

- **Osasun-sistema:**

Hainbatetan parekatzen dira zahartze aktiboa eta zahartze osasungarria, ziurrenik, onartuta dagoelako zahartze arrakastatsua lortzeko garrantzitsua dela osasuna sustatzea eta mendekotasuna prebenitzea.

Halako ekimenak behar beste garatu direla deritzozu? Beste batzuk proposatuko zenituzke?

Zahartzaroak aurrera egin ahala, handitzen doa gaixotasun kronikoen prebalentzia, eta horietako batzuk desgaitzaileak dira. Zure ustez, zer neurri indartu beharko lirateke Euskadin alor horretan?

Zer deritzozu Euskadin onartu gabe dagoen geriatría-espezialitateari buruz?

- **Gizarte-zerbitzuen sistema:**

Zure ustez, gizarte-zerbitzuek arduratu behar dute zahartze-prozesuan daudenen (55-70) aisialdiko jardueraz eta astialdiaren erabileraz?

Zer deritzozu zahartze aktiboko programei buruz? Paradigma horri OMEren ikuspegitik erantzuten diotela uste duzu?

Aurrerabide edo atzerabide nabarmena egin dela uste duzu?

- **Hezkuntza-sistema eta bizialdi osoko ikaskuntza**

Botere publikoek adinekoentzako jarduera hezigarrietan inbertitu behar dutela uste duzu?

Zer ematen diote ondoren pertsona horiek atzera gizarteari? Banakako ikaskuntza da, gizartean ondoriorik gabea?

## **2. Orain adinekoek gizartean duten irudiari lotutako zenbait galdera egin nahiko nizkizuke.**

Nola hautematen duzu adinekoen irudia hedabideetan? (telebistako programak, publizitatea, telesailak, zinema) Berrikusi beharko genuke "adineko" izendapenaren homogeneizazioa?

Nola? Zure ustez, adinekoak beren herritar-eskubideez jabetu dira? Ezetz uste baduzu, zer ekimen egin beharko genituzke hori hobetzeko? Zuk uste gizartea adinekoen eskubideen jakitun dela? Ezetz uste baduzu, zer ekimen egin beharko genituzke hori hobetzeko? Adinekoenganako tratu txarren oinarrian estereotipoak daude. Nola esku har daiteke estereotipo horiek desagerrarazteko?

## **3. Plangintza gerontologikoaren eta erabaki politikoak hartzearen eremuan kezka bide den gai bati helduko diogu orain: adinekoek gizartean duten eginkizuna.**

Etengabe hitz egiten dugu 55 eta 75 urteko milioika pertsonaren eginkizun sozialaz. Haien prestakuntza eta gaitasunak gero eta handiagoak dira, eta erretiroaren ostean denboraldi luzea dago, baina badirudi ez garela gauza haiek gogobetetzeko ekimen argiak identifikatzeko.

Zer egin daiteke adinekoek gizarteari beren ezagutza eta esperientziak ekartzeko?

## **4. Aurreko gaiaren argumentu-ildo berean, haiek gizartean eta komunitatean parte hartzearekin lotutako gaiak daude.**

Jardueren eskaintza berezi eta berariazkoa behar al dute adinekoek? Zure ustez, adinekoak "naturalki" integratzen ari dira gizarte-prozesuetan, beren interes eta motibazioen arabera, edozein adin dutela ere? Nola bultzatu beharko genuke adinekoen parte-hartzea ekintza boluntario antolatuan? Eta herritarren bizitzan? Zure ustez, bideragarria al da gizarte-lankidetzako jardueretan pentsatzea, udalerrien eta beste administrazio publikoen eskutik, modu koordinatuan? Orientazio-, informazio-, aholku- eta laguntza-ekintzei buruz ari naiz. Iradokizunak.

## **5. "Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu egokian aurrera egiteko ehun proposamen" dokumentuan bereziki azpimarratzen zen gure zahartzaroari buruzko "erabakiak garaiz hartzea".**

Zure ustez, inbertitu behar al dute botere publikoek erabakiak garaiz hartzeko prozesu horretan, zahartzaro aurreratua ondukoak

(mendekotasun-egoerak...) prebenitzeko? Zure ustez, zer ekimen izan daitezke eraginkorrak?

Gai zehatz batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahiko nuke:

Udal-alorretan orientazioa eta aholkua emateko zerbitzuak sustatzea. Espezializatutako sektore profesionalak tartean sartzea (lanbide-elkargoak, elkarteak) halako zerbitzuak emateko, erretiroa hartu eta aurrez prestakuntza jaso duten zenbait pertsonekin lankidetzan. Udal-alorretan toki-ekimenak sustatzea.

## **6. Dakizunez, Euskadin 2015-2020 aldirako Zahartze Aktiborako Estrategia diseinatzeko egiten ari gara elkarrizketa hau.**

Jakin nahiko nuke zer deritzozun Estrategia honek garatu beharreko jarduketa-eremu hauei buruz: erretiroak izan ditzakeen ondorioei aurrea hartzea eta horiek prebenitzea; gizartea zahartzera egokitzea, herritarren ongizatea hobetzeko aukera bat; zahartzen ari diren pertsonen eskubide eta bermeak; ongizate-gizartea lortzeko parte hartzea eta elkarlanean aritzea; lagunkoitasuna.

## **7. Betiere zaila da esku hartzeko eremu bat sistematizatzea haren edukiak etengabe gainjartzen badira.**

Alor hauetakoren bat beste batzuetan sartu behar dela uste duzu? Edo, kontrara, proposamen honek barne hartzen ez duen jarduketa-eremuren bat dagoela uste duzu?

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

**Oharra: Elkarrizketaren edukia elkarrizketatuaren profilerak egokituko da, kasuan-kasuan interesgarritzat hartzen diren gaiak hartuz.**

### 3.1.2. Elkarrizketatu diren erakunde eta instituzioak

Zahartze Aktiborako 2015-2020 aldiko Euskal Estrategia egiteko  
kontsulta-prozesua

#### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

- EUSKO JAURLARITZA:
  - Osasun Saila
  - Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
  - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Etxebizitza Sailburuordetza)
  - Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea (2 pertsona)
- EUDEL – Euskadiko Udalen Elkarte
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Laneko Elkargo ofizialak
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Medikuntzako Elkargo ofizialak
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Psikologiako Elkargo ofizialak
- Eusko Federpen – Euskadiko Erretirodunen Federazioa
- Alzheimerdunen Senideen Elkarte Euskadiko Federazioa
- Housekide - Habitat partekatua (2 pertsona)
- Helduak Adi! – Euskadiko adinekoek parte hartzeko plangintza integralerako sare soziala (4 pertsona)

#### ARABA

- Arabako Foru Aldundia
- Vitoria-Gasteizko Udala
- Sirimiri – Zerbitzu soziokulturalak
- Esperientziaren Foroa (2 pertsona)
- “Las 4 Torres” Arabako erretirodun eta pentsiodunen elkarte

#### BIZKAIA

- Bilboko Udala
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea (2 pertsona)

- Bolunta – Boluntariotza eta parte-hartzerako Bizkaiko agentzia
- EDE Fundazioa (Hezitzaileen Elizbarrutiko Eskola)
- Zahartzaroa – Geriatria eta Gerontologiako Euskal Elkargoa
- Nagusiak (Erretirodun eta Pentsiodunen Bizkaiko Elkarte)
- HARTU EMANAK Elkarte
- Zuentzat – Zerbitzu Psikogerontologikoak

## GIPUZKOA

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Donostiako Udala (3 pertsona)
- Goierriko Gizarte Kontseilua (Nagusilan eta Gueskeko langileak)
- SIIS – Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa
- Nagusilan (2 pertsona) – Adinekoen gizarte-boluntarioak
- ICAVI taldea – Aniztasun funtzionalaren zerbitzurako aholkularitza

### 3.2. eranskina. Lan-jardunaldian egin diren ekarpenak

Dokumentua idatzi ostean, Estrategia honen hiru gai-alorren edukia jendaurrean aurkezteko erabakia hartu zen, herritarren iritzia jasotzeko eta, aldi berean, gaiari buruz izan zitzaizketen ekarpenak egiteko aukera emateko. Horretarako, 2015/04/24an lan-jardunaldi bat egin zen, eta bertan izan ziren adinekoen alorreko erakunde, instituzio eta elkarteetako hainbat kide. Ekitaldian, zenbait hitzaldi ez ezik, han izan zirenez osatutako lantaldeak ere egin ziren; bertaratutakoek, gai-alorrei buruz zer ikuspegi zuten adierazi, eta zegozkien ekarpenak egin zituzten.

Jarraian, lantaldeotan egindako ekarpenak laburbildu dira.

## 1. ALORRA. Gizartea zahartzera egokitzea, gobernantza-eredu berri bat.

### 1. eta 2. mahaien erreferentziako gaia: zein alderdi iruditzen zaizkizue funtsezkoak gizartea eta haren antolamendua eta gobernantza zahartzearen gorabidera egokitzeko?

FUNTSEZKO IDEA	DESKRIBAPENA
1. ideia	<p><b>Ekintza politiko partekatua eta zeharkakotasuna.</b></p> <p>Era askotako taldeetarako bideratutako politika konpartimentalizatuak daude: adinekoentzat, gazteentzat, haurrentzat... Taldeen arteko koordinazio, komunikazio, bizikidetza eta elkarguneak areagotu behar dira (espazioak, ordutegiak...). Azken batean, politikak talde bati baino gehiagori ireki behar zaizkie.</p> <p>Hainbat talderen (gazteak, adinekoak, askotariko egoerak, beharrak, desgaitasunak etab. dituztenak) arteko elkarguneak izateak gehiago irekitzera garamatza, pertsona gisa, eta ahalduz gaitu.</p> <p>Idea horren aberasgarri dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Desgaitasuna: desgaitasunean zeharkakotasuna txertatzea (prestakuntza, informazioa eskuratzeko aukera, egokitzapenak...).</li> <li>• Parte-hartzea. Belaunaldi arteko taldeak sustatzea. Sektorearteko espazioak sustatzea: bertan lekua izan behar dute publikoa denak, pribatua denak, gizarte zibilak, hirugarren sektoreek eta elkarte-ehunak, unibertsitateek.</li> </ul>
2. ideia	<p><b>Berrikuntza.</b></p> <p>Errealitate berria da eta zeharkako erantzun berriak behar ditugu. Erronka konplexua da. Lan publikoa, pribatua...erronka partekatua, eta hari irtenbidea emateko, osotasunaren ikuspegi sistemikoa eduki behar da.</p>
3. ideia	<p><b>Norberaren etxebizitzan jarraitzearen garrantzia.</b></p> <p>Norberak hala nahi izanez gero, jardunaldian azaldutako datuetan adierazi den moduan, Etxean Ondo egitasmoaren moduko proiektuak izan behar dira. Ingurunean jarraitzea, banan-banako arreta jasota.</p>



FUNTSEZKO IDEA	DESKRIBAPENA
4. ideia	<p><b>Formación. Que las personas mayores participen en la formación especializada de los profesionales que atienden a mayores.</b></p> <p>Unido con la idea anterior. El tema de la residencia y el maltrato es un tema a aclarar. También que las personas que trabajan en este ámbito residencial necesitan contar con formación más amplia, con más preparación.</p>
5. ideia	<p><b>Adinekoenganako diskriminazioa murriztea.</b></p> <p>Gai honek zabalkunde handiagoa behar du. Agerikoenak adineko emakumeen kasuak dira. Nabarmenena, pentsio askoz ere txikiagoak jasotzen dituztela. Eta, duintasunerako eskubidearekin batera, funtsezkoa da egoera ekonomikoa.</p> <p>“Eskubideak ez dira iraungitzen, ez adinarekin, ez generoarekin”</p>
6. ideia	<p><b>Adinekoek krisi-egoeran egiten duten ekarpen ekonomiko eta soziala aitortzea.</b></p> <p>Garrantzitsua da familian egiten duten ekarpen ekonomikoaren balioa aitortzea. Pentsio ekonomikoaren kontua Estatuko Administrazioaren eskumena da.</p>
7. ideia	<p><b>Ezagutza eta esperientzia metatua aitortzea.</b></p> <p>Garrantzitsua da adinekoen ezagutza metatua, jakituria eta eskarmentua aitortzea, errespetatzea eta aintzat hartzea.</p>
8. ideia	<p><b>Desgaitasunaren arloko lankidetzak-sareak.</b></p> <p>Desgaitasuna badute, adinekoek lehenago behar izaten dituzte laguntza eta zerbitzuak (45 urte aldera). Beharrezkoak dira eragile guztien arteko lankidetzak eta hitzarmenak.</p>

**9. ideia**

**Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna.**

Eusko Jaurlaritzak ardatz-eginkizuna bete dezake, koordinaziokoa, ikuspegi guztiak bertan egokitzeko.

**10. ideia**

**Parte-hartzea.**

Adinekoen jarrera proaktiboa. Eskubideak eskatzen ditugu, eta betebeharrak ere baditugu. Parte hartu eta aktiboagoak izan behar dugu. Ez eskatu besterik ez. Gizartearekiko betebeharrak bat dugu; hain zuzen, parte hartzea.

**11. ideia**

**Pertsonalizazioa.**

Nork bere erabakiak har ditzake (alde aurreko plangintza).

**12. ideia**

**Adinekoen ordezkariak.**

Sektorearen ordezkariak adinekoen batzordean.

**13. ideia**

**Adinekoen informazioa: protagonismoa.**

Adinekoei dagokienez, protagonismo handiagoa hartu behar dugu.

**14. ideia**

**Eten digitala murriztea.**

**15. ideia**

**Genero-ikusuntzia txertatzea.**

**BESTE ALDERDI BATZUK.**

**Dokumentuari buruz: idazketa zahartzearen estereotipoa da.**

Egiaz, zahartzea etengabeko prozesua da, eta halaxe jorratu behar da. Mundu guztia zahartzen da, ez adin batetik aurrerakoak soilik (+65). Horregatik, zenbait punturen idazketa (adibidez, 1.3) bestelakoa izan liteke, barne har dezan jarraitutasun-ñabardura hori.

## I. ARDATZA: FUNTSEZKO IDEIEN PANELA

### INNOVACIÓN

Nuevas necesidades y apoyos.

### TRANSVERSALIDAD

Políticas con y para todos los colectivos

Espacios de encuentro y de construcción colectiva

La importancia de permanecer en la vivienda propia

Formación. Que las personas mayores participen en la formación especializada de los profesionales que atienden a mayores.

### Participación.

Actitud proactiva

Encuentros inter-generacionales

### Papel del Gobierno Vasco.

Como agente coordinador.

**Reconocimiento de la aportación económica y social de las personas mayores en situación de crisis.**

**Reducir la discriminación hacia las personas mayores.**

Reconocimiento del conocimiento y experiencia acumulada.

Redes de colaboración en discapacidad.

Incorporar la perspectiva de género.

Personalización de la atención.

Información de mayores: Protagonismo.

Reducir brecha digital.

Representación sectorial de las personas mayores en consejos.

**2. ALORRA.** Aurrea hartzea eta prebenitzea, hobeto zahartzeko.

**3. eta 4. mahaien erreferentziako gaia:** zein alderdi iruditzen zaizkizu funtsezkoak pertsonak zahartzen direnean haien autonomia eta independentzia sustatzeko?

FUNTSEZKO IDEA	DESKRIBAPENA
1. ideia	<p><b>Osasunaren prebentzioa eta sustapena.</b></p> <p>Osasuna sustatzeko politikak bereziki azpimarratuko dituzten prebentziozko ekintzak egitea. Ildo horretan, ekintza hauek proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrak sentikortzea eta kontzientziaztea elikadurak osasunean duen eraginari buruz.</li> <li>• Pertsona guztiek elikadura osasungarri eta orekatua izateko aukera izan dezatela bermatzea, edozein dela ere haien gizarte-maila.</li> <li>• Ariketa fisikoa egiteko bultzada eta erraztasunak ematea, eremu eta espazio guztietan.</li> <li>• Buruko osasuna sustatzea eta gaitz jakin batzuk ager daitezela prebenitzea.</li> </ul>

<b>2. ideia</b>	<b>Belaunaldi arteko proiektuak garatzea.</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Belaunaldi arteko proiektuak garatzea, gizarteari eta, bereziki, gazteei, adinekoak eta haiek egin ditzaketen ekarpenak aintzat hartzen laguntzeko.</li><li>• Adinekoekin bakardadearen arazoa lantzea.</li><li>• Lehenagoko eta oraingo adinekoen artean dauden aldean jakitun izatea: oraingoek prestakuntza-maila handiagoa, osasun hobea, bizi-itxaropen luzeagoa, etab. dituzte.</li><li>• Eratzunkidetasuna: guztiok sentitu behar dugu gure inguruneko adinekoei lagun egiteko konpromisoa.</li><li>• “Pertsoneri bidea bakarrik egiten ez uztea”, familiaren, komunitatearen eta gizartearen eremuetatik babesa eta laguntza emanaz.</li><li>• “Guztiok elkar zaintzen duten” komunitate eta belaunaldi arteko eredu baten ikuspegitik jardutea.</li><li>• Lankidetzeta eta kolektibotasuna sustatzea (gizartean nagusi den lehiakortasunaren aurrean).</li></ul>
-----------------	---

#### 4. ideia

Bizi-proiektu bat izaten eta erabakiak hartzen ikasteko hezteko pertsonak.

- Laneko bizitzatik erretirorako trantsizio positiboa sustatzea.
- Eta, zehazki, zahartzen ari diren emakumeak / etxeakoandreak rol-aldaketarako eta "habia hutsak" dakarren aldaketarako prestatzea.
- Hezkuntzaren bitartez, pertsonak haurtzarotik prestatzea erretiratzean aktiboak eta parte-hartzaileak izan daitezten.
- Erretiro-adinera hurbiltzen ari direnei orientazioa ematea eta/edo haiekin hausnartzea zer-nolako zahartzaroa izan nahi duten.
- Adinekoei erabakiak hartzeko eta aro batetik bestera igarotzeko laguntza ematea.
- Hezkuntzaren bitartez, pertsonak bizi-proiektu bat izaten eta erabakiak hartzen ikas dezatela sustatzea.
- Zahartze aktiboa ez da gauzak "egitea" soilik (ariketa fisikoa, antolatutako gizarte-eta kultura-jardueretan parte hartzea, etab.), norberaren bizi proiektua ere bada.

#### 5. ideia

Bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea, genero-ikuspegia kontuan harturik.

Funtsezkoa da "ikastearen" kultura sortzea. Ikasketa ez da bizitza profesionalarekin soilik lotu behar; aitzitik, etengabeko ikasketaren kultura sortzeko gai izan behar dugu, jendearen adina kontuan hartu gabe.

Zeharkako ikuspegi dinamikoa txertatzea da kontua. Horrek ez du esan nahi ezin direnik abian jarri adinekoentzako proiektuak, adibidez, Esperientziaren Eskolak edo erretirorako prestatzeko ikastaroak.

Gainera, garrantzitsua da genero-ikuspegia kontuan hartzea; izan ere, gehienetan gizona erretiratzen da, ez emakumea (etxean zeregin berak betetzen jarraitzen du etxeakoandre gisa). Kontuan hartu behar dira, orobat, beste datu adierazgarri batzuk: adibidez, emakumeek parte-hartze handiagoa izaten dutela jarduera guztietan, bereziki kulturakoetan, etab.

6. ideia	<p>Herritarrek erabaki arduratsuak har ditzatela sustatzea.</p> <p>Funtsezkoa da erabakiak hartzearen kultura sustatzea, herritartasun kontzeptuarekin loturan, eta hori adinekoei soilik bideratu dadila saihestea.</p> <p>Pertsona bakoitzaren balio, printzipio eta etikatik abiatuta jardutean datza, adinekoentzako baino, guztiontzako onuragarri dena harturik ardatz.</p> <p>“Adineko” kontzeptuaren dinamika bera eten behar da, eta adinekoentzat egokitutako gizarte batez hitz egin, ez adinekoak izatea gizartera egokitzen direnak.</p>
7. ideia	<p>Kultura-aldaketek eragindako erronka berriei erantzutea.</p> <p>Kultura-aldaketa ugariri egin beharko diogu aurre eta, hain zuzen, dagoeneko ari gara horiei aurre egiten. Batetik, aurre egin beharreko erronka handienetakoa da hainbat kultura-aldaketa garrantzitsuri erantzuna ematea, adibidez, etxebizitzaren jabetzan, ondare kontzeptuaren balio eta garrantzian (etorkizuneko belaunaldiari oinordetza uztea), diruaren balioan, eta abarretan gertatzen ari diren aldaketei.</p> <p>Bestetik, erantzuna eman behar zaio, halaber, 60 urtetik gorakoen artean eta, bereziki, 50 urtetatik aurrera, dagoen eten digitalari. Ildo horretan eskari handia dago adinekoen artean, teknologia berriak erabiltzeko premiaren jakitun direlarik.</p>
8. ideia	<p>Diziplina anitzeko ikuspegitik aritzea.</p> <p>Garrantzitsua ez da “zer” egin soilik, baita “nola” egin ere, orokortasunetik, gizarte-premiei erantzun berriak emateko profil desberdinak txertatuz. Ildo horretan, garrantzitsua da hainbat ikuspegi kontuan hartuz aritzea.</p>

9. ideia	<p><b>“Housing” delakoa sustatzea</b></p> <p>Funtsezkoa da bizileku-molde berriak sustatzea (cohousing, belaunaldi arteko etxebizitzak, bizikidetza-unitateak,...) adinekoek beren etxean ahal bezain luze iraun dezaketela bermatzeko.</p> <p>Horrez gain, ordezko bizilekuak sustatu ez ezik, ahaleginak egin behar dira “etxean bezalako etxebizitzak sortzeko”. Izan ere, adinekoek tutoretzapeko pisu batean bizitzea onartzen dutenean, batez beste bost urte behar dituzte “etxean bezala” sentitzeko.</p>
10. ideia	<p><b>Gizartean norberaren zaintzaren ideia txertatzea.</b></p> <p>Helburua da norberaren zaintza gizartearen erabakia izatea, eta ez gizabanakoaren erabakia.</p>
11. ideia	<p><b>Adinekoen oraingo eta geroko premiei erantzuna ematea.</b></p> <p>Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia da, halaber, adinekoek gaur egun dituzten premiei erantzuna eman behar zaiela (lantegiak, prestakuntza, hitzaldiak, elkarguneak, aisialdi eta astialdiko eskaintza, etab.) eta, aldi berean, etorkizunari aurrea hartu behar zaiola prebentzio-politiken bitartez.</p>
12. ideia	<p><b>Eskura dagoen informazioa hobetzea, probintzian dauden baliabideei buruzko gidaliburuak argitaratuz adinekoentzat.</b></p> <p>Informazio-hutsune handia hauteman da udalerrietan adinekoentzat dauden baliabideei dagokienez. Oso lagungarria litzateke gaur egun barreiatuta dagoen informazio guztia bateratzea eta probintziako baliabideei buruzko gidaliburu bat eskaintzea.</p>



## 2. ARDATZA: FUNTSEZKO IDEIEN PANELA

OSASUNAREN PREBENTZIOA ETA SUSTAPENA  Elikadura. Osasun mentala. Kirola.		BELAUNALDI ARTEKO EGITASMOAK  Aintzat hartzea. Zaintza- eredu komunitarioa. Bakardadea saihestea.
EPE LABURRERA ETA LUZERA EGOKITUTAKO ETXEBIZITZA  Araudiak bateratzea. Hiri- plangintza.		ZAHARTZEA BIZI- PROIEKTUAREN PARTE GISA  Zahartze aktiboan hezteak.  Erretirorako trantsizio positiboa.
Bizialdi osoko ikaskuntza, genero-ikuspegia kontuan harturik.		Herritarrek erabaki arduratsuak hartzea.
Kultura-aldaketek eragindako erronka berriak.		Diziplina anitzeko ikuspegiak
Housinga.		Gizarteak norberaren zaintzaren ideia izatea.
Adinekoen oraingo eta geroko premiak.		Probintzian dauden baliabideei buruzko gidaliburuak adinekoentzat.

### 3. ALORRA. Lagunkoitasuna eta parte-hartzea ongizatearen gizartea eraikitzeko garaian.

#### 5. eta 6. mahaien erreferentziako gaia: zein alderdi iruditzen zaizkizu funtsezkoak adinekoentzat gizarte lagunkoia eta parte-hartzailea eraikitzeko?

FUNTSEZKO IDEA	DESKRIBAPENA
1. ideia	<p><b>Interes teknikoek eta gizarte-mugimenduek bat egitea.</b></p> <p>Garrantzitsua da talde teknikoen interesek (zehazki, udal-teknikariak aipatu ziren) eta elkarteek eta beste gizarte-mugimendu batzuek bat egitea.</p> <p>Elkartegintzari dagokionez, bi jarrera daude: batetik, irizten da adinekoen alorrean dagoen elkarre-egitura aski dela komunitatearen garapenean lankidetzan aritzeko, eta ez dagoela zertan gehiago bultzatu, baizik eta dagoena indartu behar dela; bestetik, iruditzen zaie Bilbo Handitik urrun dauden zenbait udalerritan, Gipuzkoan edo Araban, badutela bultzada beharrik.</p> <p>Asko azpimarratu da “kaletik erakundeetara” (behetik gora) doazen parte-hartze ereduak ezarri behar direla, adinekoen parte-hartzea benetakoa izan dadin.</p> <p>Beharrezkoa da laguntza ematea eta parte-hartzean prestatzea, kasu bakoitzerako parte-hartze eredu egokiena aukeratzeko.</p> <p>“Behetik gorako” parte-hartze ereduak ezartzea, adinekoak protagonista dituztenak.</p>
2. ideia	<p><b>Adinekoekin “lagunkoi” diren hiriak, aldaketarako aukera gisa.</b></p> <p>Garrantzitsua da nabarmentzea “hiri lagunkoia” guztientzat izan behar dutela (ez adinekoekin loturan soilik) eta “hiri hezitzaile” ere izan behar dutela (Gasteiz jarri zuten adibide gisa).</p>

### 3. ideia

#### Parte hartzeko eredu berriak indartzea.

Nabarmendu da askotariko ereduak daudela parte hartzeko (elkartegintzaz harago), eta beharrezkoa dela adinekoen premietara egokitutako parte-hartze ereduak sortzen eta eratzen jarraitzea.

Nabarmendu da elkarte-ehuna ezinbestekoa dela, baina badaudela elkartekide ez diren hainbat pertsona, batez ere adinekoen artean, eta haiek parte hartzeko bideak ere bilatu behar direla.

Dagoen elkarte-sarea baliatu behar da, eta elkarte berriak sustatu behar dira elkarte gutxiago dituzten udalerrietan.

### 4. ideia sustatzea.

#### Komunitateko planak - komunitateko bizitza

Azpimarratu da auzoetan “komunitate-planak” ezarri behar direla, eta politika publikoen bitartez sustatu behar direla, baina herriak-herritarrek izanik protagonistak, nabarmenduz gauzak “behetik gora” egitea dela premisa.

Gaineratu da ez dagoela adinekoak orokorrean direnaren inguruko kontzientziarik, eta ez dela ikusarazten. Elkarte asko adinekoen osatuta daude (adib.: auzotar elkarteak), eta interesgarria litzateke dinamika eta plan horietan haiek kontuan hartzea (sartzea, jendarteratzea...). Hala, belaunaldi arteko loturak sor litezke.

## 5. ideia

### **Belaunaldi arteko elkarrizketan oinarritutako gobernu irekia.**

Gai honekin loturan hizpidera ekarri da "gobernu irekia", gazte-heldu-adinekoen belaunaldi arteko elkarrizketan parte hartzea sustatzen duena. Azpimarratu da, baita ere, garrantzitsua dela gazteen eta adinekoen arteko elkarrizketa bultzatzea, baina hutsune handiena helduen eta adinekoen arteko elkarrizketan, harremanean, etab. gertatzen dela, eta 35 urtetik 45 urtera bitarteko adin-tartea geratzen dela adinekoekin elkarrizketa eta dinamiketan parte hartzetik urrun eta kanpo. Ildo horretan, gaineratu liteke gobernuak haurtzaro, gaztaro eta/edo hirugarren adinerako egiten dituen planetatik kanpo geratzen dela adin-tarte hori, urte horietarako ez baitago berariazko plangintza publikorik.

## 6. ideia

### **Landa-ingurune lagunkoiak.**

Aipatu da erronka gisa interesgarria litzatekeela Hiri Lagunkoien eredua beste ingurune batzuetara eramatea edo estrapolatzea, landa-ingurunera, kasurako. Izan ere, badira hirigunetik isolatutako etxeetan bizi diren herritarrak, eta lurraldearen orografiak hiriko bizitzatik, erabakietatik eta parte hartzeko sortzen diren aukeretatik aldentzen eta urruntzen ditu.

## 7. ideia

### **“Euskadi Lagunkoia” proiektuaren garrantzia.**

Azpimarratu da “Euskadi Lagunkoia” proiektua udal-gobernuek beren udalerrietan egindako aurrerabide garrantzitsua dela. Bizkaian, adibide nabarmena da Durangoko esperientzia pilotua.

- Gobernantza partekatuko “komunitate-bizitzaren” garrantzia.
- Balioen galera: gizatasuna, elkartasuna (bizilaguna, etxe-atariko komunitatea...) eta, batez ere, “erantzunkidetasuna”. Belaunaldiak elkarrengana hurbiltzeko, “balioetan” hezten jarraitu behar da, eta horretarako programak sustatu behar dira.

## 8. ideia

### **Adinekoen ekarpen sozioekonomikoari balioa ematea.**

Adinekoek gizartearen funtzionamendurako egiten duten lanaren garrantzia ikusaraztea eta aintzat hartzea.

## 9. ideia

### **Oinarriko gizarte-zerbitzuen erronka: nola elkarreragin, esku hartu... eta/edo komunitate-zirkuituetako prozesuen buru izan?**

Politika publikoak, gizarte-zerbitzuak eta komunitateko bitzta bateratzeko abagunea baliatzea.

- Espezializazioa falta da komunitate-plangintzako lanean.
- Hainbat udalerritan ia-ia desagertu egin da auzolana.

## 10. ideia

### **EUSKADI LAGUNKOIAREKIN bat egin duten udalerriak gehitzea sustatzea.**

“Programa lagunkoia” zer diren eta zertarako balio duten ezagutzera eman dadila sustatzea.

- 11. ideia** Boluntariotzako eta bizialdi osoko ikaskuntzako proiektu integralak sustatzea.
- 12. ideia** Familia-sarearen eta administrazio publikoen arteko erantzunkidetasuna sustatzea adinekoak zaindu eta babesteari dagokionez.
- Zahartzen ari diren gizon eta emakumeen artean familia barruko erantzunkidetasuna sustatzea.

## 3. ARDATZA: FUNTSEZKO IDEIEN PANELA.

Interes teknikoek eta gizarte-mugimenduek bat egitea.		Adinekoekin "lagunkoi" diren hiriak, aldaketarako aukera gisa.
Parte hartzeko eredu berriak indartzea.		Komunitateko planak sustatzea - komunitateko bizitza.
Belaunaldi arteko elkarrizketan oinarritutako gobernu irekia.		Landa-ingurune lagunkoiak.
"Euskadi Lagunkoia" proiektuaren garrantzia.		Adinekoen ekarpen sozioekonomikoari balioa ematea.
Oinarriko gizarte-zerbitzuen erronka: nola elkarreragin, esku hartu... eta/edo komunitate-zirkuituetako prozesuen buru izan?		EUSKADI LAGUNKOIAREKIN bat egin duten udalerrriak gehitzea sustatzea.
Boluntaritzako eta bizialdi osoko ikaskuntzako proiektu integralak sustatzea.		Erantzunkidetasuna sustatzea.

